

JEAN-BAPTISTE COYOS

**ZUBERERAZKO ISTORIO,
ALEGIA ETA IPUIN
IRRI-EGINGARRI**



EUSKALTZAINAK BILDUMA

EUSKALTZAINDIA

JEAN-BAPTISTE COYOS

ZUBERERAZKO ISTORIO, ALEGIA ETA IPUIN IRRI-EGINGARRI

Gure Herria aldizkariaren idazleak (1924-1939)

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

ISBN: 978-84-95438-96-6
Lege-gordailua: BI-I.710-2013

JEAN-BAPTISTE COYOS

ZUBERERAZKO ISTORIO,
ALEGIA ETA IPUIN IRRI-EGINGARRI
Gure Herria aldizkariaren idazleak
(1924-1939)

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2013

AURKIBIDEA

Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri

Aitzinsolasa: <i>Irria libra dezagun</i> (Jean-Louis Davant)	XI
I. Iruzkun batzuk zubererazko testu irri-egingarri hautaketaz <i>Gure Herria</i> aldizkarian (1924-1939)	I
I.1. Liburu honen edukia.....	I
I.1.1. Hogeita hamar zubererazko testu hautatu	I
I.1.2. Zubererazko testuak <i>Gure Herria</i> aldizkarian	2
I.2. Zuberotar literatura eta liburu honetako testuak	3
I.2.1. Zuberotar literaturaren dibertsitateaz	3
I.2.2. Liburu honetako testuak	4
I.2.3. Garai bateko lexiko aberats eta tokikoa	5
I.2.4. Eskualtzaleen Biltzarra elkarteak testu saristatuak.....	7
I.3. Liburu honen xede-publikoa	8
I.4. Idazleen biografia laburra	8
I.5. Orduko ortografia eta oraingoa.....	II
I.5.1. Orduko eta oraingo letren edo letra-taldeen arteko korrespondentziak	II
I.5.2. Jatorrizko ortografiaz	13
Eskerrak.....	15
2. Ipuinak.....	17
2.1. <i>Pello Espainola</i> (Dominique Béhéty, 1927)	19
2.2. <i>Xemarti</i> (Dominique Béhéty, 1931)	23
2.3. <i>Koki bat</i> (J. Berrionde, 1930).....	28
2.4. <i>Anttoni Zokozorri</i> (J. Berriondo, 1931)	31
2.5. <i>Anttoni Zokozorri eta Manex Büriüpelat</i> (J. Berriondo, 1931).....	33
2.6. <i>Degro Parot degria</i> (Pette Chibero, 1931)	36

2.7. <i>Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak</i> (Joanes Etchegoren, 1938)	38
2.8. <i>Jinko bonaren grazia</i> (Fabien Hastoy, 1936)	43
2.9. <i>Kaloka eta Pupuñi</i> (Jean-Baptiste Mazéris, 1932)	45
2.10. <i>Axigar</i> (Pierre Picochet, 1924)	51
2.11. <i>Ziberuko berri</i> (Pierre Picochet, 1928)	55
2.12. <i>Eratz kaldüka</i> (Pierre Picochet, 1930)	58
3. Alegiak	61
3.1. <i>Gaiüainera eta bi anddeijerrak</i> (Pette Chibero, 1930)	63
3.2. <i>Biesadiün</i> (Pette Zibero, 1931)	66
3.3. <i>Kritxa eta üinürria</i> (Pette Zibero, 1931)	68
3.4. <i>Zoin eijerrago?</i> (Fabien Hastoy, 1937)	69
2.5. <i>Ezkürra eta Küia</i> (Fabien Hastoy, 1937)	75
3.6. <i>Gatüa, anddeijerra eta erbittoa</i> (Fabien Hastoy, 1937)	76
3.7. <i>Bi ohoinak eta astoa</i> (Fabien Hastoy, 1938) eta <i>Xüxentze</i> (Fabien Hastoy, 1938)	79
3.8. <i>Bettan eta Raton</i> (Fabien Hastoy, 1939)	81
4. Narrazioak	83
4.1. <i>Ontsa erabilirik badira, eskuaraz oro bardin eder dira</i> (Fabien Hastoy, 1937)	83
4.2. <i>Pierraren pelota</i> (Pierre Jaury, 1936)	86
4.3. <i>Arto xuritzea</i> (Pierre Jaury, 1937)	88
4.4. <i>Pettiriren lehen astea Zuburteko olan</i> (Pierre Jaury, 1938)	97
4.5. <i>Tzintzarroskak</i> (Jean-Baptiste Mazéris, 1931)	102
4.6. <i>Maskaradak</i> (Jean-Baptiste Mazéris, 1933)	108
4.7. <i>Ziberuan Dantza</i> (Pierre Picochet, 1930)	124
5. Beste	127
5.1. <i>Betzülako aize epailea</i> (Fabien Hastoyen aurkezpena: J.J., 1935)	127
5.2. <i>Urriago da. . .</i> (Fabien Hastoy, 1936)	128
5.3. <i>Hamasei pikoeratako pertsuak</i> (Fabien Hastoy, 1936)	131
5.4. <i>Pariseko modak eta probintzietako moda zabarrak</i> (Fabien Hastoy, 1938)	134
Lexiko laburra Zuberera-batua	141

Bibliografia	I45
Ilustrazioen zerrenda	I47
<i>Gure Herria</i> , 1927ko Iraila-Urriaren azala	I7
<i>Pello Española</i> (D. Béhéty), 1927ko Iraila-Urria: 432. or.	I8
Jean-Baptiste Mazéris (argazkia familiak emana).....	44
<i>Gure Herria</i> , 1930eko Azaroa-Abenduaren azala.....	61
<i>Gai-aiñbera eta bi andere ejerrak</i> (P. Chibero), 1930eko Azaroa-Abendua: 509. or.	62
<i>Gai-aiñbera eta bi andere ejerrak</i> (P. Chibero), 1930eko Azaroa-Abendua: 510. or.	64
<i>Bi ubuñac eta astoa</i> (F. Hastoy), 1938ko Apirila-Ekaina: 114. or.	78
<i>Haborokina</i> (J.-B. Mazéris), 1933ko Uztaila-Agorrila: 311-315. or.....	I10
I. <i>Arribadak</i> (311. or.).....	I10
II. <i>Ekuian emaiten den dantz-aidia</i> (312. or.).....	I14
III. <i>Gudalet dantza</i> IV. <i>Jaun-andere-laborari-laborarisa-en dantzak</i> (313. or.)	I15
V. <i>Chorrotchen aidia</i> VI. <i>Bubame jaunaren dantza</i> VII. <i>Kauteren aidia</i> (314. or.).....	I13
VIII. <i>Kerestu dantza</i> (315. or.)	I22
<i>Gure Herria</i> , 1936ko Maiatza-Ekainaren azala	I30
<i>Pariseko mudak eta provintzietako muda zabarrak</i> (F. Hastoy), 1938ko Urria- Abendua: 310. or. Chant des couplets - Refrain.....	I36

IRRIA LIBRA DEZAGUN

Guziz ezagunak dira Zuberoako euskal literaturak dauzkan bi puntu nagusiak: batetik trajeria / pastoral, bestetik kantugintza, profanoa nola sakratua. Prosan urriago egon gara berriki arte. Aro modernoan, mende bakoitzak bere zuberotar prosalari handi bakarra ukan du, apez, bere idazlan gehienetan itzultzailea: XVII. mendeak Athanase de Belapeire mauletarra, XVIII.ak Martin Maister Ligiko erretoea, XIX.ak Emmanuel Inchauspe zunharretar bikario orokorra.

XX. mendean, prosako sail horretan ere aberasten hasi gara. Izen-abizen eta deitura gorenak denen gogoan daude, beraz ez ditut hemen errepikatuko. Baina bestalde, munduko bi gerla handien artean, zuberotar prosalari gazte andana bat agertu zen *Gure Herria* aldizkarian, istorio eta ipuinak sotilki kontatuz. Gutiz gehienak apezgaiak ziren. Salbuespen ezaguna Fabien Hastoy errient publikoa dugu, batetik laikoa zenez, bestetik bertsozko alegiak ere «ondu» zituenez. Gainera besteak baino zaharrago zen.

Battittu Coyos euskaltzainak, bere liburu honetan, belaunaldi horretako zortzi autoreren idazlan batzuk berpizten ditu, haatik ez edozein krakakoak: «istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri» zenbaiten berriz argitaratzea hautatu du. Hautu horrek edozein euskaltzaleri plazer eginen duela uste dut, ezen denek umorea maite dugu, are gehiago ironia, hau merkeago baita ere, askazi hurbila duen trufañoa bezala.

Gainera irri egiteko aldiak ez ditugu hainen jori azken denboretan, bereziki munduko, erresumako, eskualdeko berriak irrati-telebistaz soberaxko entzuten ditugularik. Artetarik botoia zapa, eta liburu on bat har: osasunarentzat ez da deus hoberik, oroz gainetik irria sortzen duelarik. Battittu Coyosen liburu berri hau ezin zen hobeki etorri. Paradaz balia gaiten: zakutik edo zorrotik atera dezagun, eta «süstut» zabal eta irakur. Grafia berriak Zuberoako euskalki berezia zinez errexten du beste lurraldeetako irakurleentzat: horri esker, zuberera klasikoa endelga dezake ongi dakien edonork. Gainera Coyosek bukaeran hiztegi labur bat agertzen digu.

Beraz irri on, adiskidea! Gero ez dugu gehiago erranen euskaldunek literatura tristea dugula. Esker mila Battittu Coyos euskaltzainari.

Jean-Louis Davant

I. IRUZKIN BATZUK ZUBERERAZKO TESTU IRRI-EGINGARRI HAUTAKETAZ *GURE HERRIA* ALDIZKARIAN (1924-1939)

I.1. Liburu honen edukia

1.1.1. Hogeita hamar zubererazko testu hautatu

Liburu honetan *Gure Herria* aldizkarian 1924tik 1939ra argitaratu ziren zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri hautaketa bat eskaintzen da. Oro har, hogeita hamar testu hautatu ditugu: narrazioak, ipuinak, alegiak eta sailkatzeko errazak ez direnak. Gainera, bi testuri emendatu zitzaizkien musika-notak faksimiletan emanak dira.

Garai hartan zubereraz idazten zuten idazleek mota ezberdineko testuak argitaratu zituzten, irri-egingarriak, umoretsuak zirenak barne. Bistan da, hemen egin den hautaketa subjektiboa da; ez dakigu guri agertu zaigun alderdi irrigarria irakurleari agertuko zaionez.

1924tik hasiz, kasik zenbaki denetan zubererazko testu bat bazegoen *Gure Herrian*, noizean behin bi edo hiru. Adibidez, 1931ko Martxo-Apirilaren zenbakian Dominique Béhétyren testu bat eta Pette Chiberoren bat baziren. 1931ko Urtarrila-Otsailaren zenbakian hiru izan ziren: J. Berrionderena, Pette Chiberorena berriz eta argitaratzen ez dugun P. Epherreren *Zenía*. Halaber 1938ko Urria-Abenduarenean Joanes Etxegorenen testu bat, Fabien Hastoyena eta Pierre Jauryrena.

Zergatik testu horiek berriz publikatu? Emile Larre euskaltzainak 1992an herri-ipuinez egiten zituen iruzkinak nere gain hartzen baititut: «*Badugula gaurko egunean guk zer egin, liburutegi xokoetan ez utziz betikotz lo eta mutu gure arbasoek, aitatik semera eta amonatik ilobatxorat aboz eta kontaketaz irauarazi zuten zuburtzia ederra (...) ager dituen ager, gebiago, jada agertuak direnen gainera, gure ipuin zabarren berrargitarazleak eta ezar dituen holako gaiak esku guzien menen, zinez plazaraturik, gure herri-ipuinak*»¹. Ohar horiek irakurleak eskuetan dituen testuei aplikatzen zaizkie.

¹ Iparraldeko herri-ipuin idatziak, *Euskera*, XXXVII-I: 474-475. or.

Gure Herria aldizkaria liburutegi bakan batzuetan aurki daiteke, baina ez da hain ezaguna eta edizioa hoberenatarik ez zen beti. Bestalde, ikusiko dugun bezala, idazle bakoitzak bere idazteko moldea bazuen, ortografia orduan finkatua ez baitzen. Hots, iduritu zaigu testu horiek gaurko idaztankeran publiko zabalari emateak balio zuela. Testuak aberatsak dira, era askotakoak. Orduko Zuberoako bizitza ezagutarazten digute, bereziki baserrikoa, urtaroko lanak, artzaintza, aisialdiak eta josketak, irri edo irriño egiteko moldeak, euskaldunen zailtasunak frantsesetik mintzatzeko (Fabien Hastoyen 1935eko *Urriago da...* testuan), etab. Gainera, desagertzen den lexiko oparoa, laurogei, laurogeita hamar urtez aldatu den Zuberoako euskalkia, familiaren bidez transmititzen zen zuberotarra gozatzeko aukera eskaintzen digute.

Hots, nahiz hizkuntza aldetik, nahiz kultura eta etnologia aldetik, proposatu diren testuak balio handiko lekukoak dira.

1.1.2. Zubererazko testuak *Gure Herria* aldizkarian

Gure Herria aldizkaria garai hartan Iparraldeko euskarazko aldizkari nagusia zen, testuen erdia, batez beste, frantsesetik izan bazen ere. Orduko euskal letradunen oroen partaidetza eskuratzen zuen. 1921ean sortua Baionan, 1939ko agorrilan itxi zen 1950ean berriz agertzeko 1976a arte. 1926a arte hilabetakaria zen eta ondotik bi hilabetetatik behin agertzen zen. Euskal gaiak bakarrik azaltzen ziren, deitzen zuten « euskal arima », literatura-genero ezberdinak, haurrentzat ere, historia, folklorea eta bizi kulturala, musika eta kantua, etab.

Hautapen honetan, testu gehienak laburrak dira, hiruzpabost orrialdekoak. Alegiak orrialde batekoak dira usuenik, aldiz narrazio batzuk zortzi, hamarrekoak izan daitezke. Muga emateko, 1924a eta 1939a arteko testuetan aukera egin dugu. Hautatu diren zortzi idazleen testuak denak ez dira hemen berragitaratzen, erri-egingarriak iduritzen zitzaizkigunak baizik.

Horiek dira 1924etik 1939ra zubererazko testu oroien idazleen zerrenda eta argitalpenaren urtea eta hilabetea. Zonbait aiantzi genitzake: Dominique Achigar (1930eko urtarrila), Joanes Basaburu (1935eko martxoa), Dominique Béhéty (1927ko iraila, 1929ko urtarrila, 1931ko martxoa eta iraila, 1932ko urtarrila eta iraila, 1933ko urtarrila eta maiatza), J. Berrionde / Berriondo (1930ko iraila, 1931ko urtarrila eta maiatza), P. Epherre (1931ko urtarrila), Joanes Etxegoren (1935ko iraila, 1938ko urria), Fabien Hastoy («Betzulako aize ephailia», 1935ko uztaila, 1936ko urtarrila, martxoa, maiatza eta iraila, 1937ko apirila, uztaila eta urria, 1938ko apirila, uztaila eta urria, 1939ko agorrila (azken zenbakia 1950 arte), Jean de Jauréguiberry (1931ko azaroa), Pierre Jaury (1936ko uztaila, 1937ko uztaila, 1938ko urria), Pierre Lanouguère («Pette Chibéro / Zibero», 1930ko martxoa, maiatza, iraila eta azaroa, 1931ko urtarrila, martxoa eta maiatza,

1934ko azaroa, 1935ko iraila; Pierre / Pierrañi Lanouguère, 1924ko abendua, 1935ko iraila), Louis Ligeix (1928ko maiatza), Jean-Baptiste Mazéris (1927ko azaroa, 1931ko iraila, 1932ko azaroa, 1933ko uztaila), «Misioneste tchipitot bat» (1937ko apirila), Pierre Picochet (1924ko azaroa, 1926ko agorrila eta urria, 1927ko maiatza, 1928ko urtarrila eta martxoa, 1929ko martxoa, 1930ko urtarri-la eta uztaila). Hots hirurogei bat testu; hemen horietatik hogeita hamar ematen ditugu.

2001ean, Jean-Louis Davantek *Zuberoako idazle zenduak* liburuan aldizkarian agertu ziren zubererazko testu batzuk argitaratu zituen, «Gure Herria» aldizkari-koak atalean (51.-116. or.). Bistan da, horiek ez ditugu berriz argitaratzen.²

1.2. Zuberotar literatura eta liburu honetako testuak

1.2.1. Zuberotar literaturaren dibertsitateaz

Zuberera euskararen lau euskalki literarioetan izan zen eta da. 2007an azpimarratu nuen nola, xume izanik ere, zubererazko literatura aski ezberdin eta emankorra zela, erlijio- eta pastoral-testuei edo kantuei ez mugatua bakarrik: «...literatura xüme bori frantsesezkoari konparatüz, ezbardina, aberatsa dela pentsa genezakean beno baboro. Literatüra hau ez zen erreljiosa baizik. Leben, orai bezala, irakurlegoa ttipi zela suposa dezakegü ere. Eta literatüra horren izatea ezagützen ez bagünüan, erakatsirik ez baitzaigü izan da arrazua, eta ez bes-terik!»³.

Zuberotar idazleei buruz ohar hori egin nuen: «Xiberoan elizagizonak izan ziren bereziki menteetan zehar eüskaraz idatzi züenak, bena heltü bada beste eüskal esküaldeetan beno gütiago: Bertrand Zalgize (epaile eta politikari), Allande Oihenart (abokatu eta politikari), Jean Espil (errejent), Beñat Mardo (zintzarri-egile, koblakari), Jusef Egiategi (errejent), Pierre Topet-Etxahun (koblakari, artzain), Agosti Xabo (idazle, kazetari, politikari), Jean-Baptiste Archu (errejent eta ikuskari), Jean-Baptiste Constantin (errejent), etab, laikoak ziren», besteak beste⁴.

² Horiek dira: Dominique Béhétyren *Agosti eta Pheti* (1929: urtarrila-otsaila, 71-76); Pette Chibé- roren (P. Lanouguère) *Mustraka* (1930: martxo-apirila, 163-166) eta *Arima Herratiak* (1930: iraila-urria, 455-460); Jean-Baptiste Mazérisen *Bi arrain* (1927: azaroa-abendua, 432-436); Pierre Picochet- en *Ziberuko aldian* (1929: martxo-apirila, 171-174); Fabien Hastoyen *Tchitbatea eta Uñburria* (1936: urtarrila-otsaila, 14-16) eta *Igelak, idia bardintu nabi* (1936: iraila-abendua, 395); Jean Etxegorenen *Musde Kukullero*, 1950: urtarrila-otsaila, 46-53. Halaber, Davantek *Zuberoako literaturaz Antologia laburra* liburuan Dominique Achigar-ek 1930ean *Gure Herria*n agertarazi zuen *Bakbotcha bere lanetan* testu irri- egingarri publikatu zuen (2008, Euskaltzaindia).

³ *Xiberotarra Zuberera: le dialecte basque souletin*: 48. or.

⁴ *Ibid.*: 39. or.

Aztertzen den garaian, bigarren munduko gerla baino lehenagokoan, *Eskualduna* astekarrian eta almanaka ezberdinetan ere publikatzen zuten zuberotar idazleek. *Eskualduna*-n aipa ditzagun, adibide gisa, Pierre Lhanden (Baiona 1877 - Atharratze 1957) mintzaldi bat (1926-10-01) edo Jean-Baptiste Constantinen (Santa Grazi 1847 - Atharratze 1922) bi testu, *Don Juan eta bere adixkidiak* (1910) eta *Haritchabaletaren bizia* (1926)⁵, narrazio irri-egingarriak, umorez beterik.

1.2.2. Liburu honetako testuak

Arestian esan bezala, lau testu mota badaude hemen. Ordena honetan emanen ditugu: ipuinak, alegiak, narrazioak eta bukaeran sailkatzeko zailak direnak, lau multzoak idazlearen deituraren ordena alfabetikoaren arabera.

Irakurleak eskuetan duen liburu hau ez da edizio kritikoa. Egiten ditugun iruzkin labor eta motzek egiteko litzatekeen ikerketa literario eta linguistikoa ordezkatzen ez dute. Holako ikerketa zientifikoa liburu honen helburuetan ez da sartzen.

- Ipuinak

Ipuin sailean sailkatu ditugun testuak hamabi dira. Denek, era batez edo beste, umorezko tasuna daramate. Argi da autoreek irri eginarazi nahi zutela.

Horiek dira: *Pello Espainola* (D. Béhéty, 1927), *Xemarti* (D. Béhéty, 1931), *Koki bat* (J. Berrionde, 1930), *Anttoni Zokozorri* (J. Berriondo, 1931), *Anttoni Zokozorri eta Manex Büürüpelat* (J. Berriondo, 1931), *Degro Parot degria* (P. Chibero, 1931), *Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak* (J. Etchégoren, 1938), *Jinko honaren grazia* (F. Hastoy, 1936), *Kaloka eta Pupuñi* (J.-B. Mazéris, 1932), *Axigar* (P. Picochet, 1924), *Ziberuko berri* (P. Picochet, 1928), *Eratz kaldüka* (P. Picochet, 1930).

- Alegiak

Ohizko moral ekarpenaz gain, umorezko aldea badaukate alegia horiek. Zortzi dira: *Gaiüainera eta bi anddeijerrak* (P. Chibero, 1930), *Biesadiün* (P. Zibero, 1931), *Kritxa eta üinürria* (P. Zibero, 1931), *Zoin eijerrago?* (F. Hastoy, 1937), *Ezkürra eta Küia* (F. Hastoy, 1937), *Gatiüa, anddeijerra eta erbittoa* (F. Hastoy, 1937), *Bi oboinak eta astoa*

⁵ Patri Urkizuk bi testu horiek berrargitaratu zituen 1996an: *Haritchabaletaren bizia - Don Juan eta bere adixkidiak*. *Haritchabaletaren bizia* testua Constantin heriotzaren ondotik publikatu zen folletoi formatuan (13 alditan 1926-04-16tik 1926-09-10a arte), bizi zelarik *Eskualduna*-k testu hori argitaratzea onartu ez baitzuen. Esan behar da Elizaren eragina handia zela *Gure Herrian* ere. 1932an, adibidez, *Gure Herria* elkartearen administrazio kontseiluko hamasei kideetatik zazpi elizgizon ziren eta lehendakaria Mathieu apezpikua zen.

(F. Hastoy, 1938) eta *Xüxentze* (Hastoyen *Bi oboinak eta astoa-ri* buruzko zuzenketak), *Bettan eta Raton* (F. Hastoy, 1939).

1668a eta 1694a artean argitaratu ziren Jean de La Fontaineren alegiek arrakasta handia izan zuten Frantzian, irakaskuntzan bereziki. Ikasleek gogoz ikasten zituzten. Gure zuberotar idazleek idatzi zituzten bertsiioak jatorrizko alegiatik hurruntzen dira, eduki moral eta umoretsua zaintzen badute ere. XIX. mendean jadanik, Jean-Baptiste Arxuk alegia horietatik asko euskaratu zituen izenburu ezberdin pean⁶.

- Narrazioak

Narrazioak zazpi dira: *Ontsa erabilirik badira, eskuaraz oro bardin eder dira* (F. Hastoy, 1937), *Pierraren pelota* (P. Jaury, 1936), *Arto xuritzea* (P. Jaury, 1937), *Pettiriren leben astea Zuburteko olan* (P. Jaury, 1938), *Tzintzarroskak* (J.-B. Mazéris, 1931), *Maskaradak* (J.-B. Mazéris, 1933), *Ziberuan Dantza* (P. Picochet, 1930).

Testuak luzeagoak dira eta ikuspuntu etnologikotik zinez oparoak. *Maskaradak* testuaren ondoren, zazpi dantzaren musika-notak emanik dira, maskaradetan zehar dantzatuak zirenak.

- Beste testuak

Bururatzeko beste lau testu ematen dira: *Betzülako aize epailea*, Fabien Hastoyen aurkezpena J.J.k, Joanes Basaburu izengoitia duenak, idatzirik iduriz (1935), *Urriago da...* (1936), *Hamasei pikoeratako pertsuak* (1936) eta *Pariseko modak eta probintzietako moda zaharrak* (1938), hiruak denak Fabien Hastoyek idatzirik. Estiloaz olerki eta narrazio artean kokatuak dira eta umoretsuak. Azkenarekin batera koplak eta errepikaren musika eta hitzak badaude.

1.2.3. Garai bateko lexiko aberats eta tokikoa

Lexikoa, esan nahi baita hizkuntza edo dialekto baten hitzen multzoa, gizarte bati, kultura bati, bizi-modu bati lotua zaie zuzenki. Laurogei, laurogeita hamar bat urtez, Zuberoko bizi-moldea aldatu da, halaber zuberotar lexikoa. Teknika batzuk desagertu dira, lan egiteko molde batzuk ere bai, behar bada ere irri-egiteko moduak. Hots, irakurleak, zuberotarrak ere, testuen zehar hitz eta erranmolde ezezagun batzuk aurkituko ditu.

⁶ Ikus itzuli zituen berrogeita hamar alegiak: *La Fontaineren alegia berbeziak neurthitzez franzesetik uskarara*, 1848. Hona ere euskarazko alegiei buruzko beste lan aberats bat: *Alegia klasikoak euskaraz: Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa*, 2010, Beldarrain Agirre Josune, tesia, Donostia, Euskal Herriko Unibertsitatea (www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/BELDARRAIN%20AGUIRRE.pdf).

Biarnoko gaskoiaren eragina argia da. Hona adibide bat. Fabien Hastoyen *Pari-seko modak eta probintzietako moda zabarrak* testuan: adibidez «atrika» hitza badago (Octobre-Décembre 1938: 311). Hitz hori ez da euskal hiztegieta agertzen. Gaskoiari mailegatua zaio argiki. Simin Palay-en *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes* hiztegian bi hitz badaude: *atric* «ajustement, équipement, arrangement (sens péjor.)», *atricàdje* «les choses constituant les vêtements, les effets» (82. or).

Irakurketa laguntzeko, liburuaren azken zatian lexiko zuberotar-batua ematen dugu. Bistan da, testuetan dauden hitzak denak ez dira agertzen hor. Helburua da zubereraz erabiltzen diren testuetako hitzen batuazko baliokidea ematea. Ez, ezohiko hitzena edo orain galduak direnena, baina bai arruntenena. Gainera, batuazkoeri asko urruntzen zaizkielarik zubererazko forma zenbait eman ditugu lexikotan; adibidez *kantore* = kantu, *abesti*, *kümitü* = gonbita.

Batzuk bakanak dira, desagertuak ere behar bada, eta horietatik gutxi zenbait Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* zerrendatuak ez dira. Gainera, Barkoxeko hizkera eta Larrainekoa, bi herri urrundu hartzeko, ez ziren berdin-berdinak. Hitz zenbait zinez tokikoak iduritzen dira eta Barkoxeko idazleen kasuan, adibidez, Simin Palay-en hiztegia baliagarria izan zen horietatik batzuen adiera asmatzen eta ulertzen saiatzeko, *atrika* bezala. Hitz arraro baten kasuan, irakurketa errazteko, oin-oharretan iruzkin zenbait eman dira, testuingurua kontuan hartuz hausnarketa-norabideak emanez hitz horien esanahia asmatzen saiatzeko⁷. Bistan da, hor ere, ikerketa eta landa-lana beharrezkoak lirateke, jakiteko hiztegieta ezagutzen ez den hitz hori baliatua denez oraino, edo, bederen, adineko hiztun batek ezagutzen duenez gazte denboran entzunik.

Hona bi adibide. Jean-Baptiste Mazérisek *sanpillus* izena erabilten zuen eta zortzi idazleengan harek bakarrik. Pierre Lhanden *Dictionnaire basque-français et français-basque*. . . hiztegia ez da zerrendatua. Aldiz *Orotariko Euskal Hiztegia*-k ematen du: S. «Saut périlleux, cabriole» (XIV: 534. or.). Aipamena Jean Larrasqueten *Le Basque de la Basse-Soule Orientale* hiztegia hartua zen. Bearnese hitz bat dela dirudi, izenondoen *-us* azentudun atzizkia gaskoi mailegu bat delarik. Baina *sanpillus* izen bat da. Hipotesietatik bat litzateke *sampoulbàs* aditzetik eratorria izan litekeela: «se gonfler en parlant de la peau, former une ampoule» (Palay, *Dictionnaire du Béarnais*. . . : 879. or.). Baina hobe da *saut périlleux* bearnese esakeraren ahozko aldaketa ikustea (Palay, *Dictionnaire du Béarnais*. . . : 757. or., frantsesez *saut périlleux*, jauzi arriskutsu), Barkoxeko zubereraren sartua ahoskera berezi horrekin.

Beste adibidea, Pierre Jauryren *Pettiriren leben astea Zuburteko olan* testuan dagoen *arkbaka* hitza da. Oin-oharretan hitz hori hiztegieta agertzen ez dela esaten dugu,

⁷ Oin-ohar horiek ez dira nahasiko jatorrizko testu bakan batzuetan agertzen diren oin-oharretan. Azken horiek komatxo artean kopiatu ditugu.

arka hitzetik, «kutxa, arku», etortzen dela behar bada edo, testuinguruaren arabera segurkiago, *arkara*-tik, «ardia arreske denean».

Ohar horiek proposamenak baizik ez dira, irakurlearentzat lagungarriak izan nahi lituzkenak. Jakina, hitz horien ikerketa lexikografikoa beste ikerlan motarik mereziko luke; baina liburu hau holako ikerketa egiteko gunea ez da.

1.2.4. Eskualtzaleen Biltzarra elkarteak testu saristatuak

Testu horietarik batzuk Eskualtzaleen Biltzarra elkarteak saristatu zituen, Jean Etxepare (1923-1926) eta Louis Dassance (1926-1959) medikuen buruzagitzaren garaian.

Hona Jean Etxeparek 1922an idazten zuena: «*Aurten apez geien arteko sariketa batzu eginen dituztela. (...) Gero, uztaillaren ondarreko eginen dute, beren burutik ateraturik, euskarazko kondaira bat. (...) Saritzat badire bi berrehun liberaka: lan bakotxarentzat bi sari, bat berrehun liberakoa eta bertzea ehun-eta-berrogeita-hamarrekoa*»⁸.

Helburua zen euskarazko idatziak bultzatzea eta «haurren primak» antolatzen zituzten ere. «*Istudiant ala herrietako haur guziek eskuratuko dituzte beren sariak handik laster*» (*ibid.*: 66. or.).

Euskarazko idazketaren aldeko ekimen horren garrantzitasuna erakusteko, hau da Piarres Charritton euskaltzainak Eskualtzaleen Biltzarra elkartearen lanaz erra-ten zuena: «*Biltzar egunean lehenik eta euskaldun astekarian gero emaiten zituela (...) 20, 40, 80 herri eta herrixketarik biltzen zituen 200, 400, 1600, kopien berriak. 1930ean, adibidez, 32 apezek eta beste 14 euskalzale lagunek antolatzen zituzten 46 herritako haurren zeingehiagokak... Seminario handiko lanak aldiz, Etxepare mirikuak berak zituen atsegin handiz eskuratzen, jorratzen eta gero hoberenak Gure Herrian argitaratzen*»⁹. Hots, mugimendu azkar bat bazen Eskualtzaleen Biltzarraren inguruan luma berriak sortarazteko eta gero *Gure Herrian*, besteak beste, fruitu berri horiek ezagutarazteko.

Horretan zubererak bere papera eta lekua izan zituen. Horiek ziren hemengo hautaketan saristatu izan ziren zubererazko testuak: 1924 *Axigar* (Pierre Picochet, lehen saria), 1927 *Pello Espainola* (Dominique Béhéty, lehen saria), 1933 *Maskaradak* (Jean-Baptiste Mazéris, lehen saria), 1937 *Pettiriren lehen astea Zuburteko olan* (Pierra Jaury, lehen saria), 1938 *Arto xuritzea* (Pierra Jaury), 1938 *Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak* (Joanes Etchégoren).

Pierra Jauryk, adibidez, bere *Artho churitzea* testua hola izenpetu zuen frantsesez: «*I^{er} prix de l'Eskualzaleen-Biltzarra en 1937*» (Eskualzaleen-Biltzarraren lehen saria 1937an, Juillet-Septembre 1937: 219. or.).

⁸ P. Charritton, Eskualtzaleen Biltzarraren xedeak eta sail berria Maulen (1922), *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak : I Euskal gaiak*: 62. or.

⁹ Eskualtzaleen Biltzarra elkartearen historia laburra...: 10. or.

I.3. Liburu honen xede-publikoa

Arestian esan bezala, *Gure Herria* aldizkaria liburutegi urritan edo Baionako Iker ikergunean aurki daiteke. Baina hautatu diren testuak irakurtzeko, miatu behar da. Hemen, irakurleak bilduak dauzka, modu erabilgarrian, iruzkin eta ilustrazioekin.

Bi xede-publiko nagusi badira. Ikasleak alde batetik, Zuberoako bigarren mailako ikasleak eta lehen mailako handienak. Zergatik? Lehenik, zubererazko testuak hain ugariak ez baitira, bereziki ikastetxean irakurtzeko eta ikertzeko egokiak. Hemen irakasleek mota ezberdinetako irakurtze euskarriak aurkituko dituzte, irakurmena, lexikoa, gramatika edo ortografia lantzeko. Baina ere, testu irri-egingarri horien bidez, irakurketaren atsegina gozarazteko. Gainera, duela guti desagertu den arbasoen bizimoldea ezagutzeko parada izanzen dute: arto xuritzea, lehenagoko maskaradak, tzintzarrotsak, artzaintza, etab.

Bigarren xede-publikoa Zuberoako eta Euskal Herriko helduen publiko zabala da. Testu labor horien bidez, Zuberoako orduko kultura, ohidurak, bizi-modua, josketak, umorea, irri egiteko moldeak ere agertuko zaizkie. Hots, orrialdeen zehar, lekukotasun etnologiko paregabea daukate. Gainera, zuberera ikertu nahi dutenentzat testu horiek orduko euskalkiaren lekuko ezin hobeak dira.

Liburua ez da, aldiz, hizkuntzalarientzat eginik, jatorrizko edizioa nahiko luke tentzat ez bederen. Batzutan, eman dugun ortografiak euskalkian barneko ezberditasunak leun ditzake, baina leuntze hori sistematikoa ez da. Pierre Picochet barkoxtarrak edo Dominique Béhétyk, adibidez, *gizun* [gísun] idazten zuten, baina Pierre Jaury urdiñarbetarrak *gizon*. *Gizon* utzi baldin badugu, atzetik (sic) idatzi dugu, ohar-tarazteko forma hori arruntena ez dela. Halere eta oro har, testuak oraingo zubere-raren ortografian eman dira (ikus behe-rago 5. lerroaldean ortografiarekin nola jokatu dugun) eta erabaki didaktiko hori edizio honen prestatzailearena da.

I.4. Idazleen biografia laburra

Agertzen zaigun lehen ezaugarria da testuak agertarazi zituztenean idazle gehienak apezgaiak zirela (Dominique Béhéty, Joanes Etchégoren, Pierra Jaury, Jean-Baptiste Mazéris eta Pierre Picochet) edo apezza (Pierre Lanouguère, «Pette Zibero/ Chibero»). Fabien Hastoy («Betzulako aize ephailia»), aldiz, lehen mailako irakaslea zen eta erretretan zegoen testuak publikatu zituztenean. Azkena, J. Berrionde edo Berriondo, nor den ez dakigu. Eskualtzaleen Biltzarrak eramaten zuen euskara idatziaren bultzatzeko politikak apezgai kopuru handi hori esplikatzen du, lehendik azaldu den bezala.

Bigarren ezaugarria da, idatzi zutenean, hautatuak diren testuen idazleak gazteak zirela, Fabien Hastoy izan ezik berriz. Dominique Béhétyk 20 urte zituen

1927an *Pello Espainola* publikatu zuenean, Joanes Etchégorenek 23 urte zituen 1938an (*Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak*), Pierra Jauryk 18 urte zituen 1936an (*Pierraren pelota*), Pierre Lanouguèrek 34 urte zituen 1930ean (*Gaiüainera eta bi anddeijerrak*), Jean-Baptiste Mazérisek 23 urte 1931n (*Tzintzarroskak*), Pierre Picochetek 25 urte 1924ean (*Axigar*). Fabien Hastoyek, aldiz, 66 urte zituen 1935ean *Urriago da...* testua argitaratu zuenean.

Azkenik, ohar gaitezen zuberotar idazle horien jatorria aski ezberdina dela. Arabailakoak ziren Lanouguère (Garindaine) eta Jaury (Urđinarbe); Basabürükoak Mazéris eta Picochet (Barkoxe), Béhéty (Lorraine), Etchégoren (Liginaga), Hastoy (Lexantzü). Ekialdean, Barkoxe Biarnoko mugan dago; hegoaldean, Lorraine Nafarroako Zaraitzu ibarreko mugan. Jatorri ezberdintasun horrek testuetan erabilia den euskalkiaren ezberdintasuna eramaten du.

Hona orain idazle bakoitzaren biografia laburra, bildu ditugun argibideen arabera. Jean-Louis Davantek *Zuberoako idazle zenduak* liburuan argitaratu zituen biografiek anitz lagundu gaituzte.

- **Dominique Béhéty-Beheti** (1907-07-03 – 1972-03-27)

Larrainen sortua. 1927an apezgaia zen, 1932an Nay-ko (Biarno) apezgaitegi txikian, 1936an Hendaiako bikarioa, 1944ean Liginaga-Astüeko erretorea.

Haren testuetarik bi berrargitaratzen ditugu hemen.

- **J. Berrionde / Berriondo**

Berrionde edo Berriondo deitura hori izengoitia dela pentsa dezakegu. Publikatu zituen testuetan, bere buruaz argibiderik ez zuen ematen eta orain ezezaguna da. Junes-Casenave-Harigilek eta Jean-Louis Davantek, adibidez, ez dakite nor den. Deitura hori ez da agertzen 1932ko urriaren 1.eko «Gure Herria» elkartearen kideen zerrendan (*Gure Herria*: 561-580. or.), Dominique Béhéty, Pierre Lanouguère eta Pierre Picochet agertzen diren bezala.

Hiru testu berrargitaratzen ditugu. Haren euskara zuberera «hutsa» ez da, nafar-lapurterazko forma bakan batzuk erabiltzen ditu ere: adibidez *Koki bat* testuan, *behor* (zubereraz *bohor*) (Septembre-October 1930: 420. or.), *elgarri* (zubereraz *algarri* edo *alkarri*) (421. or.).

- **Joanes Etchégoren-Etxegoren** (1915-03-21 – 1981-07-15)

Liginagan sortua. 1938an apezgai (*Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak* testuan esaten den bezala), 1942an apeztua. 1942an Paueko Saint-Jacques elizako bikarioa zen, 1951ean Santa-Graziko erretorea, 1957an Aramitzeko (Biarno) erretore gehiena, 1965ean Mauleko erretorea eta Zuberoako apaiz gehiena.

Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak testua berrargitaratzen dugu.

- **Fabien Hastoy-Haztoi** («Betzulako aize ephailea») (1869-02-20 – 1950-01-07)

Lexantzü-Zunharren sortua, Atharratzen zendua. Bere aita bezala, lehen mailako irakaslea izan zen Lapurdin: Senperen, Saran, Azkainen, Ezpeletan, eta luzez Alozen (Zuberoa). Madalena de Jauregiberrirekin eskoletako haurrentzako istorio eta antzerki labur idatzi zituen. La Fontaine-ren alegia batzuk zubereratu zituen. 1937ko *Zoin ejerrago?* testuan, *Oilara eta Azeria* alegiaren hiru bertzio eman zituen, Iturriagarena, Oxobirena eta azkena, berea, irakurleak konpara zitzen.

Harenetatik hamar testu berrargitaratzen ditugu.

- **Pierra Jaury** (1918-02-17 – 1940-06-18)

Altzürükün sortua, baina Urdiñarben hazia Organbidea baserrian. Hamabi haurridetatik zortzigarrena zen. Mauleko kolegioan eta gero Uztaritzeko seminario handian ikasle izan zen (1937). Apez ordenatzeko urtean, soldadutza egin izan behar zuen eta 1939/45 gerlako lehen hilabeteetan alemanek hil zuten, haritz baten gainean zelarik omen Frébecourt-en, Vosges departamenduan, Frantziako ipar-ekialdean. «Sous-lieutenant» zen. Joanes Etchégoren harekin zen orduan¹⁰.

Hiru testu publikatzen ditugu, argitaratu zituen bakarrak behar bada.

- **Pierre Lanouguère-Lanugerre** («Pette Chibero / Zibero») (1896-09-04 – 1945-07-28).

Garindainen sortua. 1923an apeztua, Mauleko Saint-François kolegio-lizeoan irakasle 1923an. Altzürükükiko erretorea 1934ean. 1924ko lehen testu batean Pier-rañi Lanouguère izenpetu zuen.

Hemen, lau testu berrargitaratzen ditugu.

- **Jean-Baptiste Mazéris-Mazeris** (1908-07-05 – 1971-07-02).

Barkoxen sortua Potto baserrian (Larraja auzogunea). Apezgai 1931an (cf. *Tzin-tzarroskak* testua), 1933an apeztua eta irakasle Orteseko (Biarno) Moncade kolegio-lizeo katolikoan. Ondotik Eretan (Biarno) bikario 1934ean izan zen, 1937an erre-tore Os-Marsillon (Biarno) eta 1960an Inhasin (Biarno, Baretos ibarra).

Hiru testu publikatzen ditugu.

- **Jean-Pierre Picochet-Pikoxet** (Pierre izenpetzen zuen, 1899-07-18 – 1981-10-06).

Barkoxen sortua Sühitia baserrian (Txapela auzogunea) eta han hila. Apezgaia 1924ean (cf. *Axigar*), 1926an apeztua. 1926an bikario Biarritzeko Sainte-Eugénie

¹⁰ Argibide horiek Pier Paul Berzaitz kantariari, haren ama Pierra Jauryren arreba baita, eta ere Urdiñarbeko Herriko etxeko idazkariari zor dizkiegu.

parrokian. 1932an, *Gure Herria* elkartearen administrazio kontseiluko kide zen. 1936an erretore Ozarainen (Zuberoa), 1941ean erretore Bokaleko Notre-Dame des Forges parrokian. 1962an kapilau Bankan (Nafarroa Beherea) osasun arozoengatik. 1971n Barkoxera erretiratu zen.

Harenetatik lau testu berrargitaratzen ditugu hemen.

I.5. Orduko ortografia eta oraingoa

Zubereraren oraingo ortografia euskararen ortografia bateratuari hurbil zaio, *ü* hizkia dauka gainera [y] soinua idazteko. Euskaltzaindiak gomendatzen dituen arauak aplikatzen zaizkio. Esan bezala, liburu honen xedeetatik bat da irri-egingarri, umoretsu diren testu horiek oraingo ortografian ematea. Ikastetxeetako haur eta gazteentzat bereziki, irakurtuz zubereraren ortografia ikas dezaten.

Hitzen formak, aldiz, ez dira aldatu; maileguak izanik ere, ziren bezala utzi dira. Batzutan, haatik, jatorrizko forma zaindu dugu (sic) ikurra ondoan erabiliz, forma horren berezitasuna azpimarratzeko. Irakurketa laguntzeko, puntuazioa aldatu da batzutan, baina zinez gutxitan. Jean-Baptiste Mazérisek, adibidez, zenbaitetan erranaldi luze-luzeak egin zituen, punturik erabili gabe.

Halere, testuan norbait mintzatzen baldin bada, diskurtsoa zuzena denean, komatxo artean idatzia dena ez da beti osoki oraingo ortografiaren emana, ahoskera ez galtzeko nahi izanik. Adibidez, *dezen* forma begiratu da, *dezaen* eman ordez, edo *tützü*, *dützü* eman ordez, ahoskerak [désen] eta [týtzy] direlako.

Liburuan zehar hiru adibide fotokopiatu ematen ditugu irakurleak orduko ortografiaren dibertsitatea ikus dezan: D. Béhétyren *Pello Espainola* testuaren lehen orrialdea (1927, Iraila-Urria: 432) eta F. Hastoyen bi alegia, *Gatüa, anddeijerra eta erbittoa* (1930, Azaroa-Abendua: 509-510) eta *Bi oboinak eta astoa* (1938, Apirila-Ekaina: II4).

I.5.1. Orduko eta oraingo letren edo letra-taldeen arteko korrespondentziak

Garai hartan frantsesaren ortografiaren eragina nabaria zen idazle horiek erabiltzen zuten grafian. Irakurleak hemen aplikatu den ortografia uler dezan, *Gure Herria*-n erabili ziren ortografia ezberdinen eta oraingo zubereraren ortografiaren arteko korrespondentziak ematen ditugu. Esan bezala, zortzi idazleek ortografia berdina ez zuten erabiltzen.

Aurrean jatorrizko grafia ematen da, ondotik oraingoa, hemen erabilia dena. Ondoren adibide bat ematen da parentesi artean, orduko eta oraingo ortografietan. Bigarrena beraz liburu honetan baliatzen dena da. Adibidez: *etchia* (*Gure Herria*) = *etxea* (hemen).

- *u* > *ü* (*sutan* = *sütan*)

Frantsesaren ortografia aplikatuz idazle batzuek *u* erabiltzen zuten [y] soinua idazteko; orain *ü* idazten da. Batzuek, halere, *ü* erabiltzen zuten.

- *ou* > *u* (*cbouritzia* = *xuritzea*)

Frantsesaren ortografia aplikatuz idazle batzuek *ou* erabiltzen zuten [u] soinua idazteko. Beste idazle zenbaitek aldiz, orain bezala, *u* [u] eta *ü* [y] baliatzen zituzten, bi soinu ezberdin horiek idazteko.

- *u* > *o* (*nur* = *nor*, *nuiz* = *noiz*, *badua* = *badoa*, *muztü* = *moztü*)

Zubereran [u] soinua batuan baino erabiliagoa da. Oraingo ortografian, tesuinguru batzuetako [u] ahoskatzea ez da markatzen. Jatorrizko testuan *mulde* edo *nur* adibidez, hemen *molde* eta *nor* idatziko da, nahiz ahoskatzea orain ere [múlde] eta [nur] den.

- *oua* > *oa* (*anhoua* = *anoa*, *papouak* = *papoak*)

Frantsesaren ortografia aplikatuz idazle batzuek *ou* erabiltzen zuten [u] soinua idazteko. Zubereraz [o]+[a] segida [ua] ahoskatzen da edo [u]. Oraingo ortografian *oa* idazten da.

- *i* > *ea*, *üa* (*artin* = *artean*, *bortilat* = *bortüalat*)

Zubereraz [e]+[a] segida [ia] edo [i] ahoskatzen da, halaber [ü]+[a] segida. Oraingo ortografian *ea* eta *üa* idatzen dira.

- *ai* > *aü* diftongoa (*gai* = *gaü* (gau), *gaizak* = *gaüzak*)

[aj] ahoskatzea adierazteko *ai* idatzen zuten, orain *aü* da.

- *ñ* > *in* (*bañ* = *hain*, *berañez* = *berainez*)

Korrespondentzia hori ez da sistematikoa. Zubereraren ortografian orain, batuarenean bezala, *ñ*-rekiko salbuespen batzuk onartu dira: *amiñi*, *aitañi*...

- *dd* > *id*, *tt* > *i*, *ll* > *l*

Hemen ere, salbuespen batzuk onartu dira oraingo ortografian: *ttipi*, *llabur*...

- *ph*, *th*, *kb* > *p*, *t*, *k* (*aphez* = *apez*, *atborra* = *atorra*, *tchinkbor* = *txinkor*)

Orain, kontsonante herskari hasperendun horiek *b* gabe idatzen dira. Pentsa dezakegu denborarekin galduko direla edo, bederen, gutiago ahoskatuko direla oraingo ortografiarengatik.

- *lh* > *l*, *nh* > *l*, *rh* > *l* (*anhoua* = *anoa*, *arhin* = *arin*, *elbe* = *ele*)

[l], [n] eta [r] atzean ahoskatzen den [h] ez da idatzen orain. Halere, duela gutxi, zubereraren ortografian *h*-rekiko salbuespen bakan batzuk onartu dira bi adiera ezberdin bereizteko: *belar* (boronte) ≠ *belbar* (landare), *zale* (eiüskalzale) ≠ *zalbe* (laster).

- *mb* > *nb*, *mp* > *nb* (*dembora* = *denbora*, *zoumbait* = *zombait*, *kampouan* = *kanpoan*)

Frantsesaren ortografia aplikatuz idazle batzuek *b* edo *p* aurrean *m* ematen zuten *n* ordeztu. Orain hori ez da egiten.

- *c* > *k* (*delakuac* = *delakoak*, *accort* = *akort*)

Idazle batzuek [k] soinua *c* hizkiarekin idatzen zuten *a*, *o*, *u* aurrean edo hitzaren bukaeran. Orain tesuinguru horietan *k*-k *c* ordezkatu du. *C* mailegu batzuetan baizik ez da erabilten.

- *ch* > *x* (*etche* = *etxe*, *Chemarti* = *Xemarti*)

Halaber, frantsesaren ortografian [ʃ] soinua *ch* idazten da. Euskaraz *x* da. Idazle batzuek, halere, orain bezala *x* baliatzen zuten *Gure Herrian*.

- *r* *bakuna* ez idatzia (*bazkai* = *bazkari*, *miail* = *mirail* (ispilu))

Bi bokal artean, eguneroko hizkeran *r* bakuna ez da ahoskatzen eta soinu segi-da hori diftongo bilakatzen da. Idazle batzuek, ez denek, batzutan ahoskatzeari jarraituz diftongoa idatzen zuten, *r* eman gabe.

Haik > *harek* kasuan, bi bokalarteko *r* bakuna ez ahoskatzeak diftongoa sortzen laguntzen du eta bi silaba ordeztu monosilaba badago: *harek* [hajk] ahoskatzen da orain ere.

1.5.2. Jatorrizko ortografiaz

Iduri du testuak ez zirela beti ongi berriz ikusirik edo inprimategian zuberera ez zutela ongi ezagutzen. Hona adibide batzuk, denak aipatzea luzeegi bailitzateke. Batzutan, zuzentu baino, (sic) aipamena eman dugu testuan, hitzaren formaren berezitasuna azpimarratzeko.

- Tipografia berezia

[y] soinua, oraingo *ü* hizkia, *ú*-ren bidez idatzia da Fabien Hastoyen *Hamasei pikoeratako pertsuak* testuan (Mai-Juin 1936): adibidez «*hartú*» (23I. or.); *ú*-ren bidez *Pariseko modak eta probintzietako moda zaharrak* testuan: adibidez «*burú*», «*zenú*» eta «*Zú*» (Octobre-Décembre 1938: 309).

Hama-sei pikoetako pertsuak testuan «*gaznâ*» badago *gazna* (gazta) ordeztu (23I. or.).

P. Chiberoren *Degro Parot degria* testuan «*gizóna*» eta «*Sánta Gráziko*» aurkitzen dira (Novembre-Décembre 1934: 496 or.), *gizona* eta *Santa Graziko*-ren ordeztu.

Jean Etchégorenaren *Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak* testuan, «*Zer da baii, zer da baii dio Allandek*» aurkitzen da (Octobre-Décembre 1938: 317. or.), *hau*-ren ordeztu.

F. Hastoyen *Zoin eijerrago?* testuan (Avril-Juin 1937), *rr* hizki bikoitza *ř*-ren bidez idatzia da beti. Adibidez «*Itušriaga*» (I30. or.).

- Huts tipografikoak – Kopia erroreak

J. Berriondoren *Anttoni Zokbozorri* testuan, «*nobart*» badago *norbait*-en ordeztu (Janvier-Février 1931: 43. or.).

J. Etchégorenaren *Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak* testuan, «*partitzen dira*» ordeztu «*phartitzen dira*» badago (Octobre-Décembre 1938: 317. or.). Ber orrialdean, *izerdi oro hour* (*hur*) ordeztu «*izerdi orro hour*».

F. Hastoyen *Hamasei pikoeratako pertsuak* testuan «*Tchaminia*» idatzia da «*Tchiminia*»-ren ordeztan (Mai-Juin 1936: 231. or.). Hastoyen *Zoin eijerrago?* testuan huts tipografiko hau badago: «*Goseal agun*» sintagma, *Gosea lagun*-en ordeztan (Octobre-Décembre 1937: 132. or.). *Pariseko modak eta probintzietako...* testuan «*xabanao*» *xabarrac*-en (*xabarrak*) ordeztan (Octobre-Décembre 1938: 311), *Bettan eta Raton* testuan «*Gathiak*» eta gero «*Gabiak*», orain *Gatüak* (Août 1939: 223. or.).

P. Jaury-ren *Pierraren pelota* testuan «*ezagutu diak*» *diat*-en ordeztan (Juillet-Août 1936: 314. or.). *Arto xuritzea* testuan «*Chachich*», *Chachik*-en ordeztan (orain *Xaxik*, Juillet-Septembre 1937: 215. or.). *Pettiriren lehen astea Zuburteko olan* testuan «*ibizo*» *ibizor*-en ordeztan (Octobre-Décembre 1938: 297. or.); halaber «*bouitatzia*» (297. or.) eta gero «*builtatziareki*» (*builtatze* aditz izena).

J.-B. Mazéris-en *Tzintzarroskak* testuan «*gachko*» idatzia da, *gachto*-ren (*gaxto*) ordeztan (Septembre-Octobre 1931: 468. or.), testuan «*kalaber*», *kabaler*-en ordeztan (468. or.). Haren *Kaloka eta Pupuñi* testuan «*jokuban*» idatzia da, *jokutan*-en ordeztan (Novembre-Décembre 1932: 507. or.). Haren *Maskaradak* testuan «*gartera*» *jartera*-ren ordeztan eta «*büztarrari*» *büztanari*-ren ordeztan (Juillet-Août 1933: 305. or.); «*ghiau-ren*» *ghiauren* ordeztan (307. or.) eta «*praba*» *proba*-ren ordeztan (309. or.)...

P. Picochetzen *Zuberoko berri* testuan «*arkaritato*» (*gosaritato*) badago, *askaritato*-ren ordeztan (Mars-Avril 1928: 151. or.). «*Eratz kaldüka*» testuan «*ükbonik*», *ükbenik*-en ordeztan (Juillet-Août 1930: 369. or.); D. Béhétyren *Xemarti* testuan «*zubagiarekin*», *zahagiarekin*-en ordeztan (Mars-Avril 1931: 108-112). J. Berriondoren *Anttoni Zokozorri eta Manex Büriüpelat* testuan, «*nik phakaken ditiat*» *phakatzen*-en ordeztan (Mai-Juin 1931: 223. or.).

- Bariazioa ala huts tipografikoa?

P. Picochetzen *Zuberoko berri* testuan, «*nitzan*» (*nintzan*) eta gero «*nintzan*» badaude (Mars-Avril 1928: 153. or.).

J.-B. Mazéris-en *Tzintzarroskak* testuan «*oithian*» (*otean*) badago (Septembre-Octobre 1931: 467. or.) eta gero «*oithian*» (469. or.). Haren *Maskaradak* testuan «*eginaraziz*» eta orrialde berean «*eginerazi*» (Juillet-Août 1933: 301. or.) ; «*entsenaria*» (301. or.) eta «*entsenaria*» (305. or.)

Bariazioa autorearena ote da edo beste norbaitena? D. Béhétyren *Pello Espainola* testuan adibidez (Septembre-Octobre 1927), «*beit-*» (432. or.) eta gero «*bait-*» (433. or.) badaude. J. Berriondoren *Anttoni Zokozorri eta Manex Büriüpelat* testuan «*dee*» eta gero «*deie*» badaude (*diete* batuaz, Mai-Juin 1931: 223. or.).

- Logika gabezia

D. Béhétyren *Xemarti* testuan, «*gizun*» eta gero behin «*gizom*» (Mars-Avril 1931: 108. or.). Halaber J. Berrionderen *Koki bat* testuan «*bobor*» eta gero «*bebor*» (Septembre-Octobre 1930: 419-420. or.).

J. Etchégorenen *Basajauna eta...* testuan, «bobor hau» eta gero «Zer da bai, zer da bai» (Octobre-Décembre 1938: 317. or.).

F. Hastoyen *Ontsa erabilirik badira...* testuan, ber hitzean *u* eta *ü* [y] idazteko: *chabütarzunez* (*xabütarzünak*, Juillet-Septembre 1937: 222).

F. Hastoyen *Zoin eijerrago?* testuan «*ezteizkü erakusten haren edertazunac*»: *ü* «*ezteizkü*» adizkian, baina *u* «*edertazunac*» izenean (Octobre-Décembre 1937: 132. or.). Logikoki *edertazünac* (*edertarzünak*) litzateke.

P. Jauryren *Pettiriren leben astea Zuburteko olan* testuan «*Phetti*» (Octobre-Décembre 1938: 296. or.) badago, «*Phettiri*» (kasu datiborik gabe, 297. or.) eta ere «*Pheti*» (299. or.).

J.-B. Mazéris-en *Tzintzarroskak* testuan «*heosa*» eta gero ber orrialdean «*heots*» (Septembre-October 1931: 467. or.), oraingo ortografian *herots* «arrabots, zarata». *Maskaradak* testuan «*Chiberroko*» (Xiberoko, Juillet-Août 1933: 302. or.) idatzia da eta gero «*Chiberuan*» (Xiberoan, 305. or.) ; «*burhasoek*» (306. or.) eta gero «*bürbasuen*» (310. or.).

Eskerrak

Edizio honen aurkezpena bukatu baino lehen, esker onak Pier Paul Berzaitzi, Junes Casenave-Harigileri, Jean-Louis Davanti, Maddi Oihenarti, Baionako Iker ikerguneari (*Gure Herria* aldizkariaren hango aleak baliatu ditut, falta zen zenbakia Baionako mediatekan kontsultatu dut) eta Euskaltzaindiari eman nahi dizkiet. Era batez edo bestez lagundu naute liburu honen prestakuntzan.

2. IPUINAK

Zazpigarren Urtea — 7^e Année — 5 SEPTEMBRE-OCTOBRE 1927

GURE HERRIA


MAYI ELISSAGUE

AURKIBIDEA

La foi du Basque	J. LAMARQUE	Mikela	MAYI ELISSAGUE
Espartina	J. ETCHEPARE	Mariuz	ZERBITZARI
La lettre de Chanchino	E. SOUBERBIELE	Grammaire Pratique de la Lan- gue Basque	H. GAVEL
Itas-Haindian	P. LAFITTE	Ciboure élit son curé au suffrage universel	J.-B. DARANATZ.
La "Maison de Retraite," d'Hasparren	M. ETCHEVERRY.	La fabrication du Chistera	E. BLAZY
Errezabal	J. ELISSALDE.	La Tradition Basque au Canada	R. A. GALLOP
Quel est notre verbe "Avoir"	P. LAFITTE.	Bibliographie	H. GAVEL
Cantabria	J. ELISSALDE.	Berceuse) Recueil et harmonisée par la R. P. DONOSTIA.
L'œuvre d'un heronnier luzien	P. VEYRIN	Kantazera niazu	
Pello Españuelo	D. BÉHÉTY		

Numéro du Compte Courant de Chèques Postaux GURE HERRIA n° 10.506, Bordeaux

Gure Herria, 1927ko Iraila-Urriaren azala



Pello Españula



Juran den egün batez, Españul bat entzün düt kobla hünen khantatzen :

« Españako praubia aberats Frantzian,
Frantziako aberatsa praube Españian.
Gure pezeta dago gorarik mündian ;
Haien dirua aldiz, zankhuak aidian,
Errekari so dago dembora güzian. »

Egia ezta bethi eder bezañ gocho. Segür niz kobla hunez zumbaiti bihotza tchimikaturen dila, zeren czpeikirade deüseren egiaren bezañ mimbera. Nahiago günkian entzün lehenago Pello, Otchagabiko oski-egile zen batek ziona :

« Frantzesak ezlu mundian bere parerik.
Ez ditake izan adichkide hoberik ;
Gutiago orano gizun abillagorik. »

Hirour herroka horientzat merechi du bi hitzez erran dezadan zer zeion agitu aldi batez eta nula juran zaikün nurapañt hürrün, deüse erran gabc.

Diala hogei bat ourthé, jakinik Larrañen telefona ezarrik izan zela, jin zen Pello Otchagabirik oski berri eli batekin, behar zutilla Mauleko kosi bati telefonaz igorri, ustez alambre mehe hura gainti elhia bezala beste gaizak cre juraiten ziren. Ezarri zutian tchilintchau erran delako alambre mehian eta bera hürrüntü zen. Artian igaraile batek hartu zeitzon, bere zaharrak ütüz ordari. Pellök ikus onduan oski zaharrak, ust'izan zian kosiak zeitzola, berriak ükhen bezañ sarri, zaharrak igorten arra-zolatze-

2.I. «Pello Espainola»¹

JOAN² den egün batez, espainol bat entzün düt kobla honen kantatzen:

«Espainiako praubea aberats Frantzian
Frantziako aberatsa praube Espainian
Gure pezeta dago gorarik mündüan
Haien dirua aldiz, zankoak aidean
Errekari so dago denbora güzian.»

Egia ez da beti eder bezain goxo. Segür niz kobla honek zonbaiti bihotza tximikatüren düala, zeren ez beikirade deüseren egiaren bezain minbera. Nahiago günükean entzün lehenago Pello, Otsagabiko oski egile zen batek ziona:

«Frantsesak ez dü mundüan bere parerik.
Ez ditake izan adixkide hoberik;
Gütiago orano gizun (sic) abilagorik.»

Hiru herroka horientzat merexi dü bi hitzez erran dezadan zer zeion agitü aldi batez eta nola joan zaikün norapait hürrün, deüs ere erran gabe.

Düala hogeï bat urte, jakinik Larrainen telefona ezarririk izan zela, jin zen Pello Otsagabirik oski berri elibatekin, behar zütüala Mauleko kosi bati telefonaz igorri, ustez alanbre mehe hura gainti elea bezala beste gaüzak ere joaiten ziren. Ezarri zütüan txilintxau erran delako alanbre mehean eta bera hürrüntü zen. Artean igaraile batek hartu zeitzon, bere zaharrak ütüz ordari. Pellok ikus ondoan oski zaharrak, uste izan züan kosiak zeitzola berriak üken bezain sarri, zaharrak igorten arrazolatzera eta bere beitan zion:

«Hau da tresna espantagarria!!! Berriak igorri baiko zaharrak hehen!! Biba Larraine eta Larraintarrak: espainola bürü handi eta zentzü gabe, frantsesa aldiz bürü ttipi eta zentzüdün, seküla ez diak (sic) ikusiren holakorik Otsagabin».

Oskiak har eta Espainialat bürüz abiatü zen, noiz eta oihan batetan sartzean, ülün nabarian, kantüko zühain baten gainetik hüntz bat hasi baitzeion³ kantatzen. Harritürik ohoinak zeitzola gaina jausten, lasterra hartu züan gibe-lealat, eta argizagi tipil baitzen, zer nahi ikusi züan bere itzalari lekü ezin eginenez, ustez ohoin bat zeiola jarraitzen. Etxe batetan sartü zen borta jo gabe, üdüri hil bat xütik, eta erran nolaz horra zen gaüko alojearen⁴ nahiz.

¹ Gure Herria (Pello Española, Septiembre-October 1927: 432-436. or.)

² Jatorrizko testuan «Juran».

³ Batzutan bait- idatzia da, batzutan beit-.

⁴ Jatorrizko testuan «alojiaran».

Ez düzüe düdarik gogo honez eman zeila, zeren larraintarra, kantoreek dioien bezala, bihotz hon baita. Sü alpoak eta zopa beroak Pellori bihotza alageratü zeien eta aiharitako gaitzürü bat gaztaina erre jan züan. Gero egarriz ezin egonez, joan zen bürüaren ferretan sartzera Espainiako gisa, gustüan edateko, bena ustegabeak hartu züan. Düda gabe, bustatzearekin bürüa hantü zeion, ezen ez züan elkitzen ahal, eta, ferreta bürüan ahoz behera, bazoan sükaltearen gainti, jo mürüa, jo züzülüa, ütsü mandoka; etxe hartako haurrak, aldiz, haren ondotik eskü zapartaz atzamaixkan ari ziren. Azkenoz Pello gai-zoa hatsik ezin hartzera zoan, noiz gatü batetan trabatürük erori baitzen lüze bezain zabal sükalte erditara bai eta panparekin ferreta erdiz erdi hautse zen.

Biharamenean, abiatzeko püntüan, ikusi züan barrükü (sic) xokoan küia ate⁵ bat. Espantatürük, etxekandereari galtatü züan zer izaten ahal ziren beltz hurak, egündano ez züala halakorik ikusi. Etxekandereak, emazteek üsatzen düen bezala, zühürki bezain leialki ihardetsi zeion:

«Gure bohorren arrautzeak dütüzü.»

Nahiz arrapostü arrunta eman zeion, Pellok sinetsi züan hitzen gainen eta bat nahi zeion atsülütoki erosi, ukeiteko geroxago harek ere bohor errüle bat. Tratüan hasi ziren bai eta Pellok uste etxekandereari prezioan ebats eta gero berari ebatsi!!!

Jentek dioie emazteek beti üsatzen düela bost sos balio düan gaüzaren hirur sositetan emaita. Nik uste ez aldiz, eta Pellok ere izan behar züan ene ber hitzeko, zeren ordünko prezioan hamar sos balio züan küia, hogeita bost libera pakatu baitzüan. Halere Pello, küia bizkarrean, joan zen hardit eta alegera, txoria adarren gainen bezain.

Espainiako hegiala heltü zenean izerdi llapa eta hatsalbo, jarri zen hats hartzeko eta küia bere kantüan pausatü, eskü batez etxekitzen züalarik. Bena hainbestenarekin besoa altxatü züan boronteko⁶ izerdiaren txükatzeko, eta, zist! Küia ezkapi zeion dürdüilaska⁷. Sartü zen tarte arte⁸ batetan, porrokiñatzen zelarik eta denbora berean erbi bat elki zen tarta petik eta joan mendi maxelan harat iñazia bezain zalhe. Pello jarraiki zeion, nahiz atzaman, deitzen züalarik:

«Aigü to, pottoko, aigü to, xo! la! xo!».

Uste züan bohor ümea zela arrautzetik elkirik. Bena erbia aitzina joan zen bere bidean, ez beitzeion ihork ere erakutsi holako deirik. Pello aldiz lasterka bazoalarik hainen gaixki erori zen, non bi zankoak xamar ahotik igaranik,

⁵ I «Athe: monceau» (433. or.)

⁶ I «Contraction de boronte: front». (434. or.)

⁷ 2 «En roulant».

⁸ 3 «Parmi des ronces».

kanika bezain biribil joan baitzen patarra behera. Iruski bertan xamarra ürretü zeion, bestela behar züan bizia galdü halako maneran joaites ützüli gaintika: lotsarekin kito izan zen.

Ahal bezala etxerat heltü zenean, emazteari erran züan zer agitü zeion. Ixilik egon balitz ez züan entzünen peredikü parrasta bat, bena baliatü zeion ez beitzüan lehen aldia. Txitxer erauntsitik landa, hitzartü züen senar-emazteek beste arrautze baten erostera jitea eta sokez estekirik mandoan gainen eramaittea.

Erran bezala egin züen. Mandoarekin eta soka lüze batekin Larrainerat abiatü ziren. Bilakagietako lepoan igaraitean, ikusi züen baxaren⁹ erdixetan habia bat bi arrautzekin. Arrano batena zen, bena senar-emazteek ez beitzüen gogoan bohor arrautze baizik, nahi zütüen atzaman. Mandoari soka lazo igan züen tripa petik eta Pello beste soka mütürrari etxeka abiatü zen baxan behera, mandoa sustengü ütüz gainen.

Hüilantzen ari zen emeki-emeki, bena azkenekotz soka bandatü zen eta ez gehiago pastarik lüzatzeko. Pello ez zen nahi esküak hütsik goiti ützüli. Tiratzen züan soka, bena auherretan, eta goiti sogiten züalarik, ikusi züan mandoa, hortzak agertürik indarkan ari eta emaztea alde gainetik pusatzen. Ustez mandoa erriz ari zen, Pellok erran zeion:

«Pottoko gaizoa! Erriz hiza ari!! Eginen dük karkaza¹⁰, ni arrautzetara heltü nitzatekenean. Zük, Maria, pusa hala hola. Alo! Indarka aldi bat eta arrautzeak gure dirate!!»

Erran baiko ematen dü sokari tirako ozen bat eta gainen Mariak mandoari pusako handi bat, bai eta mandoa petik tiratürik, gainetik pusatürik larrütü zen eta Pello harekin.

Beste gaintiko maxelatik artzain batek ikusi zütüan larrützen eta ez zakilakotz ez «De Profundis» ez «Miserere mei» ez besterik, Pelloren arimaren pausüarentako bi kobla eman zütüan Etxahunen eta Otxalden kantorien ahai-dean:

«Pello eta mandoa dirade larrütü,
 Bai eta peko zolan biak zale sartü
 Sartü badira sartü, han dira baratü.
 Arranoak behar dü ontsa txostakatü,
 Asteko janaria hor ausarki baitü.
 Soskoi denari ez da besterik agitzen,
 Sosarentzat bizia baitü arrixkatzen.

⁹ I «Bacha: précipice.»

¹⁰ 2 «Karkaza: éclat de rire.»

Bena mündüala baita Pello franko hiltzen
Ikusiren dütügü, ez bagira hiltzen,
Sosaren errabiaz biziaren galtzen.»

Ber denboran arranoa nontik baitik jin zen eta aragiaren ürrina senditürik, zorrozka sartü zen baxa zolan. Bena laster entzüten dü artzainak karrankaz eta hegal zapartaz goiti jiten, üdüri oro behar zütüala aidatü. Ez zen estonagarri, zeren Pello zankoetarik etxeka züan. Üste hilik zela, eta horra non badoan bidajez, hegaxtien erregeaz eramanik. Mariari adio erran züan, eretzean igaraitean. Bena arranoa oihüak baserazirik zalhe odeitan gor igaran zen.

Gerozko berririk ez dü ihork ere jakin. Batek dioie xüxenka zelüalat joan dela. Ez dü, ene ustez, Jondane Petirik¹¹ holako bidanjantik hartzen; zelüko borta hersi da eta arranoa nekez da han igaran. Bestek dioie aldiz Amiketarat edo beste lekü zonbaitetat joan direla. Izaten ahal dena da; bizi balin bada, ez da düdarik nonbait dela.

Maria segürik ez da lotsatürik. Egün oroz haidürü da noiz ikusiren düan bere senarra Otsagabin sartzan, ürrez eta zilarrez kargatürik, xahartze irus baten algarrekin igaraiteko. Bihotzez nahi deiot ez dakion egon behar lüzaze-egi haidürü. Jakiten dükedalarik berriagoa, jakineraziko deizüet falta gabe. Anartino Jinko Jaunak lagunt dezala.

DOMINIQUE BÉHÉTY
Larraintar apezgeiak egina¹²

¹¹ Jatorrizko testuan «Phetirek».

¹² I «Eskualzaleen-Biltzarrak aurthen lehen prima eman kondera».

CONTE BASQUE

2.2. «Xemarti»¹

GOIZ hartan goizik jeikirik, bi nausiak eta mitilak joan ziren dailüekin belhar epaitera. Bi etxekandereak, ama-alabak, etxenko lan xeheen egitera, barne garbitze, ohe egite, xerri et oilo bazkatze, eta holako lanen egitera lehiatzen ziren, gizunen (sic) laguntzera joiateko. Labeka züen ere egun hartan. Alabak beste lan hanitxetan bezala orakan ere baitzüan halako apendiz aide bat orano, ama han zagon kantüan zer hein irin edo hur edo gatz behar züan ezarri erraiteko. Oraka ürrentürrik, bi ilarropa handiz eta munjaro² batez tapatzen düe. Orea altxatzen den artean ama badoa baratzealat aza lantare zombaiten lantatzera, eta hau xilo egin eta tapa kiska-kaska ari da, iragaileer kasü egin gabe. Etxekandere gaztea gizunen askaria zare xuri batetan, bürüte-an³ pausatürrik, bi esküak hanka ezürretan badoa erne-ernea soroalat. Gizonek (sic) jaten düen denboran naiak oro iaurten (sic) dütü eta jiten soro bazterreko intzagortze handiaren itzaleala, gizunen kantüala askal ürrentzen ari baitziren. Hetaryat heltzean, etxerat so bat egiten dü eta lauzpazortzi gizun herrokan etxen sartzen ikusten dütü :

«Horiek nor edo zer dirade, dio askazaleer, ala bada zerbait berriago?»

Hiru dailariak xütitürrik soz dagotza zer diren ikusiko oro zoin lehiatürrikago.

Etxea hantik hürrünxka baitzen ez züen deus ere ikusi ez entzün, bena etxekandere gaztea, askal zarea beso kakoan badoa etxerat. Hüilantzen ari zen bezala, herots eta tarrapata elibatzü entzüten dütü. Zer miraküilü izaten ahal da! Borta kantüan eküratürrik, behatzen da barnekoen kumersari: kanberetan gizun, granerean gizun, sükalte, eskele, eskelerpe, irintegi, labategi, oro gizunez beterik dirade. Lazküra⁴ batek hartürrik badoa dailarier oihü egitera berehala jin ditean. Dailüak sailean pausatürrik zoin lehenka horra dirade etxerat. Ama zoparen adelatzen ari zen gustürrik hoberenean bera izan balitz bezala etxen.

«Hau zer aide dügü? dio senarrak sartzean, gizun saldo hau zer da ari heben?» Ordüan gizun esküaldün (sic) bizar beltz batek ihardesten deio.

¹ Gure Herria (Chemarti, Mars-Avril 1931: 108-112. or.).

² Jatorrizko testuan «mungau», gero «munjana».

³ Jatorrizko testuan «bullutian».

⁴ Jatorrizko testuan «Lazkoa».

«Etxe hontan badüzü gorderik gaxki egile bat eta kontrebandaz ebasten ari delakoz legearen izenean atzeman behar dizügü, hartara jinik güüzü. Ikusi dizügü adesa heben sartzen eta ez düzü berriz jelki.»

Hiru dailariak algarri soz ari dirade, ez baitüe deüs ere entelegatzen. Eta han trafa-trafa hamabost mügazain ari ziren etxearen ikertzen. Ihonezko granereko hüttxak, bojapeak, gilapeak eta xoko-moko güziak ikertürük deüs ere ez düe edireiten.

«Nola deitzen da delako gaxki egilea? dio etxeko jaun zaharrak, etxearen ikertzez, ez baitzüan nahi haatik holako aujami bati eman aterbea.

– Xemarti, deio ihardesten mügazain esküaldünak.

– Zer, gure aüzo lehena?

– Bai.

– Bena badeizüeia apentziarik gure etxerat gordatzera jin dela! Adesa bortan züzün, zoazte beraren etxerat nahi balin badüzüe atzeman.»

Gizon saldo hura badoa ordüan kürloen gisa herrokan Xemartiren etxerat, segürtatürük ez zela etxe hartan. Dailariak etxekandereekin elestan egon ziren apür bat xehetarzün zer baiten bata besteenganik jakin nahiz. Bena hek zakiena oro zen mügazainak Xemarti kontrebanda egilearen ondotik zabiltzala, bena ihork ez züan ikusi.

«Bai ez dizüe ez esküetaratüko berehala, dio nausi bata, horiek oro beno harditago baita.»

Eta berriz soroalat badoatza.

Etxekandere xaharra ganibet handiarekin badoa labategialat (sic) orearen pikatzera, opilen labean sartzeko.

«Jesüs! Katalina, hau diñagü askatara, dio alabari, orea arkatik gaintika dün, altxatüa hona ginüana?»

Eta hasten da pikatzen opilen egiteko. Oreak axala mardo bena barnea gogor üdürütü zeion.

«Hau dün ore ütsala, ez diñat mozten ahal, beti ganibeta ber heinean baratzen zitadan, barnago ez diñat sarrerazten ahal.»

Alaba eta ama ganibet bederarekin, han txista nor txista, ari ziren eta beti ore a ütsal. Brau xütitzen zaie ore a oro; ama harritürük han berean ingoxatzen da, alaba aldiz ühaitxez eta oihüka badoa soroalat gizunen txerka. Amak berebeitalatzean botz bat entzüten dü:

«Elisabet ! Elisabet! Joan dira ene txerkatzale hurak oro?»

Begiak zabal eta xütitzen da etxekanderea. Aska hütsik eta ore a xütik hau zer espantagarriko gaüza zen eta botz bat ezagün ore haren barnetik! Gizunak ere han ordüan heltzen, bena gogoalatü zeien zer izaten ahal zen. Mostra xuri haren ikustearekin karkazaz hasten dirade.

«Errak to Xemarti, aingürü eder haigü egün.

– Bai züen oreari esker, orai labea bero baita hola-hola sar nintezü, bena gero ogi xurian barnen bazünükie bianda beltz eta karatsa.»

Eta oro erriak irailirik Xemartiren xahatzen hasten dirade, hur epelean ezarririk, ganibet gibelaz eta xali hegiaz karrakatüz bortako bat bezala. Orea idokitzen züen bezala gizon gazte eder bat bere makila eta zahagiarekin egartzen zaie.

«Gaizo Xemarti, adesa hire txerkazale txotxerdi bat bazüa heben; oro iker-tü ditüe bena seküla ez zikük gogoalatü ere hor gorderik oren barnen non ihork ez baitzüan erranen gizon bat bazela.»

Bi ilarropak eta munjaroa hanitx ontsa ezarri zütüan eta hatsa aska zolako daratürü xilotik hartzen züan.

Orea ez zen hon gehiago labean ezarteko bena bazkari goxo baten iräüte-arekin ontsa erri egin züen, Xemartik Nafarroko edari goxo hartarik emaiten baitzeien ausarki edatera. Tzüntzürra gillikatzen, papoa berotzen eta bihotza altxatzen züan edari hon hartarik edanago eta nahiago zen eta zahagia betebetea zelakotz prunki txurgatzen züen. Gero han oro harrotürrik, zahar gazteak dantzan berak sonülari. Ez züen bedakaz arrankürarik, iruski ekia bera ari züen lanean, bera bedakan bere üngürüan.

Arrastiri apalean solazkaz eta dantzaz einexerik jelki ziren oro, batak belhar biltzera eta Xemarti etxerat joateko xedetan. Bena ikusten dütüe goizanko mügazainak hantxe hortxe. Xemartiren etxeari üngürü goaita, ahal bezala gorderik, haidürü noiz agertüren zen.

«Hobe dük ülüna jin artino gorderik egonik, deio erraiten etxeko jaun gehienak, bestelan behar haüe esküetaratü.

– Ez, ez nizüe bildüren beren menealat zük eskü kaldü bat egin nahi balin badeitadazüt.

– Nik gogo honez ahal balin badüt.

– Zedi izazüt belhar haxe bat eta nahi nüzü ene zahagiarekin etxen sartü, haien ororen bixtan.

– Bai, motikoa, bai ükenen dük, bena ez nük fida ützioko haüela igaraitera.

– Espraba eta ikusiren dizügü.»

Soroala hel eta arrunt haxe hon baten pasta bil eta mazkatzen düe; Xemartik berak haxea egiten dü, haxe bat ederra eta mazken erdian gordatzen zahagi eta makila. Gero haxea hartürrik badoa etxerat. Mügaizanak soz egiten zaitzo ez baitzüen ezagützen. Zübüak gora badoa, haxea sartzen sabailat eta bera harekin anple-anplea ez üdürazteko bazüala zerbait mesfidantxa. Haxea laxa eta zahagia eskü batean makila bestean agertzen da sabai bortala oihegiten düalarik. Zahagia erakatsiz:

«Errazüe hei, adixkideak, nahi düzüeia behin edan? Bena makila dit godaleta.»

Ordüan berean mügazainak horra zaitzo lasterka. Bera krik barnerat gordatzen da eta sagü bat üdüri belhar atea zilatüz badoa gainbehera sabai zolako xiloala eta hantik behera büria igaranik sogiten dü ihor ere ageri zenez kanpoko zübüak gora joaiten. Ez da ihor ere ageri. Jauzten da ezkaratzealat bere makila eta zahagiarekin. Izerdi llapa, errautsez itorik sendi züan halako büürtzoa⁵ aide bat, bena aski ahazteko zer behar züan egin. Laster batez badoa sabai bortalako zübü handien idokitxera mügazainak oro txerkatzen ari ziren sabaiaren errauts pean. Gero sabai zolako xiloa bi taula iztatüz tapatzen dü eta joaiten zinka baten egitera kanpoalat. Mügazainak ordüan lasterka sabai bortala, bena zübüak falta eta ezin jauz sei edo zazpi metra gora beitziren. Hurak kexü gorri eta pean Xemarti erri karbabilotsez ari: hek uste atzeman behar züela eta berak atzamanik.

Aspaldian etsai latzak ziren mügazainak eta Xemarti. Bigabost lasterka eginik mendiak gainti haiet eskapatzeko. Jagoiti hetarik pausüaren ukeiteko, sü eman nahi züan bere bordari, hantxe erra litian hamabostak. Eta süpiztekoak esküetan hartürik erakasten dütü mügazainer:

«Züen azken orena hüilan da, badüzüe Jinkoari parkamentü galtatzeko denbora, züen okerkeria eta abrekeriez dolümen har ezazüe, berehala süa pizten deitzüet belloxe zitaien.»

Mügazain esküaldünak entelegatü bezain sarri lagüner erraiten dü. Xemarti pentsamentükan ari zen; ez züala behar egin holako itxuskeriarik gogoalatü zeion, bena lotseia bat hona nahi baitzüan harrerazi, hartzen dü lasto besata bat eta hari sü emaiten ezkaratz bortan. Kea bafadaka badoa petik goiti, gainen aldiz oihü arroitüka:

«Boun Diou, boun diou que sui u malerus» zioien gaine hartan biarnes mügazain elibatzüek.

Keari sogin eta sabai zokoalat bazoatzen. Han atean sügarren haidürü zaudetzan. Ez züen nahi sabai bortatik jauzi, zeren hala ez baitziren segür hiltzeaz eta Xemartiren esküetarar erori beno nahiago züen belharren gainen sügarren erditan txokart txispiltü. Beti süaren haidürü eta seküla han ez ageri; izitzen hasi ziren, haidürü egoitea bezain lüze baratzekiaren erratzea ez zirela orano akabo haien tormentüak gogoan igaraiten ziren. Azkenekoz lotsak gainea hartürik, badoatza sabai bortala bata nigarrez besteak halaber Xemartiri galtatzera otoi zübüak ezar litzan. Xemartik ontsa hartü haien galtoa, bena hitzemanerazi zeien behin betikoz bakea jagoiti ütziren zeuela, gostürik hobereanean aitzina kontrebandan aritzen ahal zatekeala.

Ordüan Xemartik zübüak ezarten deitze: eraisten dirade axuriak bezain ümil. Lotseriaren igaranerazteko eman zeien zahagatik eta gero denak algarre-

⁵ Burtzora, burutzoa «mareo, desfallecimiento» (Orotariko Euskal Hiztegia V: 667. or.).

kin joan, mügazainak beren lanetarat eta Xemarti kontrebandalat. Gero ere bürü egin züen behin beno gehiagotan, bena Xemarti üzten züen igaraitera adixkide zahar bat bezala. Hanitx aldiz amodioz ardiesten ahal ez dena bor-txak eta indarrak emaiten düe. Xemartik iseatzearekin ardietsi züan, bere bizi ondarrean ez baitzeion dolütü.

DOMINIQUE BÉHÉTY
Larrantar aphez-geia.

2.3. «Koki bat»⁶

ASTELEHEN goiz batez, goizik eta zaldiz, Johane Trapuza abiatzen da merkatzale. Atharratzerat.

Atorra xuria esküaz ejerki leintürrik, arrunter zaragoilak hereñ (sic) bat kanpetean⁷ beltztüxerik, xamar üztüpa berria, lehentze soinean, espartañak bezperan erosirik... Nork erranen züan gose habia batetako etxeko jaun zela Johane Trapuza? Hon zen jente arteala agertzeko egün hartan.

Zamalxkota bera, hain xüxen ere, gaitzeko andan ebiltan zeion goiz hartan. Jina janik, üsüan jitekoaren haidürü züan etxaltean. Güti bazen, güti, emana ageri beitzüan, ezagün zen haren trakatik, bi arto bürü iretsi zütüala goiz hartan bideari lotzeko.

Zalgizen igaraiteareki, ostatü aitzine batetarik, hep bat norbaitek egiten deio gure merkatzaleari.

Ainarba hari batek aisa terebükazten beitzüan ostatü aitzinetan, zer ezi dei bat, idüripeinezko keinü bat aski beitzeion sartzeko, Johane Trapuzak ekürazten dü bere zamalxkota, eta saihets so bat egiten.

Ikusten dütü bi adixkide, bi ezagün xahar mahain bati bürüz indar hartzen ari, eta bertan gogoalatzen zaio: oren honean jeiki zela goiz hartan, iräuten züan ber, egüna ontsa hasi behar züala. Ez zen petik agitü, ezi, adixkidetarik batek erraiten deio hain sarri:

«Trapuza, ez hiza zeinatzen heben igaraiteareki?»

Eta Trapuzak, beitzakian xipari nontik zorroa idok:

«Aski balitz bai nahi ükeitea! Ez nintek egün; egiaren erraitera, goiz hontan, berant aidean nintzala eta, ez zaita musa etxen ahatze!!»

Hain sarri adixkideak:

«Erax hadi halere, mihia bustiko dük.»

Ez züan nahi besterik entzün Johane Trapuzak; bertankara eraxten da bere «pur-sangetik» (hala deitzen züan zamalxkota imur hon zenean) eta üilüak gaizten hasirik beitziren, ezarten dü ostatüko barrükian.

Gero jarten da bere bi adixkideen kantüan. Borogutzen züan hain xüxen ere, haren zintzürak agoilatü beharra bazüala.

Bustatzen dü mihia, bustatzen ere zintzürra nasaiki. Ez züan babarik ardoaren hürrüpatzeko, iresteko.

Aski bustatzez, mihia zaletü zeion Johane Trapuzari, eta hasi zen bere bizi igaraneko gorabehera ejerrenetarik zombaiten kontatzen. Koki sor, bizi eta

⁶ *Gure Herria* (*Koki bat*, Septembre-Octobre 1930: 418-421. or.). J. Berrionde, izengoitia izan daiteke; norena ez dakigu. Beste testuetan J. Berriondo izenpetzen du.

⁷ *Kanpeta* «bois de campêche» (*Orotariko Euskal Hiztegia* X: 384. or.).

higatzen beitzen, bazüan zer konta! Zer erriak, karkazak ez zütüan eginerazten bai adixkider, bai ostaler ostalersari?

Solaza ederrenean eta, bat batetan jeikiten (sic) da Johane Trapuza eta barrükian sartzen...

Bere beharrez ote? Alegia bai.

Zamalxkotari büztan azotea⁸ altxatzen deio, eta, gibelego ondotik ahürre-to bat bohor üilü idokiten. Badoa gero bere leküala arrajartera...

Zertako zütüan bohor üilü hurak? Alegia deüs ere ez, bazüan bere büztan joküa Johane Trapuzak.

Asmatü züan, bide berrian, emaztetto bat, ontzi salzale merkartzale zoana Atharratzerat, asmatü ere, trakatik, karretari atelatürük züan astoa zainil züala eta berak ere ordü hon aide bat bazüala...

Haidürü da eretzeala hel dakion.

Ez züan lüzatü. Hainbestenareki, jeikiten da Trapuza, eta erraiten deio emazteari:

«Emaztettoa banikezü, nahi düzülarik haatik, koxelü bat egiteko zure astoari!»

Eta emazteak:

«Aiei gizona, ez zira ez hanitxen behar; hortan badira zure arrünkürak (sic) oro, gustüan egin izozü zure koxelüa. Ez dizü, oranokoan, ene astoak, bera idürrien segretürük ihori ere salatü...»

Erri, karkara, eskü zaparta...

Trapuzak üken züan bere imidoaren akaboa... Ez zen hargatik ozketarik gaintitü. Bazakian ahürrean züala bere joküa...

Eta badoa astoari bere koxelüaren egitera: hartzen deio bürüa besarka, eta ahürreko behor (sic)-üilüak beharri zilo batetan sartzen.

Ordüan zen ordüan aide! Asto zainila iratzartzen da. Hasten da jauziz, pernauziz⁹, üztarri ostikoz. Bide berri bazter bat behin jo, gero bestea, azkenekoz, jauzi batez bürüa sartzen dü bide bazterreko zerrailü artean.

Erriak, karkazak sartü ziren; eskü zartak eküratü.

Emaztea lürrean hedailo, karreta peaz gora, ontziak mila frisetan, helta-riak¹⁰ ontsa ohartü zireneko...

Johane Trapuza oro herots, oro karraska, oihüz eta oihüz, *debrü asto tzarra* hünat (sic), *debrü asto tzarra* harat...

Emazte gaixoa arrajiten da bere harrieriatik, eta itxesa zonbat handi düan ikusi bezan (sic) sarri, debrüak hartzen dü... Mihi peko zaina ontsa ebakirik

⁸ Jatorrizko testuan «azotza».

⁹ Jatorrizko testuan «pernauziz». Pernauzi «Salto, brinco» (Orotariko Euskal Hiztegia XIV: 53. or.).

¹⁰ Jatorrizko testuan «heldaiak».

beitzüan, ahoala jinak oro erraiten deitzo Johane Trapuzari. Egündano Trapuzak ez züan halako biperarik ikusi, halako ez den kolpürrik ere üken.

Ororen mündü mirail beitzen hantxe, ahalkeak emaiten beitzzeitzon emaztetto harek, leküa hontü behartü zeion, sordeisaren lotsaz. Atharratzerako bideari arralotü. Bazakiana emazte harek ezagützenxka züanez, zena zela eza-gützen!

Egün zombaiten bürüan, papertto bat ükeiten dü Johane Trapuzak. Egin egin zen kolore hartako paperetara. Ez züan lehena ükeiten züala, eta bertan gogoala jin zeion:

«Zalgizeko bohor-üülük orano gaitz builtan izan behar züela ».

Ez züan hargatik net bihotzari eman; segür bezala zen, Zalgizeko bohor-üülük haboroziz astoak ez zeuela bere koxelüa oihüstatüko.

Badoa arren, eta bürüa gora, Maulerat; sartzen ere da, kümitüa züan bezala, bakezko Jaun jüjearen etxen.

Han zen han solaz! Trapuza eta emaztea elgarri (sic) ez den kolpüka! Behazaleek zer erriak ez zütüen egiten.

Jaun jüjeak haboroziz jakileek deüsere aldiz honik bataren ez bestearen ezin erran, eskazak gaintitzen beitzütüen biek.

Jaun jüjeak egitekoa xuritü nahi eta ezin!

Azkenekoz haatik, hersatzen da Johane Trapuzari. Galtatzen deio:

«Koxelü bat düzüla egin emazte honen astoari beitiözü, jakinahal giniroa zer erran derozün?»

– Bena Jauna bai, ihardesten deio Johane Trapuzak. Ez deizüt besterik galtatzen. Nahi dit ene bürüa xahatü. Erran diot: «Osaba bat hil zaik aberats Ameriketän; hontarzünak oro ordeinüz ützi deitzak; heben harat auher eta asean biziko hiz.» Horra, Jaun jüjea, nik astoari egin koxelüa. Aski izan düzü haren ertzoarazteko: aski izan ere damü handi baten bürüzagisari eratxekarazteko.

Eta Jaun jüjeak hain sarri:

«Trapuza, Trapuza, banakizün koki handia zinela; hain zinela ez haatik. Kanpoa har izadazüt hebentik.»

J. BERRIONDE.

2.4. «Anttoni Zokozorri»¹¹

BERAK ere ez zakian nonko seme zen Anttoni Zokozorrik. Behin ere ez zeion gogoala jin aitari edo amari galtatzeko nonago mündü hüntara (sic) jin zen. Bazakikiena beraiek ere?...

Bazterrak zabal zütüen Pieilla Zokozorri eta haren emazteak; batean hanko beitziren, bestean hebenko, eta, azkena bai neke zeikeien, heltü bada, orotako orotzaz ondo emaita...

Dena den, Anttoni ezagützen züenek, (eta nork ez züan ezagützen?) aitor züen ez züala Aitüen semetarik izan behar; ozke bat, biga, haboro heltü bada, eskaz zütüala haien hereineala (sic), herrokala heltzeko.

Pieilla eta Kattalin haren emaztea bohameak ziren izatez; seme Anttonik ere arren halako zerbaitek izan behar züan.

Borda hütstto bat, hegazpe xar bat edo zühaintze pe bat üken lehen aterbetako.

Mügerki hazirik izan zen. Egünaz bildüa, egünean janik, beti biharamenaren gomendüan ziren haren aita eta ama. Amak amoina hün (sic) bat bortetan galta eta ahal idürizko ükeiten züan; hexür bat galta eta ez züen denborarik galtzen hexür haren üxtiatzez (sic); ontsa üxtiratürik ükeiten züen.

Seme Anttonik arren, üsüan, gerrenean züan salda... Arto axal bat, eta zenean, xinkor bazterkin karrazü bat zütüan janaritako, erreko hura edarritako. Eta, herein eder hura aski gabez zinkürka balin bazüan, zaharoa nigarren xukatzeke.

Mügerki eraikirik ere izan zen Anttoni. Hoinetakoak higatzen eta arraberritzen ez direnetarik zütüan: lehen lehenak büsti (sic) idorretako. Soinekoak hala holako: larrüa gordatzen bazeien doi-doa, nonbait han. Aurkitek¹² aski zikintü ondoan kinperraz gora ingüra eta... aitzina joka.

Eta halere zer potiko sano eta gottorra ez zen elki Anttoni Zokozorri? Errana beita «nekez hazi gaiztoa galtzen dela» ez zen ez galtzeko haietarik gure bohame hümea ... Behar ere ez!

Handitüxe zenean, haren adinak nahi züan bezan (sic) norbait zen Anttoni bere doiaren herein bat egiteko.

Bedatsean, ühaitz bazterretan züme biltzen; üdan, larrazkeneko bide xenden egiten eta hartzen; larrazkenean, alorretako. Arto ilarrak zohi zirenez jakiten; negüan bortaz borta mokor.

¹¹ *Gure Herria* (*Anttoni Zokozorri*, Janvier-Février 1931: 43-45. or.). J. Berriondo, izengoitia izan daiteke; norena ez dakigu. Beste testu batetan J. Berrionde izenpetzen du.

¹² Jatorrizko testuan «*Aurkibitik*». *Aurki* 4. «endroit d'un tissu» (Lhande, *Dictionnaire*...: 89. or.)

Behar züan gero bizitore izan Anttonik. Zonbat aldiz, lan eginareki ontsa jin zelakoz, ez zeion aitak, makilareki, bizkarreko hatza jauzerazi? Esküak hütsik hüilantzen bazeion, amak ere, garroteareki, errautsak aidatü.

Zakütik edo zorrotik zerbait bildü eta ekarri behar zeien, bestela...,

Aztaparkako zen Pieilla eta Kattalin Zokozorrien jinko ttipia: Anttonik ere ber jinko ttipia ezagütu behar üken züan gaztean, eta bortxaz bazen bortxaz, sinetsi eta obratü haren erakaspenak oro:

1° Ez zela behar borda hütsetan deüsere ebatsi.

2° Gaüzak, zekotz, ziren leküan züala behar xerkatü eta hartü.

3° Hatzemanik (sic) izateari beti kasü egin behar zela.

4° Jandarmer begia etxekei, eta, zer hel ere, beti behar zeuela bidea hautse.

Labür eta hon züan katixima Anttonik.

Aitaren makilari eta amaren garroteari esker ikasi züan prekazant izaten. Errejent honak üken zütüan.

Orai, hamazazpi urtetan, *Aztaparkakoren* erakaspener esker, bazakian nola behar züan jokatü bizitzeari lotzeko, gütienetik, bere doiaeren egiteko. Eta fida zen, lür beltz zen ber, bere doiaeren egitera, idüri beitzeion bere jinko ttipiaren manüak aisaxka begiratüren zütüala.

Ez behar borda hütsetan deüs ere ebatsi... Aterbestatzeko ez bazen, ez züan sartügei haietan... .

Gaüzak zen leküan xerkatü eta hartü... Arraintzürä joaiten zenean, ez züan ühaitzeko harri petan oilo edo oilaskorik xerkatü gei...

Hatzemaiteari kasü egin behar... eginen ere bai. *Aztaparkakok* gomendatzen beitzeion jandarmer begia etxekei lezan, eta zer hel ere, beti bidea hauts lizen.

Zer gizon galanta higatüren ahal den Anttoni?...

J. BERRIONDO.

2.5. «Anttoni Zokozorri eta Manex Bürüpelat»¹³

HAIN ontsa eraikirik, üste (sic) haütüzko seme bat züen Anttoni eta azkenaren ondokoa ez bazeien elki Piella eta Kattalin Zokozorri bohamer! Hamar zortzi ürtetan hasi zeien zor pakatzen¹⁴; hün (sic) direia otsez, gaztean eman zeitzen makila eta garrote kaldü ordarien itzültzen.

Lan beitzen iraütea, asegarri halako seme bateki bizitzea, Piella eta Kattalin jarri ziren beraien alde; Anttoni ere bere alde. Berezi ziren behinkoz.

Abere ohilek algar edireiten beitüe, Anttonik bere odoleko mandrill¹⁵ bat nonbait baratü züan, hareki ezagützeak egin, bertan adixkidetü, eta bata besteareki hitzartü, bizizaleak beitziren haatik, bizitzera iseiätü behar züela. Biek ere hontarzünak han heben zütüen, oro besterenak; besteren hürak zütüen behar baliarazi edo baliaraztera iseiätü.

Anttonik bazüan bere deitüra, ontsa joaiten zeion deitüra. Delako mandrilla, Manex Bürüpelat deitzen züen jenteek. Gaztean, tinak bürüko bilo haboroxeak erorerazi beitzzeitzon, geroztik bürüpelat izen hori jarraikiten zeion. Bazükean, düdarik gabe, beste bat bederak bezala, harek ere, bere egiazko deitüra; bena nork ezagützen zeion? Zekotz jandarmek, haien ezagün zaharra beitzen haatik Manex Bürüpelat.

Bertan adixkide, bertan ere bata bestearen gogoberri jakin züen Antonik (sic) eta Manexek. Zoin nahi zoko jo lezen, aitor ziren, bai bata bai bestea soberakin zirela orotan. Nihork ere ez zeien begi hünez so egiten. Ez zeien haizü bortetan ebiltea. Hasteko, zakürrek bazeien egin behar lehen batzarria; etxekandereek gainetik leterinak¹⁶ arrapikatü behar bazeitzen, zertako, ahamen batengatik, (ükeiten bazüen orano?) ürrats aüherrik (sic) egin mündü mirail izateko?

Bortetan ezin ebil! Eta haatik, biak jan zahar ziren, ahal idürizko jan zahar bat noizpait eginik... Biak goseareki eta goseak ezeztarik. Gaxo (sic) dolügarriak! Bortxatüz, zerbait iseiätü behar züen.

Joküko lehena beitzen Manex, erraiten deio bere kideari:

«Ez dük aski, behar ditiagü lehen beno lehen gure sabelak ixilerazi.

– Kitorik? ihardesten deio Anttonik.

– Bai kitorik! Ontsa beha hakit.»

¹³ *Gure Herria* (Anttoni Zokozorri eta Manex Bürüpelat, Mai-Juin 1931: 221-224. or.). J. Berriondo, izengoitia izan daiteke; norena ez dakigu. Beste testu batetan J. Berrionde izenpetzen du.

¹⁴ Jatorrizko testuan «*balkatzen*».

¹⁵ *Mandrill* «vago, holgazán» (*Orotariko Euskal Hiztegia XII*: 77. or.). *Mandran* «fainéant, paresseux» (Lhande, *Dictionnaire*: 711. or.).

¹⁶ Jatorrizko testuan «*litharinak*».

Anttoni behatzen¹⁷ zaio, eta algarreki hitzartzen düe, nola eta zer behar züen eraiki sabelen kitorik ixilerazteko...

Bazen, han berean, gorüne batetan, bide saihtesean, ostatü ttipi bat. Bi kideak badoatza ostatü hartara, sartzen dira eta botilla bat ardo galtatzen. Edaten düe itziki bedera lehenik, eta gero, biek ke¹⁸ tiratü behar züela, sakolak ikertzen dütüe, zütüen patraakoak ontsa iharrausten zütüelarik, alegia tabakak xerkatzen zütüela. Sosdün zirela erakatsi behar züen.

Edan, pipa, ele ederrez ostaler ostalersak ingana... Holako gazteinaztoian hilabete ünkü egiten igaranik... Halakoan bi hilabeteren lana, eta noiz nahi hasi behar... Denborak batere lagüntzen bazütüan bakoitzak bere hogeï hamar liberakoa segür egünean...

Ostaler ostalersak aldiz erpae haier beha...

Hainbestenareki Manexek erraiten deio bere kideari:

«Ardo hau nekez edaten diat; ahamen bedera jan bageneza?»

Bai eta bai.

Manatzen düe ostalersari xinkor gorri zerra bedera eta arraultze moleta bat piperreki... Bertan hitzean hartü zütüan.

Ostalersa sü egiten, arristiri askariaren adelatzen; ostalera solazkan bi bohomeki; bohomeak, beti ederki mintzo, oro arraileria... Bazen han erri, solaz, karkaz; oro adixkideak ziren, oro ere bide handizko jenteak?...

Zerbützatzen deie arristiri askaria. Anttoni eta Manex dira jaten, hortz hünean jaten; edaten düe ere ederki, nasaiki. Bigerren botilla ere ez agor, bai agor, hartan ziren.

Oranokoan ostaler ostalersa nahi bezala paratü beitzitzen, eta orotara, Anttonik erraiten deio bere kideari:

«Holako arristiri askari hünak, kafeak galtatzen beitätü, hartü behar ditia-gü; nik pakatzen ditiat».

Eta Manexek:

«Hik paka? Ez. Hartü behar badütügü, nork gureak paka.

– Nik nahi ditiat Manex...

– Badakika ordüan zer egin behar dügün Anttoni?

– Zer?

– Jokü bat egin behar diagü.

– Zer jokü?

– Etxe eretz hüntarik (sic) eta peko bide bürü hortara, joan jina zoinek lehen egin; galtzaleak kafeak paka...»

¹⁷ Jatorrizko testuan «ehatzen».

¹⁸ Jatorrizko testuan «bia ke».

Hain sarri ostalerak:

«Manex, hori ideia hūna (sic) ūken dūk. Ez dūkezūe...»

Eta Anttonik ostalersari:

«Etxekanderea ezar ezazū kafea sūan; aūsarki (sic) ezar ezazū. Jakile beza-la baliatūko beitzitzaizkie biak, laüek (sic) hartūko ditizügü. Nahi dūka Manex?».

Ontsa hola.

Etxekandereak, kafea sūan ezar eta erraiten dee (sic):

«Berotzen den artean egiten ahal dūzūe zūen jokūa.

– Dezagūn», ihardesten deio Manexek...

Jeikiten dira arren, bideala joaiten, eta han, lūrretik eraikitea balio ez zūen espartīñ xaharrak idok eta bide bazterrean ezarten dütūe.

Ostalerak xedea emaiten deie, eta erraiten:

«Hirūr (sic) entzūn bezain sarri partitūko zide. Eta nor niz ni aide bat hartzen dūalarik, oihū egiten deie. Kasū: bat, biga, hirūr...»

Anttoni eta Manex abiatzen dira, gaitzeko andan abiatzen.

Ostalera begiak ūrratūrīk soz; ostalera, bi eskūak hanketan: debrūak erri egiten bazūan edo ez bazūan, harek ja egin behar zūala oihūz... Eta bi bohamak tira ahala tira zoin lehentaka...

Bena, Anttoni eta Manex, bide būrūala hel eta aitzina gaintitzen dira; gain behera bat jaüziz (sic) igaraiten dūe, ūhaitz bazterreala būilta handian hel eta, han, zūme arte batetan gordatzen dira.

Baziren oihū, karrasko ostalerak, ostalersak. Zer albarota?

«Debrū banditak» hūnat (sic); «urd... brigantak» harat. «Baliatzen zaizūe noiz nahi ūlūna beita; bihar goizan goizik, jandarmak ondoan dütūkezūe...»

Gaüa, arterri baliosa zūen Anttonik eta Manexek...

Biharamen goizan jandarmak ondoan? Nūn (sic) ote ziratekean? Ez jakin. Beste iseiū baten hitzartzen heltū bada... Nonbait.

J. BERRIONDO.

2.6. «Degro Parot degria»¹⁹

BADÜ aspaldi zentürik dela. Eta haatik bero-beroa dago orano bere fama Zibero güzian. Parot züan izena eta, sortzaroz, Urdiñarbeko zen. Erri goxorik eginerazi dü bere denboran eta orano ere eginerazten arto xuritzeetan edo sütondo xokoetan, gaztein (sic) erre jatearekılan.

Behin, üsü nonbait eta, agitü zen Atherratzeko (sic) merkatüan. Han, bide bazterrean, hamar bat emaztetto, beren astoekin. Ari ziren bata besteari hasperrenez eta:

«Oi, ei! Haatik... Gero... Zertan zirade, dohakabeak!»

Parot hüilantzen zaie.

«Zer agitü zaizüe, emaztettoak! Zer izürrite edo destorbü?»

– Oi, gaixo gizona, Santa Graziko gütüzü. Artoa janik, urtea orano lüze... Eta ihon ere ezin bihi bat atzaman! Sosarentako üken ginirozü, bai, bena gük nahi ginikezü, sosik ez, eta ordariarentako.

– Ordariarentako!... Bena gaixo emazteak, ordariarentako, nik, nahi düzüena emanen deizüet.

– Haleia! Eta norat behar dügü jin txerka?

– Urdiñarben, Parot galta ezazüe!

– Arren, erran bezala, etzi horra gütüzü.»

Egün hartan, hamar emazte, beren astoekin, Paroten etxe aitzinean!

Etxekandereak, zer plazer züan! Haiek aldiz, hitzartü bezala Parotekin artoaren txerka jinik zirela.

«Gaixoa!.., ez dizügü ez gük, haboroziz eta emaiteko, guretako ere artorik!»

Haiek baietz, oihüz, kalapitaz, nahi züela Parot elestatü. Parot ohean zen, gozoki pausüan! Emaztea joaiten zaio.

«Zer ari izan zira, orano, hor gaintik? Badizügü, heben, hamar bat emazte oihüz, baizik eta ere zük arto hitzaman dezüla!

– Ah! Santa Graztarrak» dio Parotek!

Leihoala agertzen da!

«Hor zidieia emaztettoak!

– Bai, bai, hitzaman zeneiküzün artoa! Orai behar dizügü!

– Alo!... Ekarrü düzüea ordaria!

– Ordaria!!! Orai!... Egün!

– Hala hitzartürük güntüzün! Ordarila ükenen zünüela artoa! Ez badüzüe ordaririk, ez dükezüe artorik! Berriz artino, emaztettoak.»

¹⁹ *Gure Herria (Degro Parot degria, Novembre-Décembre 1934: 496-498. or.)*. Pette Chibero da Pierre Lanouguèren izengoitia.

Beste behin igaiten zen Mauleko zübian asto zahar eihartü baten gainen! Partzen dü herri hortako aitonen seme gazte espantox (sic) bat, zaldi eder-eder baten gainen! Jaun gazteak erri bat! Paroti gaitzitü! Ukürazten dü bere astoa!

«Parkamentüekin jauna! Erri egin düzü eni eta ene astoari!

– Ez züntüdan²⁰ nahi ofentsatü, gizona! Bena erri-egingarriari erri egin gabe egoiten ahal niza, ni?

– Ez düzü zertaz erri egin! Soizü!... Berrehün libera jokutzen deizüt, hebertik laster bat... Zü, zure zaldi ederrean, eta, ene astoa lehentzen zaizü-la!»

Jaun gazteak, baietz! Libertitü nahi zen!

Ordüan Parot, eraxten da astotik, büztanetik hartzen bere kabailoa... Eta... Ale hop!... Hurealat urtukitzen.

«Jauna, eia, jarraiki zikatzo!»

Jaun gaztearen aitak, jakin züanean gaüza, erran zeion semeari:

«Ontsa bena hobeki heltü zeizü! Ez dizü behar jente xeheaz trüfatü! Galdü düzü joküa! Eia, emozü bertan, zure sosetik, berrehün libera gizon horri!»

Segür Parotentako, astoa beno hobe beitzen sos²¹ eder hura!

Beste behin bortütik eraxtean, llabür bidez Mauletik (sic) üngüratü zen, etxen sartü beno lehen behar züala ikusi zer bazabilan hor gaintik!

Ostatü eder baten aitzinean igaraiten da, pantalu belaüna oro zilo eta zilotik ageri belaün bat ezinago zikin eta beltz. Edaten ari ziren, jaun saldo bat! Oro karkabilotsez hasten dirade. Paroten belaünari soz! Parotek aldiz, batere kexatü gabe erraiten deie.

«Erriak sartüko zaitzüe jaunak, nik erraiten badeizüet jokutzen deizüedala hamarna libera, badela konpainian, belaün, ene belaün hau beno beltzagorrik (sic).»

Jaun haiek arrunt honartü joküa, bata bestearen belaünez ikusteko? Ordüan Parotek altxatzen dü beste pantalu zankoa, erakasten gorderik züan belaüna... Agerik züana beno, orano, zikinago eta beltzago.

Joküa irabazi, bai!

Degro, Parot degria!²²

Pette XIBERO

²⁰ Jatorrizko testuan «Etzüntüdan».

²¹ Jatorrizko testuan «soz».

²² Orotariko Euskal Hiztegia VI: *degroba, degru*. v. *deabru* (63. or.). Orain *Debrü, Parot debrüa!* litzateke. Zubereraz ü [y] + a [a] > [ia], *debrüa* [debrí(j)a].

2.7. «Basajauna eta Organbidexkako bi artzainak»²³

ZIBEROAN gora da Organbidexkako olaltea. Artzain aldikariek, goizik zotukatü behar düe, denbora egileen ber egüean behera igorteko.

Bestaberri goiz batez Allande Bizkarroker eta Pette Küskübürü ziren aldikariak.

Allande Bizkarroker, Maule üngürüne hortako etxeko jaun handienetarik bat. Elizatiar handia, ez da iganerez (sic) herritik kanpo elkitzen Meza saintüa entzün gabe.

Pette Küskübürü, ber gaintiko, motiko gazte bat, ikastegietan egonik hogeï urtetarano, orai Parisen bideberri eraztazale, eta egün zonbaiten pausüaren hartzera etxerat jinik.

Pette atsülütoki bortüalat hurtatzera joan²⁴ nahian zen:

«Lagüna ezin hobeago diat, ez ardi jeixterik... Zer lo aseak behar dütüdan tiratü!!!».

Bestaberri goizan, Allande meza entzünik, elizan arrapikatü kantore baten hüxtülatzez, ari zen bortüalako gaüzen antola ürrentzen, ezkaratz aitzinean...

«Errak, dio Pettek, begiak hantürik eta erdi zabalik, leihotik kanpo soz, ez hadila ni gabe parti. Goiztiar hiz egün. Segür nük mezan izan hizala!

– Bai, eta orai aste orotakoz, bihotza laxü eta arin diat.

– Horik oro hon dütü hebenko gibel horientako! Gük Parisen ez diagü holako beharrik, sos eta libertimentü dügün ber.

– Ez ahatz Pette leheneko zaharren errana: «Tortxa bat ehaiten denean, azken txorta bere gain begiratzen dik. Hire balentrien²⁵ süstengazalea hire büria dükek. »

Denbora, ederrenetarik bat zen. Ekia jeiki berri, ürrezko errota bat üdüri, bere üngürüari abiatürik zen. Erregetxopitak eta papogorriak koblakan üngürünetakoa haritxetan. Latsünez xüritürik, beren hegatz beltzekin etxeek besta aide bat bazüen, eta goizanko eki goxoan zoin hobekiago mirailtzen züen.

Mauleko zeinü arrapikü herotsa, goizanko aideak, soro eta baratzetako belhar eta liliren ürrin honarekin batean, junpatzez itsasoalat bürtüz eramaiten zütüan. Üdüri züan lürreko gaüzek eta kabaleek beren arropa eta kantore eijerrenak goiz hartan elki zütüela.

Gure bi artzainak azkenekoz, anoakako zakü xuriak ontsa beterik eta zamari bederetan kargatürik abiatzen dira.

²³ Gure Herria (*Basajauna eta Orgambidechkako bi artzainak*, Octobre-Décembre 1938: 315-320. or.).

²⁴ Jatorrizko testuan «*jouran*», gero ere «*jouraitian*», «*jouraiten*».

²⁵ Jatorrizko testuan «*ballentiren*».

Mauleren gora joaiten, Pette Pariseko etxe eta bideberrier eginik, ez zen arrajiten ahal, holako bazter ederren ikusteari. Hürünean Orhi (sic) eta Ahüine elürrez xuri-xuria; apaltxago Sen Josefen ermita, sarek berdde-berddea üngüratürük; hüilanago Sobe oro lapitz eta harri, Maidalena bere ermita xuririk, Pikozarra, Axkarreta eta Ahargo beren iraztorra zabalekin eta gaztainaztori beltzekin; apalünetan aldiz soroak, baratzeak eta alorrak zer nahi lili eta belharrez beztitürük; bide bazterretako etxeak, mihise ederrenak leihotik kanpo ezarririk, sarri Korpitz Saintüaren hobeki ohoratzeke; zola-zolan aldiz ühaitza, zümatzeke haltzen eta zümeen leintzen eta arrainen bellekatzen.

Eta zamarietan iganik Pette eta Allande doatza²⁶ betik aitzina; Zalgizeko elge eta soro zabalak, Atharratzeko jauneren (sic) jauregiak, Liginagar itzal janik, txipakarien arregi ederrak, Ligiko kontrebandixten harri zilo gordagiak, gibel üzten dütüe...

Azkenekoz, ekiak sobera berotü gabe Hurjüntala heltzen dira. Zamariak einexerik, ülüak gaiztürük eta beren barneak, askal zoinüaren haidürü murmuzikan ari.

Haritx baten pean beren pausaldia egiten düe, eta ontsa askaritan. Oren pare baten bürüan, berek eta kabalek hatsartüxe ondoan itzalpez, oihan bat gora ttuku-ttuku, olalat bürüz partitzen dira.

Pette, mihia zaletürük, ari zen Pariseko berri kontatzen. Hona non, bohor xuri handi eta eder bat, zilar eta ürrezko zela batekin bürüz hona zaien eta ürrats zonbaitetan üküratzen.

«Nontik elkitzen da bohor hau? dio Pettek.

– Ilorri arte batetan zükean eta besteen senditzearekin, elki dük.

– Nausia, ez dizü nor nahi üken behar, aberats izan behar dizü!!!

– Ez dük hürün ez, dio Allandek, horren bürüzagia. Beharrüne zerbaitentako baztertü dükek.»

Oihü harat, hüxtü honat, deüs ere arrapostürük eta bohorra ber leküan, beharriak txütüta, büztanaren harat honat erabilten, ülüen ohiltzeke.

Emeki, emeki, bi artzainak hüilantzen dira. Üzkornoan joxe, lepo pean bellekaxe, Allandek kabastürütik atzamaiten dü.

Bohorra ez zen zotükatzen.

«Hau dük kabale mantxo!!!»

Eta jauzi batez Allande gainen da. Bena ez dü igiarazten ahal. Hebertik oihü, hantik makila kaldü, pusako, ostikata, pertika txista, deüs ere... Bohorra ber leküan. Pettek alforjetan piper gorri hartzen dü. Südür xiloetan muxi bat ezarten do, eta beste ahürreta erdi bat gibelaldean pausatzen... Deüs ere egitekorik, ez da bohorra igitzen...

²⁶ Jatorrizko testuan «*douratza*».

«Soraio düzü, dio Pettek; eraitx zite igarantxe nadin!»

Bai eta igaran ondoko, bohorra iñazia bezain zalhe oihana gainti galtzen da.

«Zer da hau, zer da hau? dio Allandek, nigarrez; zer eginen da (sic) orai ene artzain lagüna?»

Ahal bezain zalhe aztapar herexer jerraikiten (sic) da. Tarta elibat gainti ilorri artetarik, sekülan jenterik igaran ez zen leküetarik igaraitez, azkenekoz, izerdi oro hur, leze bazter batetara heltzen da.

Herexak han galtzen ziren, hantik aitzina ez zen haboro deüs ere.

«Segür lezen barna erori dük eta oraikoz korpitz izan behar dik!»

Eta bürüa galdürik, oihüz eta nigarrez badoa lagüngoaka.

Andoztar saldo bat sokaz kargatürik jerraikiten zaitzo...

Allande bera nahi zen joan bere lagünaren txerkatzera ziloan barne.

Allande sokor estekatzen düe eta lezen behera igorten.

Gure gizona harritürik zen, ikare barrasta, biloak bilagarroarenak bezain txüt; betik aitzina eta ez zen orano leze zola ageri zühaintze zahar erdi zain ütülirik, botxü, lapitz, harrarte, süge gorbeltz handi elibat, hortzak xorrox-türik lehen jinaren odolaren txestatzeko, anddeijer eta apotoro jauzi harat, jauzi hunat herots zerbaiten entzütuari, gaüza lazgarri horien artean Allande betik behera...

Azkenekoz bazterreala heltzen da. Ez zen segür erri egiterik. Bere südürraren aitzinean labe borta beltz handi bat. Barnetik zer nahi herots: oihü, erri, zinka, nigar... Petteren botza han üdüritzen zon... Esküin korrale batetan, ardi marrakaz, behi sankaz... Exker, zoko batetan ezür eta adar eta larrü atetürik. Lürra, odol txartaz beterik. Goiti sogin eta bere lagünak ünürriak bezain ttipi ageri ... Bazen segür harritzeko!!!...

Allandek, hora heltüz geroz, gaüzen bazterra ikusi nahi züan. Emeki, emeki, herotsik egin gabe, labe borta zabaltzen dü. Aragi erre ürrin bat... Ke²⁷ beltz bat...

Allande, gibeltzen da, erhi püntekin südür xiloak tapatzen zütüalarik...

Hanbestenarekin katea herots bat... Eta ühülgüa bezain handiko oihü bat:

«Ni nük ni, goizanko bohorra, Petten eramailea!... Ni, Ziberuko basajaunen nausia!... Hire lagüna hantxek dük estekirik.

Ene basajaun lagünekin, emazte eta hurrekin gordinik jan behar diagü... Puzkakatzera abirutzen (sic) dütük... Beha itzak haren oihüak... (Otoi hel! otoi hel!)

– Basajaun handia, otoi ütül izazüt artzain lagüna...

²⁷ Jatorrizko testuan «kber».

– Hik ere beste hainbeste merexi hüke, bena ez haüt nahi hunki, zeren Jinkoaren adixkidetarik behiz...

– Otoi bizirik eman ezazüt Pette... Ez minik egin... Ükazü pietate haren aita eta amez... Zahartürik, Pette dizüe biziarezlea...

– Ükenen dük, kantatzen badük Apoziloko semearen arristiri askaritako kantorea.»

Allande kontsolatüxerik hasten da, botza ikarexka:

«Aita, emazüt ogi eta gazna.

– Jaunak dizü hütxako giltza.

2. Jauna emazüt giltza.

– Bai, emaiten badeitazut lüma.

– Zer lüma? Arrano lüma.

3. Arranoa emazüt lüma.

– Bai, emaiten badeitazüt erxe.

Zer erxe? Xahal erxe.

4. Xahala emazüt erxe.

– Bai, emaiten badeitazüt ezne.

– Zer ezne? Behi ezne.

5. Behia emazüt ezne.

– Bai, emaiten badeitazüt belhar.

– Zer belhar? Bortü belhar.

6. Bortüa emazüt belhar.

– Bai, emaiten badeitazüt dailü.

– Zer dailü? Arotz dailü.

7. Arotza emazüt dailü.

– Bai, emaiten badeitazüt gantz.

– Zer gantz? Urde gantz.

8. Urdea emazüt gantz.

– Bai, emaiten badeitazüt, zi.

– Zer zi? Ametz zi.

9. Ametza emazüt zi.

– Bai emaiten badeitazüt aide.

– Zer aide? Itxas (sic) aide.

Itxasoak eni aide. – Nik ametzari aide.

Ametzak eni zi. – Nik urdeari zi.

Urdeak eni gantz. – Nik arotzari gantz.

Arotzak eni dailü. – Nik bortüari dailü.

Bortüak eni belar. – Nik behiari belhar.

Behiak eni ezne. – Nik xahalari ezne.

Xahalak eni erxe. – Nik arranoari erxe.

Arranoak eni lüma. – Nik jaunari lüma.
Jaunak eni giltza. – Nik aitari giltza.
Aitak eni ogi eta gazna eta zük adixkidea ükazü ene pazentzia.»

«Eta basajaunak aldiz zuri Pette. »

Eta hanbestenarekin, labetik kanpo urtukitzen do bere artzain lagüna erranez:

«Egün Pette, lotsarekin bahoia, geroko aldiand ez badük Jinkoaren lotsa handixago, ez hiz bizirik elkiko!»

Eta oihüz eta zinkaz, ezkapatzen da bere basajaun lagün, emazte eta haurrenganat.

Allande harritüririk ez zen haboro ere elestatzen ahal.

Pette, kerradea bezain beltz, biloak xuritüririk, eta larrüa tximaltüririk, ari zon pot eta pot; ez zakian nola bere lagüna erremestia.

Soketan biak elki ziren leze zolatik.

Allande, lotseriatik, bertanxko hil zen.

Pette aldiz, orano bizi da. Ez da geroztik bortüalat²⁸ joaiten, bena bai üsüxago elizan sartzen.

Eta negüan, sü ondoan, gaztaina erren jatean, bere alabaren bi semeak belaünetan gainen hartüririk, kontatzen de (sic), ez segür bi nigar txorta egin gabe, Organbidexkako basajaunaren ixtoria.

Joanes ETCHEGOREN.
Liginagar aphez-geia.

Eskualzaleen-Biltzarrak 1938an sariztatua.

²⁸ Jatorrizko testuan «bortialan».

2.8. «Jinko honaren grazia»²⁹

LEHENAGOKO Basabürüesek hartze gaixtoa züen. Oraikoek hobexe düela, nik uste, nihau hetarik beniz. Nontik nahi, düala aspaldiko apez batek horra nola ordüko Altzürükütarren bürüan sarrerazi züan Jinko honaren grazia zoinen handi den, eta baitezpadakoa.

«Ene aurride maiteak, eman dezagün lür hontako gizunek (sic) orok gizun bakotx bat egiten düela.

– Zer gizun handia, hura!

– Bai, gizun handia!

Eta hala hala, lürreko zühainak oro biltzez zühain batetara, zer zühain handia!

– Bai, zühain handia !

– Eta aroztegiatarik jelki haxkorak (sic) oro, haxkora bakotx batetan ezartez, zer haxkora handia!

– Bai, haxkora handia!

– Eta gizun handi harek hartürrik haxkora handi hura, ondotik motz eta egotx baleza zühain handia, itxasoala (sic), ez liroa bere sarga ororekin zafrazte egin txapasta handia?

– Bai, txapasta handia!

– Arren nik erraiten deizüet, Jinko honaren grazia, txapasta hura beno hanitxez handiago dela!

Handi izanagatik, ez dezazüela sobera üsü behart, ene Altzürükütar maiteak, eta orit eman ezazüe grazia hori züen arimek baitezpada behar düela, zelüalal igaraiteko, hala nola arbaldoareki eraisteko Zihigarik Gamerera, baitezpada behar beitu astoak üzteia! Halabiz.»

F. H., *Betzulako, aize ephailia.*

N.B. - Manexek jakin behar düzüe Gamere xilokan dela eta Zihiga aldiz hegian. Bien artean patar bat gaitza prefofa. Patar hura behera, Zihigarik Gamerera asto batek arbaldoarekin³⁰ eraisteko üzteia³¹ behar dü baitezpada.

Juanes BASABURU.

²⁹ *Gure Herria (Jinko-hunaren grazia, Mars-Avril 1936: 111-112. or.)*. Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia (F.H.).

³⁰ «Arbaldua, le bât.»

³¹ «Üzteia, la croupière.»



Jean-Baptiste Mazéris (argazkia familiak emana)

2.9. «Kaloka eta Pupuñi»³²

DÜALA mente zonbait Kaloka izeneko basajaun bat bizi emen (sic) zen Ardaneko bortüetan. Haren izenak berak Basabürüa oro ikara barrastan etxe-
kitzen züan, eta non ere beita ez züan bozkario (sic) handirik emaiten hegiz
beste aldeko bizizaleer.

Zioienez gaüaz hantxet hortxet ützüli elibaten egitearekin aidez besterik
berarekin har eta eramaiten züan. Jauntto hura beren begiez ikusi züela erraile
bakant elibat baziren, bena hain zeien itxüra lazgarrikoa emaiten non aipa-
tzeak berak gizonik azkarrenari bürüko biloak txüt-txüta eta bizkarreko
larrüa latz-latza erartzartzen beitzeion. Ez bazen üsü agertzen ere, orobat era-
kusten züan noixka-noixka ez zela orano hilik ez eta hilgeian, ezi gaü tipilean
dünda üdüri ziren arranba gaitz eli aranzaten zütüan bortü bizkarretik. Leze
handi batetarik sar harbotx (sic) baten pean züan bere aterpea; hazkürria ere
berari eman züan, arres, axüri (sic), ahüntz, behi eta beste kabale zer nahi
antolatzen ahal zütüanak oro eraman eta jaten zütüan.

Bigabostetan Basabürüesek beren eginahala eta lan egin züen holako aüzo
lehen miñakaut³³ baten ehaiteko edo beste ez bazen beste aldealat ohiltze-
ko... Bena ez züen ihontik ere deüs honik üken baizik eta bizpalau gizon
azkarrener larrüen aujami hartzaz peazgoraeraztea. Geroztik aspaldi handian
üzten züen ekürü-ekürüa. Orobat hain zütüan Kalokak traholatzen non ez
ziren hartzaz baizik mintzo beren artean. Holatan noiz ere mutiko batek bes-
teek egiten ahal ez züen zerbait egiten beitzüan indarka elibatez arrunt eza-
gün züen aüzoetako etxekandereak algarren artean:

«Ez dakin, Maddia? Holakoak halakoa egin düan, behar düan orano
horrek Kaloka borrokan goiti!»

Goiz batez Pupuñi, Pettarrean, hantxek Aranbeltze xokoan jeikirik, Gaz-
talondo gaintitürük argi hazkorrian (sic), Atharratzeko karrikala heltzen da.
Bizpalau zinkaz karrika iharrausirik lehen leihoak zabalerazten dütü. Hona
non bat-batetan etxanot txar batetarik agertzen zaion betiz geroz erdi belha-
gile gisa etxetik zen emazte xahar, ttipi, itxusi (sic) bat, garkotxea, bürüa eta
besoak oro belez, esküinasoz eta ürzapalez beterik.

Ikusi bezain sarri Pupuñi bere biasak makila püntan opilatürük, ematxotak
galtatzen deio eia norako abioan zen hain goixtiar eta han alagera.

«Banoazü, deio ihardesten Pupuñik, Kaloka basajaunari tinkaldi baten
emaitera Ardane alte hartara.

– Hori handitto erraiten deitak, puttikota, emazte xahar bati sineseragi-
teko.»

³² *Gure Herria* (*Kaloka eta Pupuñi*, Novembre-Décembre 1932: 504-510. or.).

³³ Hitz hori ez da hiztegitan agertzen.

Pupuñik ezetz ez zelakoan gezürrik «Jinkoa» juratürrik bi erhi txinkerrak kütxatzen deitzo baizik eta egia dioala. Belhagilesak ordüan erri mingar batekin erraiten deio:

«Gaixo haurra, ez hiz bospasei zehez goiti heltzen eta nahi hiz pedoxkan (sic) hasi Kalokareki... Hobeki egin hiro orano aurten porrot gatülta hon elibat jan bahitza.

– Eskerrik hanitx zure aholkü honez, emaztettoa, bena eskükaldü bat nahi badeitazü eman, ez nizü Kalokak lotserazten.

– Zertto hüke nahi?

– Oi zure biloetan aztaparkan ari den bele xuri hori emaiten badeitadazü, Kalokak haxeriaren ezteiak ikusi behar ditizü.»

Emazte xaharrak arrunt erran den belea eskentzen deio, eta Pupuñi, txorixkota atorra bularraren behera saka eta, hüxtülotsez txingili jauziz arragoiti бүрүз abiatzen da. Zigira heltzean бүрү egiten dü artzain bateki. Bere amusta³⁴ eginik olan eraisten zen gaznaz eta zenberaz bazterrak ore künküino:

«Jinkoak deiala egün hon, Phetiri.

– Bai, hiri ere, Pupuñi.

– Bixkor zideeia gain hartan, eta nahi bezala gaüzak joaiten zaitzieia?

– Ala jin txoria! Hobeki ere joan ahal litakek. Debrü Kaloka kokillot harek aurten sabel ziloa barnatto üken behar dik ezi gosea ohilt gaitz hatzemaiten (sic) dioiagü... Badikük txotx erdi bat arres eramantik gure olatik... Den bezalako sotoa astoak jo baleza!»

Pupuñik karkazak hartürrik erraiten deio :

«To, oraiko aldian uste diat astoa ni nizatean, ezi banoatzeiok ahal badot pürü iharrausi baten emaitera.

– Bo, bo, auxiliik... Egiaz mintzo bahiz hobe dük orano, ordü deno, Gaztalondon behera lasterra hartürrik ezi Kalokak eskü bakotx pastexten haü eta ez dikek hitan txestatzeko doia baizik.

– Ah Phetiri! Ageri dük ez dütüala Aranbeltzesak txeste, ttipi eta muldegaitz izanagatik begieik (sic) tzakür larrüak beno zailago direla. Orit eman ezak ene ikusteak berak Kalokari laster hagineko mina jauzeraziren deiola. Ez dik ene jan nahiüne handirik ükenen. Bena ütziarik denbora galtzea... Ontsa lagünt nindirok gaznaxkot horietarik bat eman balin baheizat.

– To, puttikoa to, eta ihulere (sic) ahal bahiz бүрүт hadi hasi lanari.»

Bere gazna bele xuriaren ber habialat igorritz, Pupuñik Lojibarreko patarra gora, eskalanpuak esküetan, harritxintxolen gillikadüraren axolik gabe, lauhazka hartzen dü. Larraineko azken etxauaren eretzean igaraitean, ikusten dü emazte xahar bat üliten (sic) ari. Emazteak prefosta alde orotan bardin berri-

³⁴ Hamabost egun olan.

kari, honek galtatzen deio norat zoan³⁵ han zalhe. Pupuñik bere hoberenean aitortzen Kalokari lepoaren bühürtzeko abioan zela. Arrunt emazte zaharra zeinatzen da eta otoizten mutiko dohakabea ez dadin lan horri lot bere hobetan, etsaia gotortto düala.

«Etxekanderea, ez düzü hoberik, hona heltüz geroz, ez nüzü heben ükü-ratüko. Orobat plazer handi bat nahi badeitazüt egin hari hailiko handi hori behar deitazüt eman, egün batez ontsa beharhünean agitzen ahal nündükezü.

– Har ezak nabi badük eta Jinkoak lagünt hitzala.»

Bele xuria, gazna eta hailikoa kolkoan Pupuñi heltzen da gerokoz Ardane tiniala. Kalokaren egongiala hüilantzeareki lazgarriko zinka egiten dü basajaunaren iratzarrerazteko. Oihü hartara berehala harbotx artetan gora agertzen zaio Kaloka, kexü gorrian. Arrunt ele gaxto zonbaiten erraiten hasten zaio, eia zer gisaz eta zertara jin zen haren etxondoala; ez zakinez otean³⁶ bizpalau ahataz jaten ahal züala hura üdüri gizatxar bat... Holako bogüko gizonaren ikustearekin eta bereziki ele goxo horien entzütearekin Pupuñi bizkar-ezürra behera abiatzen zaio izerdi hotz baten tzurruna. Orobat bere beldürra gordez, hasten da elestan basajaunari alegia botz-botza haren ezagützearen egitez:

«Aspaldian nahi züntüdan ikusi ezi bazter orotan jentea zütaz baizik ez düzü aipü; lazgarriko indarra düzüla eta izigarri gizon hona zirela beti entzüten nüalakoz gogoan erabili dit ihulere ahal banintzan behar nüala zurekılan bizi».

Holaxek ele honez beilakatzez, heziarazxetan dü. Basajaunak erri maltzur bateki ordüan erraiten deio:

«To, aments doi heltü hiz, ezi egün horietan ohartürrik ene iztezainak gogorxten hasiak zirela, eta adina ere hein bat goiti ari zeitadala, gei nüan joan hegiz haintüala mitil baten txerkara. Ala goihena! Hor hizanaz gainen ikusi behar diat eia deüs honik egiten ahal düdanez hitarik, ala ükül muntra egiteko hizan hoberena. Aigü eneki, jokütan txista bat emanen diagü. Goitzen banaük aitzina heben nausi hizate, hire mitil bezala nükek; ez deüs agertzen bahiz gaur berean gerren püntan txokarrerazten haüt... Au, ihaurek haüta itzak joküak.»

Bortü bizkarra gora joaitereki Pupuñik gogoan erabilten dü zer debrü jokütan Kaloka goitü ahal ükenen düan. Borrokan??? Ez dü gogoan igaran ere behar ezi Kalokak bi erhi txinkerren artean sanpullisa³⁷ aidean egineraziren deio. Mütürrekokan? Zarta bakotx бүrüa zartegiña üzkü bat bezain biribilt leikeio. Jauzkan? Bai bena txingili bakotx Kaloka, hura hiru pijintetan bezain

³⁵ Jatorrizko testuan «*zuen*».

³⁶ Jatorrizko testuan «*oithian*».

³⁷ *Sanpillus*: S. «Saut périlleux, cabriole» (*Orotariko Euskal Hiztegia XIV*: 534. or.).

hürrün heltüren zaio. Eta arren zer joküri lot? Arrenküra beltz horietan nahasirik delarik, bat-batetan, borogutzen dü kolkooan bele xuria karraka-karraka zorakan ari. Ohartüz ordüan bazüala orano bizipido (sic) inkarü bat, arrunt Kalokari erraiten deio:

«Lehen jokü gisa haütatzen dit zoinek harri hürrünago urtuk».

Kalokak ordüan lazgarriko karkazareki erraiten deio:

«Hizan bezalako eihartü txarra, berritan ükabilla beno handiago den harria berrehün ürratsetan harat igorten deiat... Hik zer eginen dük haboro-enetik ere?

– Hori gero ikuska.»

Kalokak ordüan beartan biltzen dütü bi harri xabal, bata Pupuñiri eman eta bestea urtukitzen dü aidez aide beste bortü maxela batetara. Arte hartan Pupuñik kanbiakot bat egiten dü. Kalokak eman harria gerrikoan behera zaragoilen gibel aldeala igor, elkitzen dü erran den kolkoko bele xuria. Hegalak erdi zabalerazirik, bürüa lüma petan ezarririk, harrien urtukitzeko aldia jiten zaiolarik, basajaunaren zankartetik igorten dü behera bürüz, egin ahal oroz, txilimixta bezala, belea. Hau aldiz hanbeste denbora bellopean egonik, lohau-lohaua³⁸ badoa, erroia bezain igei, hegalak zotikatü gabe. Kaloka harritürik dago ikustez harri xabal haren beti ber heinean nor daki norat joaiten. Bostehün ürratsetan pürü jerraikitzen (sic) dü bere begiaz, beste aldeko maxela igan artino. Gero, Pupuñiri bürüz ützül eta aitortzen deio:

«Orai ikusten diat hitan jaunen jauna, jokü hortan bürüzagitü hitzait.».

Ahalketürik holako errege-txupita nausi üztera bortxatürik izan delakoz, beste alde bere indar osoen erakusteko errabiak janik, eraikitzen dütü lürretik bi harri biribil. Bata emanez Pupuñiri erraiten deio:

«Hire harria nik enea bezain laster marroskatzen badük bi esküen artean, hortan ürrantzen ditiagü joküak.»

Bere harri esküan, ez jakin zer egin, Pupuñi bürüen haztatzen hasten da. Bena bertan gogoalatzen zaio bazüala papoan gazna bat, esküko harrien heintxüeko. Ordüan alegia küküska zelakoan esküa bere harriareki atorra bularretik sartzen dü han haztaxe eta... elkitzen gaznareki.

Ustez Pupuñi lotsak etsitürik zen, Kaloka erriak etenik sabelari etxeka dago; gerokoz gältatzen deio:

«Bahiza to, ingoiti aski haztatxkan erautsi dük.

– Baniz, has gitean» deio ihardesten Pupuñik.

Biak ttottotzen dira harrien esküen eta belaünen artean haboro tinkatzeko. Basajauna ari da, zehe bat mihi kanpoalat elkirik, gorbeltztürik, intziriz eta tzinkurtaz, opetsak eta... Besterik zerbait eskapa artino, ezin ihontik erdie-

³⁸ Erranmolde hori euskal hiztegiatan ez da agertzen, *lo*-tik eratorria iduriz.

raziz. Pupuñik has bezain sarri xehe-xehea ezarten dü bere gazna eta erakusten lagünari erranez:

«Lehentü nitzaizü, goitürük zira bigerren aldikoz.»

Büxtan gorri aitzinean tililikan ikusteari ere etzen harritürenago, Kaloka han ago, begi, aho, südür, beharri eta beste arrestakoak oro zabalik, arlui (sic) baten gisa ezin sinetsiz, eta ez hantik ez honatik, nahi ala ez behar egia aitortü eta ezagütü berak haütatürük eman zonaz gainen harria marroskatzera. Xütitzen da eta halako gixotaren indarraren aitzinean ahalke batek hartürük bezala erraiten dako (sic):

«Ni beno haboro hiz, hebetik (sic) aitzina algarreki biziren gütük, ez heltü bada adixkide handi, bena bata bestearen hil haidürü. Goazen orai aihaitara, joaitex egür haxe bedera eramanen diagü pastetxen egiteko.»

Badoatza oihantxot batetara zoinek haxea handiago har. Kalokak biribilkatzen dütü lazgarriko tailikak algarganat eta bizpalau mandok doi-doia zotikatüren ziren tornüreki etxerat бүрүз abiatzen da. Ber denboran Pupuñik, emazte zaharrak eman harilkoa kolkotik elkirik, lauhazkan egiten dü oihanxkotaren üngürüa zühain zankoen oroen algarri estekatzex, gero esküer tü eginik zühainik handienari besarka lotzen da. Kalokak, haxea urtukirik, galtatzen deio zer debrü ari zen han:

«Oi! Zure haxea deüs ere ez zela üdüritürük abiatzen nündüzün oihan txar honen oroen bizkarrean eramaitera.

– Ez otoi hori egin, badakiat, azkarki sinesten diat ahal hükeala ezi aitzineko bi joküetan ikusi diat egündanoko indarreko gizona hizala... Bena horik oro hola gogoan erabil ezak ez düdala ihon ere beste oihanik hebetxe (sic) gainti eta hau oro aldi bakotx errearazten badügü behar dikeat gero nork daki norat joan egürka.»

Pupuñik berriz erranerazi gabe üzten dü bere lana den mendren murmu-zikarik gabe.

Harboxpez harboxpe joaiten dira lezen behera Kalokaren sükalteala eta han gosearen ohiltzeko aihariaren adelatzen hasten: Kaloka pastetxen ohatzen eta Pupuñi gerrenean atzar³⁹ laurdün baten gorrierazten. Ez dütüe batak ez besteak gogoak lo, haboroziz eta errautsetan. Badakie ontsa ez badü batak pertika kaldüa emaiten, segür besteak ez düala hüts eginen.

Orentto bat holaxe egon ondoan bata bestearen goaita, Pupuñik, ikustex Kaloka bi esküak orean sartürük lande (sic), aztaletan pausatzen dü atzarki laurdüna eta gerrenaren pünata süan gorritürük emekiñi zanko mütürretan joaiten da Kalokaren gibealea. Hara heltzean «hatxiu» ürsain bat egiten. Ordüan

³⁹ Aztapar. *Atzar* «dedos corvos» (*Orotariko Euskal Hiztegia III*: 265. or.).

krakez Kalokak бүрүа engүратzen (sic) дүаларик, gerren пүнтареки борontean зүан begi bakotxa irazten deio.

Arranba bohүtsez⁴⁰ bere begi bakotx galdүtik minez ezin egonez, lezen gora eginahal oroz badoa Kaloka үtsү mandokaz Pupuñiren ondoan, түma harbotx bat, besarka beste bat, erezka gerokoz heltzen da jelkigiala. Han ikusiz bere etsaiak ezkapia deiola, ihontik ere ez зүала hatzaman (sic) ahal үkenen үtsү zenaz gainen, elkitzen дү bere erhitik eraztүna, lүrreala urtukitzen erranez:

«To, nahi deiat ene oritzapenetan egin emaitza hau, eraztүн horrek badik berartan balio gaitza. Har ezak, ezar erhian eta joan bakean.»

Pupuñi berehala kokotatzen da үrre eraztүн haren biltzeko. Erhian ezarrik etxerat бүрүз lasterra hartzen дү. Bainan, arauz, belhagile zonbaitek eginik izan zen erran den eraztүna, ezi erhian jausirik izan den bezain sarri hasten da oihүz:

«Ni heben».

Haren oihүala Kaloka eginahalak egin badoa Pupuñiren ondoan. Hau beti tira ahala tira ezkapa indarkaz eraztүнaren idoki beharrez eta maradikatүa erhitik salatzen non zen:

«Ni heben, ni heben».

Lasterkakaz ezin bestealatү denean Pupuñik, ikusiz bai hatzaman ez hatzaman geroago eta hүilanago ari zaiola basajauna, nabela xakolatik elki eta intziri bateki mozten дү bere erhia. Amiñi bat egүрүkitzen basajauna kantükantүala leikion eta brau... Urtukitzen bere erhia eraztүнareki aitzinean зүан zilo beltz handi batetara. Eraztүna hantik «ni heben»-ka oihүз aritzen da. Kaloka, ustez beti Pupuñiren ondoan dagon, jauziz itzүlipurdika badoa zilotan behera bere eraztүнaren gibeletik.

Geroztik ihork ere ez дү haren berri jakintү, eia leze hartan behera xүxen ifernүalat eraitxi zenez, ala llamina zombaiti esker han orano bizi ote denez.

J.-Bte MAZÉRIS.

⁴⁰ Hitz hori hiztegieta ez da agertzen. Edo *borhost* hitzaren beste forma («maudire», Lhande, *Dictionnaire basque-français...*: 180. or.) instrumentalarekin edo, Junes Casenave-Harigileren argibidea, *boirü* «oihu» hitzetik eratorria.

2.10. «Axigar»⁴¹

NOR den Axigar?

Ihize hon bat Axigar! Segür niz, Zihigan halako bat ikusirik, ez lükeela beste bat nahi!... Galta ezozü Ezpeleko etxejoaun zaharrari, Axigarren gazte lagünari: behin urdankako bertz handia sükaltetik ebatsi ziozün... Erranen deizü ere Ezpelek, Axigarren urdeak aüzoen alorretan gizentzen zirela, Axigarrek keheilak zabaltürik.

Behin gaüza hortan gainen jaunen aitzinean izan ziren: Ezpelek zion keheilatik, Axigarrek aldiz pasütik, urdeak igaran zirela, eta Axigarrek jüjeari:

«Emazü, jaun jüjea,
Zü urdea, ni pasüa...»

Ez dakit jüje harek ontsa ala gaixki hartü züanez pasüan igaraitea; dena den, Axigar alde orotarik ontsa elkiten zen. Egiak erran behar dü koblakari errabiatüa zela, jaunen aitzinean koblaka has eta oro bere alteko ezarten zütüala.

Egün batez, Nabarreko (sic) erregea (ordüan Nabarren bazen errege bat, Pauen egoiten zena) igaran zen Zihigan, Iratiko oihanean izanik basurde ihiztekatzen. Besta handi izan zen Zihigan: dantzari zanpillak⁴², peredikü ederrak, hitz batez ohore güziak. Peredikü baten ondotik, Axigar hasi zeion harri handi baten gainetik erregeari koblakan :

«Agur jaun Errege, mündüan maitatüa!
Heben da Axigar, gizon aipatüa,
Orotan ezagütüa, Zihigan haütüa...!»⁴³

Erregea Atharratzen ontsa bazkaltürik, erri egiteko gogoan zen. Hona zer ihardetsi züan:

«Hizan bezain harditik egiten deiat jokü bat: sar hadi Paueko Jauregian, hebentik harat joan gabe ez karrosan, ez zaldi kentean⁴⁴, ez eta ebiltez; eta ükenen dük idi pare bat, hik haütatzeko Lescar-eko merkatüan».

Züek eta nik ütziiko günüan erregea bere idieki, bena ez Axigarrek: eta biharamun (sic) goizean goizik, argia gabe, bazoan Puerat бүrüz, Ospitalen gainti. Eta nola?

Ohart zira: ez ebilterik, ez zaldirik, ez karrosarik haizü. Bena Axigarrek hatzaman (sic) züan... aker bat. Beti bezain aüzokoa zen, Ezpelen artegian

⁴¹ *Gure Herria (Achigar, Hazila-Novembre 1924: 693-697. or.)*.

⁴² «1 Zamphill : *leste et endurent*».

⁴³ «2 Haitia = hoberena = hautatia».

⁴⁴ «3 Zaldi kentian: *en espèce chevaline*».

goizean hartürrik. Akerra alimalekoa (sic) zen, tzintzarri handi batekin: eta hona Axigar bere akerraren gainen, xahakoa bizkarrean, Biarnoko bidean! Tulun, tulun!

«Habil, habil akerra! Ikusiko dük egün bazter ederrik, Ezpeleko oihanean ikusiko ez hüanik!»

Argi hatsarrekoztz Euskal Herritik kanpo ziren gure adixkideak... Jenteak ixüratürrik⁴⁵ haier soz, joaileak eküratürrik, egoilearrak etxe aitzineala jinik... Biarnon ez zen egündaino holakorik ikusi!... Axigar aldiz aitzina, Aita Saintü bat bezain lerdan!

Gizon batek espantatürrik beitzion: «*Ques aquo?*»⁴⁶.

Axigarrek ihardets:

«Ako, mako! Biarnes, zankoak tük kako!
Akerra ene aski, sobera dük hiretako ...»

Beste batek beitzion: «*Das bis pasa aquero?*».

Axigarrek:

«Hi akerro, hau aker, zihigarra Ezpeleko,
bere etxeko jaunak ez egün han ikusiko!»

«*Espieu lou chibaou!*» zion batek hürrünago.

«Oskiak iganteko, eskalanpuak etxenko
Zaldiak Ziberoko, akerrak aski Biarnoko!»

Merkatzale zoatzan neskatila elibati, aldiz:

«Haurra, merkatüan badün gizon hanitxko;
Ziren senargeirik izanen dün gütixko!»

Bere destorbü güzien artetik eki sartzeko Pauen Jauregi aitzinean zen, jau-regian sartü nahiz bere akerren gainen. Ez zela gaüza hori idüri bezain aisa nork nahik hartüko dü. Erregearen mitilak han ziren, erriz, Axigarri soz, ustez ertzo⁴⁷ bat zen borta aitzinean. Entzün ondoan erregearen partez horra⁴⁸ zela, eta behar züala hala sartü etxen barnen, bortak zabaltzen dütüe, eta sala eder batetan sarrerazten akerra eta Axigar:

«Hoik, hoik bazter ederrak!» dio Axigarrek bi zinken ondotik.

Biba hi, Axigar! Badük idi parea,
Maltak harro-harroa, üztarri bat berria!»

⁴⁵ «I Ichüratürrik= choraturik = *émerveillés*».

⁴⁶ Jatorrizko testuan den bearnes ortografia utzi da.

⁴⁷ «I Ertzo = *erbo*».

⁴⁸ «2 Le manuscrit porte *hora*, *lapsus calami* sans doute. *Horra* lui-même nous paraît incorrect : ne faudrait-il pas *horraa?*». Ez, zubereraz *horra* egokia da.

Salaren üngürüak zolatik gain mirail handi elibatez beterik ziren: zer gaüza ederra! Akerrak harritürrik, bazter orotarar lerratzen, ez zakian norat bürü eman: mirail haietan ez züan aker baizik ikusten, eta akerren gainen Axigar, bere makila esküan, beti bezain koblakan :

«Gordezak südür, akerra, bestelan hiz errigei!
Hau aker saldo ederra! Hei, prutxea⁴⁹, te, hei, hei!»

Bai bena Achigarrek uste ez züana agitü zen: akerra ahatzerik zaldu zela, ez aker, bi jauziz doa lehen akerrari bürüz. Oi zer bürata! Ez züan beste bat hain gozoki eman Zihigan! Bena zer karraska! Miraila joan zen behera, hamar mila buzinketan⁵⁰; akerra aldiz harritürrik norat galdü zen etsaia! Axigar oihüz:

«Aker, südür okerra, ez bahiz hire gusteko (sic),
Aitaren dük ogena, ez horri mendekatzeko!»

Jauregian lan handietan ziren jenteak, Axigarrentako ez zen esker handirik: erregearen emaztea haur ükeiteko ordüan zen. Bena Axigar, zer nahi izanik, bortxa ixilik egoile zen; hona zer zion koblakaz:

« Gizunak et'emazteak dohain badüe biek;
Bai harenak, bai honenak ükenen tü haur horrek!»

Ez dakit nik behagile zenez gure gizona ala zer, bena xüen pentsatü züan oraiko aldian ere, ezi erregearen emazteak ekarri zitizün bi haur, bata seme, bestea neskato! Ordüan haatik espantatü zen erregea, zer gizon entzüna zen Axigar. Eta harez baliatzeko hona zer aholkü egin zeion:

«Bedouseko aldian ene armada espainoler bürüz gerlan ari beita, orai artino haien esküpean, behar düzü jin eneki; zure jakitate handiaz lagüntüko gütüzü etsaiari oldartzen».

Hori atzaman dük, to, Achigar! Hobe hükean ützerik erregea bere haurrekin, ezi gisa bat edo beste galtzen baizik ez dük, gerlaka joaitz errigei izanez (zaldian egoiten ez dakik, ez eta arma baten erabilten), etxerat joaitz aldiz erregeari huts eginez!...

Èz züan horrenbestek lotserazten Axigar: ahal dena jin bedi, badoa gerlaka. Akerrareki ikasi dü zaldian eabilten, eta behar bada zankoak esteka eraziko dütü zaldian korda batez.

Nola erran, hala egin! Bai bena espainolen aitzinean ez zen batere gozo; uste düt Axigar nahiago zatekeala Zihigan, belhar epaiten, eziez bi armada haien artean. Hona zer zion zaldiaeren beharri xiloan :

⁴⁹ «3 Exclamation souletine».

⁵⁰ «4 Buzinketan = en morceaux».

«Zaldia, ez bahiz asto,
Gibel hiz joanen;
Eztük olorik, bai lasto
Espainian ükenen.»

Ez dakit zaldi hari norbaitek zerbait ezarri zeionez büztan pean, ala Axigarren eüskara zinez gaxki hartü. Dena den, abiatü zen lau borrokaz, tira ahala tira, espainoler büruz. Gaizo Axigar! Uste dü't non nahi hain hon zükean eziez zaldi hartan gainen: zankez gainti joaitea gozo bat zatekean espainolen arten gainti joan alte. Bai bena Axigarren zankoak tiran-tirana estekirik ziren, ihontik ere ezin elki! Batean aldi batealat, bestean bestealat zoan gure gizona bere zaldian gainen! Soro baten bazterrean beitzen zurezko kürütxe handi bat, kantüan igaraitez besarka lotü zeion Axigar. Bena kürütxea zahar zelakotz eta errotik tzüstotürük, jarraikiten zaio, eta Axigar inäzia bezain laster doa espainolen arten gainti, kürütxea herresta, peredikatzez:

« Debrüak jan zitzela, züen abarkekin!

Ez da züen lekürük, salbü xerriekin,

Espainol abarka handi, imido, kiedo⁵¹, puerko!»

Etsaia harritürük, ustez zelütik zerbait seinale zen, aztalak arin badoa bortüetarat büruz, ondarrük galtatü gabe. Axigar aldiz ez zen nahi bezain bertan eküratü, ezi bere builta handian bere zaldiarekin ühaitzealat zankaz gainti joan zen, non ez beitzüen ihon ere zaldia hilik baizik atzaman. Zihigan izan balira, Axigar ikusiko züen biharamen goizean goizik belhar epaiten; behin-gotz bazüan aski gerlaz eta bestez!

Egündaino Zihigan ez düe jakin non igaran zütüan lau egün hurak Axigarrük!⁵²

PICOCHET,

Barko tar apez-geia

⁵¹ «I-2 *Imido, kiedo* termes de jeux de *mus* et de *flor*. Par eux-mêmes, il (sic) n'auraient pas grande signification ici, mais préparent par consonance la finale injurieuse du vers».

⁵² «3 Euskal-zaleen biltzarreko sariketan lehen garai-saria emana izan zaion kondera».

2.II. «Ziberuko berri»⁵³

ALTZAI gainean, Ahüzkiren eta Iratiren artean naba batetan bada zilo handi bat, largo, beltz eta barna. Bedatsean behien eramaiten izan nizanean bortüan, zilo haren ondoan aitortzen düt ürratsa ozentü düdala.

Beti entzütea düt zilo hartarik lehenago agertzen zela süge espantagarri bat, kartiela oro ikara etxekeitzen züana.

Ehün bat metra lüze, ez dakit zonbat metra largo!...

Pentsatzen ahal düzü ez dela jauna zorakaz bizitzen eta haren triparen betatzeko zerbaitek behar züala...

Abentüan igaraiten ziren kabaleak ikusi bezain sarri hürrüpatzez biltzen zütüan, zonbat nahi hürrüntik: behi, ardi, zamari, oro hon zeitzon, eta zioien hartz bat askaritako⁵⁴ gutitto zeiola.

Haren büztan kaldüak, flüu-flau, ingürünetako zühainak mozten zütüan, daiüak belharra mozten düan bezala.

Altzaiarrek eta Ziberoko artzainek hegiz beste aldealat gogo honez hotsamanen (sic) züen, bena ez zen aitzinka hotsamaitekoa...

Azkenekotz apezgei bat abiatü zen, behar züala kabalea galerazi: apezgei horiek zer nahi ikasten emen (sic) beitüe, lati, grek, eta frantses, teologia ere bai heltü bada, sos galtatzen eta jenteen inkantatzen beharra dükieneko!

Honek ikasi emen züan ere ihize gaxtoen neskaberazten.

Hartzen dü behi larrü bat eta polboraz betatzen, eta sügearen bixtan ezarten mendü müsko batetan: sügea naban zen, zilo ondoan, biribil-biribila lo! Asmatü zünüan sügeak behia begien bixtan, hürrüpatü züan beti bezala, bazüala iratzari ondoko janaria...

Bai bena janari txarra aldi hontan, piper sobera, eta aragi güti! Bertan las-terreia lotü zeion süge trixteari: haren borotsak⁵⁵ ezagün ziren Atharratzen behera; büztan kaldüz ehün bat zühain lürrealat igorri zütüan!

Bena azken üzkerria egin eta egon zen lürrean lüze-lüzea. Hanbat ziren haren lotsa non lüzaz ez beitzeitzon hüilantü. Azkenekotz arrano, bele eta tzakürrrek jan züen.

Apezgei haren izena dit ez orai ohart!

Dena den, ni zilo haren kantüan bertan igaraiten!

⁵³ *Gure Herria* (*Ziberuko berri*, Mars-Avril 1928: 151-153. or.). Testu honetan hiru ipuin ezberdin baditugu.

⁵⁴ Jatorrizko testuan «*arkaritako*».

⁵⁵ Jatorrizko testuan «*bobotsak*». Izen hori pluralean edo *borhost* hitzaren beste forma litzateke («*maudire*», Lhande, *Dictionnaire basque-français*. . . : 180. or.) edo, Junes Casenave-Harigileren argibidea, *boiriü* «oihu» hitzetik eratorria.

Besterik ere agitü zitazüt bortüan: badükezü Basajaunen entzütea; nik ene partetik üsü kantüan asmatü dit, eta behin batekin elerran dit.

Egün batez ari nintzan arsaldoen olalat biltzen, oihanpe batetan gainti: Espainiako aldetik hegoa gaitz batek buhatzen züan azkarki, zühainak plegerazten zütüalarik; aizeen hüxtüen artetarik entzüten düt oihü bat:

«Errak, errak!»...

Lotseria ezürretan sartürik arditarik ahal zena bil eta biribil sartü nintzan olalat.

Ebia tzapastakaz hasi beitzen zühain ondo zahar batetan sartü nahi nintzan aterbean egoiteko. Bena zühain delakoa karrankaz hasi zeitan: Basajaun bat zen hau, bi besoak bi adar eihar bezala, arroparik batere gabe, korpitza oro bilo lüze baten pean, begi zorrotz elibat zamar beltz baten petik buita (sic)...

Ez niz beste bat beno lotsorrago, bena aldi hortan bihotza tanpez baratü zeitan, ezkapatzeko indarririk behinik behin ez nüan zankoetan...

Hala hala beste behin Basajaun bateki бүрүз бүрү baratü nintzan, ordüan ere nahi gabetarik. Gure ola aldegainen bazen ola zahar bat, aspaldian hütsik zagona; egün batez gure olalat harri zonbait behar nüala gainekotik urtuki, joan nintzan ola zaharreal; ülüna zen hüilan; gure arsaldoa tzakürrek biribilkatzen züen lasterka, eta ene artzain lagünak ari ziren hüxtüz tzakürren hotsamaiten.

Ola borta tzüsto zen, eta lürrealat joanik. Sartzen niz eta han berean baratzen harritürik: olan barnen bazen bizizale bat sü baten aitzinean zerbaiten beroarazten ari zena. Seküla bezain ene zamar lüzarekin nitzan (sic), haren so zorrotza sartü zeitan ezürretan barna. Kanka handi bat egin eta jauzi zeitan gaina Basajauna; lotü ginen biak, eta lürrealat joan.

Gazte nintzan orano, eta denbora haietan Atharratzez pean gizun (sic) gazte güti zen lotserazten nüdüanik: Atharratzeko merkatü gaü batez hirur motiko makila bateki bertanxko ostatü batetarik kanpoan ezarri nütüan!

Bena halako beste hirur aitzinean nahiago nütükean, ene Basajauna beno: egiak erran behar dü haren hunkitzeak berak lazten nüdüan, haren zamarrak, soak⁵⁶ eta hatsak... Bertan gainea hartü zeitan.

Eta nik: arimadüna bazen, ützi nintzan hantik joaitera, ez nüala haren erezeko maleziarik batere, eta ez nüala uste ogenik egin neiola.

Haren arrapostüa:

«Joanen hiz hehentik kanpo erraiten badeitak hirur egia!»

⁵⁶ Edo *süak*? Jatorrizko testuan «*suak*».

Mündüan badakit arrestelüaz bilzeko aski egia badela: bena zoaza zü hirur egiaren hatzamaitera (sic) Basajaun baten aztaparra lepoan düzularik.

«Gaur gaüaldi ederra: egünaz bezain ontsa ikusten dela dioie, bena hau gezürra da.

– Hori hala dük, dio Basajaunak.

– Zonbaitek diote artoa ogia bezain hon dela jateko, ez da ene ustekeria. Jauna, uste üken banü heben hatzamanen züntüdüla, ez dit uste jinen nintzan alde hontarat...»

Horik oro hala zirela, Basajaunak üzten naü kanpo eta ni xeherik galtatü gabe, bertan olalat.

Olako lagünek ez düe seküla jakin zertako atorra hel eta altatü nüan nik gaü hartan...

PICOCHET

2.12. «Eratz kaldüka»⁵⁷

BAZEN lehenago, ni ohart nizanaz, Zibero hontan jauregi batetan gizun (sic) zahar bat, biloak lüze, bizarra ere bai, eta begia zorrotz.

Napoléon-en denboran gerla eginik zen han heben alde orotan, kaska hanixko bildürrik eta nik uste zonbait ere emanik: aitzindari zen, *général* nik uste, bena gük ginioan (sic) beti «kolonela».

Nik dakita zer gisaz holako gizunak holako günean txerkatü züan bere habia! Arlopa (sic) bat bezain lazkarro zen, eta bere mitilen eretzeko etsai baten aitzinean bezain basa: nik uste beldür zela beti bere jauregia etsaien esküetaratüko zela holako egün batez eta herriko gizun kentea oro so beha zaudela nontik sar...

Eta gaüza bat züan partikularzki bortxa ikusten, herriko apezaren arropa beltza. Nahi düanak sinetsiko dü, bena gure «kolonela» zer nahi gerla eginik eta zer nahi etsai aitzinean ükenik, arropa beltzaren lotsa zen, eta lotsa ezkapatzeko aski! Hasteko ez zünüan seküla atzamanen apezareki elestan, eta ez züan behar ikusi bere adixkidetarik bat apezarekin, gaizten zen eta zer nahi erraiten züan...

Zertako manera horik! Zer egin ote zeien apezek? Jinkoak daki! Lehenago aitzindariak holako emen (sic) ziren, orai aldiz beste aldealako.

Bena dügün aitzina gure parabola!

Herriko bozketan gure «kolonela» ezarri züen herrian aüzapez edo mera; egiak erran behar dü, bere nahiaren kontre eginik izan zela; eta hasteko gure kartieletan aski da bestetarik jitea aitzindari igaraiteko... Üdüriz ez den herrian aski gizun herriko egitekoen ohatzeko! Bena, hor dago!...

Berriz ere egia erran behar dü: egitekoak oro zoin hobeki zaintzen zütüan, eta herritarrak oro laket ziren salbü bat pensatzen düzün bezala, erran delako arropa beltza!

Gaixo apez saintü eta eztia! Ez züan ata sagü bati minik eginen, eta «kolonela» ari zagolarik joka ahal bezain üsü apeza apaltzen zen, eta ixil egoiten, gizun gaitz haren bildü beharrez, bena auherretan! Bata apaltago eta besteak mendeki haboro egin!

«Kolonel»aren emaztea beste gisako zen, eta ixil-ixila senarraren okerkeriak ondotik xüxentzen zütüan.

Gaüzak hola zabiltzalarik, Bestaberri bezpera gaüan egin züan ebi isola handi bat, eta herriko karrikan baratü ziren plaza eta bidea lohiz beterik ezin igaraiteko gisan. Eta ordüan orano emazteek kotak lüze beitzüen (ordüan

⁵⁷ *Gure Herria (Ebatz Kaldüka, Juillet-Août 1930: 369-372. or.)*.

luzeegi, orai aldiz llabürregi!) erretor gaixoa ikara zauden biharamenean pro-
sesione denboran bere marihaurrak nola igaranen ziren lohi haietan gainti
bere⁵⁸ arropa xurieki...

Galtatü züan eta egin zeien bakotxak bere borta aitzineen eraztatzea.
Borta aitzine bat haatik baratü zen hunkiteko (sic), Jauregiko borta: ez zen
bat haizü izan lohi haren pusatzera, «kolonel»aren lotsaz.

Azkenekoz apeza joan zen behar züala Jauregiko etxekojauna ikusi, zer
nahi izanik ez züala janen, eta heltü bada aldiz emanen züala lohien erazta-
tzeko züzena.

Hotz zen, hotz, «kolonela» apeza bere salan atzaman züanean!

«Joka niozü sos biltzen ari zirela; eta hala bada jin bidetik gibel hartzen
ahal düzü!»

Beste zonbait joanen ziren haboro galtatü gabe, bena jaun erretora ez. Eta
behar züala otsez Jinkoaren igaraiteko bidea xahü, jauregi aitzinean bazela
lohi sobera, gogotik berak elkiko züala Jinkoaren ohoretan... Besteak aldiz
arrapostü bere borta aitzineaz lan har lezan, besteenak hunki gabe, eta hasteko
Jinkoa ez zela lohien lotsa...

Eta holako parabola andena (sic) bat bil eta joan zen gibel gure apez trix-
tea, bürüa apal, eta bihotza beltzik, bena zerbait ideiarekin esnaur.

«Kolonelak» aldiz bildü zütüan bere aitzineala bere mitilak oro eta erran
bat ikusten bazüan bere borta aitzinearen xahatzen zurratüko züala!

Eta ülüna hala-hala jin zen deüs esperantxa berririk ekarri gabe. «Kolone-
la» joan zen üsatü gisa ohealat. Bena sükarra (sic) iñar bateki ez züan loak
hartü. Gäüerdi jin zeion hala-hala, bena loa ez agertü! Herriko apez trixtea
beti begien aitzinean züala uste züan, edo jauregi aitzinean eraztazale bat
bazela üdüri zeion, edo beti zerbait holako.

Azkenekoz idüritzen zaio, bena aldi hontan egiazki eratz bat entzüten
düala kanpoan, zista-zasta lohi xahatzen ari. Süa etxen üken balü bezala jei-
kitzen da bere ohetik, zerbait arropa ezarten gainti, eta tarrapatakaz behera
joaiten igaraitez zerbait arma eskütan har eta.

Segür zen bere mitil bat zela ari ixilka lanean, norbaitek, düda gabe herri-
ko arropa beltzak, pakatürrik. Zer kaskak behar zütüan bildü errainetan!

Heltzen da langileen kantüala, eta hasten oihüz: hizan bezalako!... Bena
han berean baratzen da harritürrik, argizagiaren argian ezagütü züan eraztaza-
lea bere mitilez beste zela, erran delako arropa beltza, bere arropa gerriko pila
bildürrik ari zen besagai (sic) lohi baztertzen.

⁵⁸ Forma hori pluralarekin ere baliatzen zen.

«Kolonela» ikusi bezain sarri xütitü zen apeza, bere eratzari berme, eta begitara so egitez bere etsaiari erran eztiki:

«Emazüt kaska edo ele gaxto nahi düzün bezala, ez tit sekülan bildüko gure Salbazaleak bezain beste!»

«Kolonela» han berean baratü zen kordoka kolpatürük izan balitz bezala; bena ez lüzaz: gibel ützüül eta jin zen lasterka etxerat, bazter orotarar oihüz eta helez (sic) bere mitiler, mitilak aldiz lasterka gainbehera, ustez etxean sü lotü zeien...

Lehen jinari etxeko jaunak galtatü zeion eratz bat ekar lizaon, eta eratz züen bezain sarri joaiten da jauregi aitzineala eta han zipirta-zaparta eratzatzen hasten erran eta:

«Eia, zü ala ni!»

Apeza erri ezti bat egin eta arrahasi zen bere lanari, «kolonela» aldiz bestalde, besagai, izerdi latz!

Biharamenean ez zen borta aitzine bat jauregiko borta bezain xahü. Ez züan borta batek jauregikoak bezainbeste lili eta adar eta zernahi ornamentü! Eta hobeki zena, lehentze egün hartan, «kolonela» elizan sartü zen meza entzüteko, eta mezik landa sakramentü saintüaren ondotik ebili, argi bat esküan.

Herriko apeza ere egün hartan lehentze sartü zen bazkaritako jauregian, berak esperantxa züalarik kaska eta ele gaxto, züan kümetü eta ohore franko.

«Kolonelaren» emazteak ez züan deüs konprenitzen zer igaran zen gaü hartan. Galtatü zeion apézari bazkari denboran:

«Oitean arren erran ezazü zer egin düzün ene senarraren kumertitzeko eta nola ari izan ziren (sic)».

Eta senarrak saihetsetik:


«Nola ari izan den? Eratz kaldüka!»

P. PICOCHET

3. ALEGIAK

Hamargarren Urtea. — 10^e Année. — 6. Paraissant tous les 2 mois. NOVEMBRE-DÉCEMBRE 1930.


GURE HERRIA



AURKIBIDEA

<i>Français et Basques d'Argentine. Un Homme - Des Œuvres</i>	J. Lamarque.	<i>Un livre sur les Basques. A Book of the Basques par Rodney Gallop</i>	P. Lafitte.
<i>Eskualzearen-Biltzarro - Ich-tudianten Zoinghiago</i>	La Rédaction.	<i>Jansenistak Eskual Herrian.</i>	Ikertzailea.
<i>Oihanean</i>	J. Olcomendy.	<i>Armand David (1826-1900).</i>	J.-B. Daranatz.
<i>Méthol</i>	P. Picchet.	<i>Eskualdunen Loretegia</i>	P. Lafitte.
<i>Alegia. Gai-añhera eta bi an-dere ejerrak</i>	P. Chibero.	<i>Crépuscule Basque</i>	G. G.
<i>La Flore Basque</i>	D ^r Souberbielle.	<i>Dix chœurs basques par Nobeito Almandoz</i>	C. L.
<i>Azkañen</i>	P. Ithurralde.	<i>Danse ou Jeu de l'Ote</i>	Recueilles
<i>Le retour des viclimes de l'In-ternat des Basques (1794-95)</i>	H. d'Argain.	<i>Igurd-Dantzak</i>	par
<i>Beribitez</i>	J. Etchepare.	<i>Danse Longue</i>	P. Donostia.
		<i>Danse des Pommes</i>	

Gure Herria, 1930eko Azaroa-Abenduaren azala



ALEGIA

GAI-AIÑHERA ETA BI ANDERE EJERRAK



Gai-aiñhera ertchua, hola бүрүз phiko,
Andere Ejerraren habian sartzeko !...
Hunek herra gachtua dü sagientako :
Oi ! Zer pada ederra, ñor mendekatzeko !

— « Ale prenda gachtua !... Ahalke gabia !...
« Ene etchera sartzen, hi !... debro sagia !...
« Bertan dolütüko zein hire ausartzia :
« Izanen hiz berhala ene apaidia ! »

— Andere Ejerrari, othoi, pharkamentü !...
Nurbaitek zuri nizü segür gaizki saldü !
Sagürrik egundaino ezta hegaltatü !
Soizü ene hegaler !... ni tchoria nüzü. »

Gai-aiñhera badua hegalez firrindan !
Berriz ere sartzen da chilo beltz batetan...
Hartzari ezkap'eta otsuak atzaman !...
Tchorien etsaria zagon chilo hartan.

Andere Ejer hori zinez da khechatzen,
Ikhusliarra beitü tchoritako hartzen.
Eta Gai-aiñherari arrunt gaña jauzten !...
Tchori kastatik dela, hunek dü ükhatzen !

Gai-aiñhera eta bi andere ejerrak (P. Chibero), 1930eko Azaroa-
Abendua: 509. or.

*Alegia***3.I. «Gaüainera eta bi anddeijerrak»¹**

Gaüainera ertxo, hola бүрүз piko,
 Anddeijerraren habian sartzeko!...
 Honek herra gaxtoa dü sagüentako:
 Oi! Zer parada ederra, hor mendekatzeko!

«Ale prenda gaxtoa!... Ahalkegabea!...
 Ene etxera sartzen, hi!... Debro (sic) sagüa!...
 Bertan dolütüko zein hire ausartzea:
 Izanen hiz berehala ene apaidüa!»

«Anddeijerrari, otoi, parkamentü!...
 Norbaitek zuri nizü segur gaizki saldü!
 Sagüririk egündaino ez da hegaltatü!
 Soizü ene hegaler!. . Ni txoria nüzü.»

Gaüainera badoa hegalez firrindan!
 Berriz ere sartzen da xilo beltz batetan...
 Hartzari ezkapü eta otsoak atzaman!...
 Txorien etsaria (sic) zagon xilo hartan.

Anddeijer hori zinez da kexatzen,
 Ikusliarra beitü txoritako hartzen.
 Eta gaüainerari arrunt gaina jauzten!...
 Txori kastatik dela, honek dü ükatzen!

¹ *Gure Herria* (*Gai-aiñbera eta bi andere ejerrak*, Novembre-Décembre 1930: 509-510. or.). Pette Chibero da Pierre Lanouguèreren izengoitia. La Fontaineren «La Chauve-souris et les deux Belettes» jatorrizko alegiatik hemengo bertsioa urruna da, baina edukia hor dago.


— 510 —

— « Ez khecha, Anderia, pharkamentü zuri!
Entüzü, ez, ni izan egündaino tchori!
Sogin ezazü, othoi, ene bilhueri!
Jinkuak egin nizü sagiak üdüri. »

Gai-aiñherak dü holaz bizia salbatü!
Eztüt halerik ere nahi uhuratü,
Ihize hori eztüt seküla maithatü :
Ulhümpian bizi da, ez tchori, ez sagü!

Gai-aiñhera hanichko bada gizonetan :
Churiekilan churi, gorri bestekilan!
Eztira maithatürik ihurtzaz holetan!
Holakuak ditügü deitzen « phika büztan »!

Pette CHIBERO.



Gai-aiñbera eta bi andere ejerrak (P. Chibero), 1930eko Azaroa-Abendua:
510. or.

«Ez kexa, Anderea, parkamentü zuri!
Ez nüzü, ez, ni izan egündaino txori!
Sogin ezazü, otoi, ene biloeri!
Jinkoak egin nizü sagüak üdüri.»

Gaüainerak dü holaz bizia salbatü!
Ez düt halerik ere nahi ohoratü,
Ihize hori ez düt seküla maitatü:
Ülünpean bizi da, ez txori, ez sagü!

Gaüainera hanixko bada gizonetan:
Xuriekilan xuri, gorri bestekilan!
Ez dira maitatürük ihortzaz holetan!
Holakoak ditügü (sic) deitzen «pika büztan!»

Pette CHIBERO.

3.2. «Biesadün»¹

AIDEA: *Aitak eman zerautan*

Bere aitzineala, Jaun Kreazaleak,
Behin deitü zütüan ihize güziak
Txipi, handiak,
Lodi, meheak,
Ejer, itxusiak,
Sendotüko zütüala güzien noküak!

II

Ximinoari deio lehenik galtatzen,
Eia bere itxüraz denez agradatzen.
Bai dü aitortzen,
Ahalke ez beitzen...
Itxusiago franko beitü ezagützen!

III

Irakasten (sic) dü hartza, goraki trüfatzez!
Nor da agradatüko gaizo mondoil horrez!
Torpe korpitzez,
Gogor erräinez
Eta molderik ez!...
Oi! Hartza!... Mirailari ez sogin... ahalkez!

IV

Hartza torpe-torpea ordüan da txütitü,
Bere edertarzüna goraki laüdatü!
Elefanta dü
Errigei hartü,
Eta aholkatü,
Lerdenago izatez... balin badü gustü!

¹ *Cure Herria* (*Biesadün*, Mars-Avril 1931: 112-113. or.). Pette Zibero da Pierre Lanouguèreren izengoitia. La Fontaineren «La besace» jatorrizko alegiatik hemengo bertsioa urruna da, baina edukia hor dago.

V

Ber solazean dago elefanta zühürra,
Hari balena zaio sobera gotorra!
 Aiher-aiherra,
 Bertan da horra...
 Üinürria bera!
Küküso beitzai, hanitx, hanitx txarra!

VI

Gizonak mintzo dira kabaleen ondotik!
Ele zühürragorik ez da haienganik!
 Mihi gaxtorik!...
 Ez den zorrozotik (sic)!...
 Usuki barnerik!...
Alkar ezarri düe... ontsa jorratürik!

VII

Biesadün girade agertü sortzean!...
Besteen hütsak dütügü ezarten günean,
 Aitzinaldean,
 Ikus leküan,
 Ontsä agerian!...
Eta gureak aldiz... gorda gibelean!...

Pette ZIBERO.

3.3. «Kritxa eta ünürria»¹

AIDEA: «*Txorittoa nurat bua*».

Kritx² gaixoa, norat doa
Terresta elürrean?
Bere botz eijer, goxoa,
Galdüko dü hotzean!
Hobe lüke sütondoa
Holako izotzean.

Oi! Zorte laidogarria!
Ezin da pisagorik!
Hotzarekılan gosea
Nihon ez aterbürik,
Horien lagün... mesperetxüa,
franko eta kitorik!

Galtatü deio heltüra
Üinürü (sic) zühürrari;
Pakatüko dola zorra
Üdaren jiteari!
Kritxa ez da ahazkorra,
Etxeki da zinari!

«Ez düzüa ahalkerik,
Dio ünürü txarrak!
Kantüz, zük, üda beterik,
Lanean aldiz zühürrak!...
Dantza... Kantoreen ondotik!...
Joan Fuera auherrak!»

Kritxa! Ez ahatz negüa
Üdako beroetan!
Geina ezazü bihia,
Zireno indarretan !
Ez zünüke ünürüa
Lagün... beharrünetan!

Pette ZIBERO.

¹ *Gure Herria* (*Kritcha eta ünürria*, Mai-Juin 1931: 204-205. or.). Pette Zibero da Pierre Lanouguèreren izengoitia. La Fontaineren «La cigale et la fourmi» jatorrizko alegiatik hemengo bertsoia urruna da, baina edukia hor dago.

² *Orotariko Euskal Hiztegia XI: kritx «cigarra»* (84. or.). Zuberotar hiztegieta ez dago.

3.4. «Zoin eijerrago?»¹

EGÜN zonbaitetako, esküetan düttüt Iturriaga üxkaldün alabatarrak agerterazi zütüan «ipuiak» edo «fablak» edo «allegiak». Haietan bat berezten dütt, «La Fontaine» aipatüaren alegia batetarik jelkirik dena², zeren Oxobi, üxkalzale lapurtarrak ber alegia üxkaralatü beittü.

Lehenarena ez düe non ere beita, hanitxek irakurri, eta nahiz bigerrenarena agertü zen «Gure erria» (sic), Novembre-Décembre 1935-ekoan, bestearen kantüan nahi nikezü arragerterazi.

Horra Iturriagarena:

OLARA ETA AZERIA

Olar bat zebilen behin
era ederrean,
soroa jorratuaz,
jaten goiz batean.
Kakaraka egiñez
horra non batetan
igotzen dan lurretik
zugatzera egan.
Begira negokion
ni bazter batetik;
ezin begiak kendu
iñolaz gainetik.
Gain-gainean zegoan
ederki jarririk,
olar ederragorik
ez det ikusi nik.
Atzapar bat bazuen
kana batekoa,
atzeko azkazala
izugarritzkoa;
bularra txit lodia,

¹ *Gure Herria* (*Zuñ eijerrago?*, Avril-Juin 1937: 130-133. or.). Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia.

² La Fontaineren jatorritzko alegiak «*Le Coq et le Renard*» izena du. Alegia horretatik hemengo hiru bertsoiak urrunak dira, edukia atxikitzen baldin badute ere. *Gure Herria*-n bertsoiak bi zutabetan emanik dira.

lepoa laburra,
begi-ori-gorriak,
mokoa makurra;
atzeko lumak jo nahi
zioten burua,
zintzilik goitik bera
egiñaz makua;
galdor gorri-gorria
zeukan txit zuzena;
hartan ageri zuan
hark bere kemena.
Haren luma ederrak
eguzki argitan
esnatutzen zituzten
diztira bizitan,
lausotzen nintzan eta
ez dezaket esan
gure olar hori zer
margotakoa zan;
hain laister zirudian
zilarra, urrea;
hain laister harribitxi
diztiraz betea.
Hari begira ezin
nintzan ni aspertu;
ez uste izan dedala
ezertan edertu.
Oraindik unetxo bat
igaro baino lehen,
azeri zar haundi bat
horra non datorren.
Ikusten du olarra,
gelditzen da bertan,
betik gora hasten zaio
honelaxe hizketan:
– Gora, gora maitea!
Auxen bai berria!
Pakeak egin dira;
gaur mundu guzia
bizi diteke lasai

bildur gabetanik;
inork ez du aurrera
izango etsairik;
katu eta txakurrak,
otso, arkumeak,
azeriak, olarak,
gera adiskideak.
Jetxi zaitez lasterka,
bildurrik ez izan,
elkarri laztanxo bat
beaiogu eman.
Olarrak berehala
dio erantzuten:
– Zaude pixka-pixka bat;
horra non datozen
hiru azeri txakur,
hortxe otadian
lasterka lau oinean
lertzeko zorian.
Ez dago zalantzarik.
– Diozu egia;
hoiek dakarke nonbait
pakeen berria.
Aditu bezain laister
txakurren izena,
han dijo azeria
alduen lenena.
– Zaude, zaude, olarra
hasten zaio deitzen:
berekala nazaizu
hemendik jetxitzen.
Ez dago gelditzeko
gure azeria,
badirudi igesi
dijoan erbia.
– Lasterka noa, dio,
berekala hor naiz
honelaxe ibiltzea.
ohi degu guk txit maiz
Gutziz asko jakiña.

Zan azeri zarra,
baña olarra ere
ez bide zan narra.

HORRA OXOBIRENA:

Oragarretik³
Bardotzeraino
Bada oraino
Bazter galdurik.

Hots, axeri bat
Bidaxundarra,
Gaskoin zaharra
Jin zen biderat.

Errekan arrain
Larretan erbi,
Hamar, hamabi
Axeriaren gain.

Eta bidetik
Sabelean hotz,
Begiak zorrotz,
Ttapa, ttapa, ttik!

Ez niz, ez, gero,
Ur, oihan zainez,
(Jaun kargudunez)
Mintzatu gogo!

Horra hor non den
Axeri hori
Oilar bañori
Bristez ohartzen.

³ Jatorrizko testuan «Oraaretik».

«*Ke te dizi kio*»⁴,
Hau matrikula,
Hori karkula,
Hurbiltzen zaio.

– Jauts hadi bertan,
Giten besarka,
Haugi hegalka,
Bi pot nik eman.

Janik bihi on,
Oragartarra
Gure oilarra
Goraxko zagon.

– Ze? Bakea guk ?
Axeri gaixo!
Potta zoin goxo!...
Ago, heldu nuk.

– Oilar maitea,
Ez dakik gerla
Fini dugula?
Biba bakea!

– To... Berri onez
Datotzik segur
Hantxe bi zakur;
Hi? Hala denez?

– Bai, bi zakur?
(Gogoa ilun,
Gosea lagun):
Banoak... Agur!

⁴ Gaskoiz da: «Baietz esaten diat».

ZOIN ZAIZÜE EIJERRENA?

Zer oilar ederra, Iturriagarena! Zoinen xeheki eta ederki ez deizkü erakusten haren edertazünak (sic)! Eta axeriaren mintzaldia, ez deiküa ederki biribilkatü? Nasai eta eder da, Iturriagaren ipuia!

Eta Oxobirena? Zer üxkara lerden eta xahüa! Mintzo zaikü ützül üngürürik gabe, zale-zalea. Zer dritxo xotil eijerrak! Ikusten düttügü, axeria mütürra goiti lüxatürrik, eta oilarra hari gainbehera so, begiak nir-nir, erkaitz batekin! Ontsa txütükatürrik eta leintatürrik da, Oxobiren alegia !

Behar dela lehen bat eta azken bat?

Ordüan, ni azken ezar nezazüe eta beste biak lehen, bardina ...

Ene allegiaxkota nik ere errün beitüt, hortxe düzüe!

OILARA ETA AXERIA

– Eraits hadi, oilar gaizoa,
Aigü nik beileka papoa!
Gerlaren süa dük itoa,
Betikoz dük bake osoa!

– Egia bada, ez dük gezürra:
Ber xedez aüzoko tzakürra
Horra dela: gora mütürra,
Nik banikek orai beldürra!

– Aizina banü egoiteko,
Eta bien besarkatzeko...
Badiat besterik ikusteko...
Bego potkatzea biharko!!!

Axeria
Gezürtia
Zen:
Ben'oilarra
Sineskorra
Ez zen!

Llabür eta ez bon:
BETZULAKO AIZE EPHAILIA.

3.5. «Ezkürra eta Küia»¹

– Gure Jinko Jaun maitea, non zünüan bürüa,
Tütotx herrestul (sic) txar honi, küia zorro lodia
Manatü zünüanean, hain pezürük jostea???
Aldiz, ezkür ttipiñia, bagoaren bihia!
Ni, Kaxko, izan banintzan zure lagüntzalea,
Erriz ez züzün ariko, horier soegilea!

Ene üdüriko,
Ontsa egiteko:
Ondoa nolako,
Emitza halako!

– Gogoeta horietan, zale da bai einhatzen,
Bürüa ere nahasten: Kaxko da logaletzen,
Bagoaren itzalean, aharrausiz itzailtzen,
Kurrunka eta ametsetan arrunt sartürük beitzen.
– Goratik erori zeion ezkür bat tzistakorra
Südür konkor bizkarreala; zer karraka gogorra!
Odoldün zeion ezarri bere mosko gotorra:
Harritü zeikün han Kaxko, nahiz ez zen lotsorra.

Jintxori txainküa!²
Hau dük odoltzea!
Izan balitz küia
Ezkür txipiñia,
Adio bizitza!

– Orogen egileari, Kaxkok: «Eskerrik asko!»
Besteek eginaren jüdikatzen gira laketxko
Gihaturen egitateez pakü gira üsüxko.
Kaxko zen «ttipi-handi bat»: bere bürüa Jinko!
Hura üdüriko bada, ekintü ontsaxko!

BETZULAKO AIZE EPHAILIA
F. H.

¹ *Gure Herria (Ezkürra eta Khüya*, Octobre-Décembre 1937: 318-319. or.). Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia (F. H.). La Fontaineren «Le gland et la citrouille» jatorrizko alegiatik hemengo bertsioa zinez urruna da, baina edukia hor dago.

² «(I) Juron de tournure spéciale, usité seulement en basque souletin.»

3.6. «Gatüa, anddeijerra eta erbittoa»¹

- Apanizeko soraki ordokian,
Zohartihitzak erein zütüan
Izarren nigar txorta txintillazeak²,
Haien huraz, ilarre txintxillañiak
Arraga litean
Lili gaixoñiak.
- Erbittok, kanpoko boztarioari
Eta zelüko haren igorleari
Erakutsi beharrez bere eskerra,
Hartu züan arinik xenda bazterra:
Beitzen ikusgarri
Zonbat zen eijerra!
- Manexetik beitätü beti okerra,
Ziberutar erbittok zeikün ikas:
Behorlegirik jin anddere eijerra
Beitzeion haren etxean jarri nausi!
- «Nahiz ez zen gaztelua,
Maite zuen sor lekua»:
Har lizon bertan kanpoa,
Manatü manex apoa.
- Ihizlariak eta ihiztazaleak
Galtzen zütüela berek hüstü leküak
Ihardetsi zeion, mütürlüx anddereak
Mingarki, elder tzapastaz, zorrotz begiak!
- Musde Mininak³ ebakiko züala zalhe
Zoin zen züzen xüxenean (sic)
Algarri honez honetara emanik ele,
Harengana zirenean
Agertü eta hüilantü gor zelakoan,

¹ *Gure Herria* (*Gathia, andere-eijerra eta erbittua*, Octobre-Décembre 1937: 319-320. or.). Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia (F. B.). La Fontaineren «Le chat, la belette et le petit lapin» jatorrizko alegiatik hemengo bertsioa zinez urruna da.

² Jatorrizko testuan «*txintillaziak*». Hitz hori ez da euskal hiztegiatan agertzen, ondokoa ez ere, «*txintxillañiak*». Iduriz, *txintxila* «*xirrin*» hitzetik eratorri dira.

³ *Minina*: gatua.

– «Marmurak» aztaparrak lantatü lepoan
Bi aharrari bürü mehe enüxenter:
Hetaz egin beitzüan zonbat janaldi eder!

Hanitxek dizüe bürün barnea baleü:
Musak ehaiten jo beharrez Donapaleü!

BETZULAKO AIZE EPHAILIA
F. H.



Bi uhuñac eta astoa

- 1 — Gaiez-gai, bethi traukez, üsstü algarreki
Bazabiltzan, gordez, Maltzur eta Biltzaki :
Zer chedetan, Jinkuac berac ahal daki !
- 2 — Chendan-gañen astoño bat khaussitü,
Bien artian hatzaman eta berentü :
- 3 — Maltzurrec zion feidan saldü behar zuela;
Bilzakic aldiz, begiratzekua zela :
Hortaric khecha-bide gachtua bazela !
- 4 — Batac müthürreko,
Bestiac ostiko :
Bazen ikhusteko-
- 5 — Ari zirelaric : to hic!, eta : eraikac hic!,
Eskükhako, ichil-ichila hüllanturic,
Ihessi juan zen, « Pollo » ebatsiric !
- 6 — Bide okherrez bil,
Ber bidetic gal,
Ez hola ebil !
- 7 — Eskükhako beno
Hobeda orano
Izan eskü-zabal !

BETZULAKO AIZE EPHAILIA.

N.-B. — Maltzur = sournois, mal intentionné. — Biltzaki = ramasse, tout. — Eskükhako = main crochue. — Pollo = nom familier de l'âne.

(B. A. E.).

3.7. «Bi ohoinak eta astoa»¹

- 1 – Gaüez gaü, beti traukez, üsü algarreki
Bazabiltzan, gordez, Maltzur eta Biltzaki:
Zer xedetan, Jinkoak berak ahal daki!
- 2 – Xendan gainen astoño bat kausitü,
Bien artean hatzaman (sic) eta berentü:
- 3 – Maltzurrek zion feidan saldü behar züela;
Bilzakik aldiz, begiratzekoa zela:
Hortarik kexa bide gaxtoa bazela!
- 4 – Batak mütürreko,
Besteak ostiko:
Bazen ikusteko.
- 5 – Ari zirelarik: To hik! eta: Eraikak hik!,
Eskükako, ixil-ixila hüilantürik,
Ihesi joan zen, «Pollo»² ebatsirik!
- 6 – Bide okerrez bi!,
Ber bidetik gal,
Ez hola ebil!
- 7 – Eskükako beno
Hobe da orano
Izan esküzabal!

BETZULAKO AIZE EPHAILIA

N.-B. Maltzur = sournois, mal intentionné. Biltzaki = ramasse tout.
Eskühako = main crochue. Pollo = nom familier de l'âne.

(B.A.E.).

¹ *Gure Herria (Bi ubuñac eta astoa, Avril-Juin 1938: 114. or.)*. Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia. La Fontaineren «Les voleurs et l'âne» alegiaren hemengo bertsioa ez da batere literala, izenburuarekin hasiz. Ikus ondotik Fabien Hastoyek Pierre Lafitteri igorri zion *Chuchentze* testua (Juillet-Septembre 1938: 206. or.).

² Zuberoan, *Pollo* astoaren izengoitia da.

«Xüxentze»³

Betzülarik, 1938ko üztailaren 29an

Jaun *Lafitte* maitea,

Berant etsitüxkarik, esküetaratü dit «Gure Herria». Arrunt so egin dit, ene alegiañi «Bi uhuñak eta astua (sic)» zer itxüratan agertürik zen: mozte eta txainkeridü⁴ badü.

Hirurna herrokatako dira zazpi zatiak. Baionan, bigerren zatiari, azken herroka moztu diezü, eta hura züzün: «Bazterrâ (sic) batetan, hiruak eküratü».

Txainkeridüak nihauk eman dereitzot, «brouillon» okerra uste gabe xahüalat ezartez, ützirik xüxenealatürik nüana astoki saihetsealat. Hamahirurna edo seira zanko behar dizüe herrotek (sic), eta behar nizün izkiribatü:

2 – Xenda baten gainen – eta ez – Xendan gainen

5 – To hik; et'eraikak hik! = Ihesi joan züzün – ez – Ihesi joan zen

6 – Ber bidez gero gal – eta ez – Ber bidetik gal = Ez holaxe ebil.

Domintxiñen (sic) algar ikusten badügü, bürü xahaldi emanen deitadazüt, ene hünzkeriak hantik jelki dakizkadan.

Anartean, Jinkoak dereiküla osagarri, bier, eta «Eskualzale» orori.

BETZULAKO AIZE EPHAILIA

³ *Gure Herria* (*Chuchentze*, Juillet-Septembre 1938: 206. or.).

⁴ Jatorrizko testuan «txaiñkeidü badü». *Txainkeri*-tik («maingueri») eratorri den izen hori ez da hiztegiatan agertzen.

*Alegia*3.8. «Bettan eta Raton»¹

Izan dadin, Bettan, tzimino edo tzakür,
Raton, ez hari beha, balin bahiz zühür!

Gatüak ñar-ñau (sic),

Tzakürrek hau-hau.

Bago egürra süak jaten mur-mur...,

Hur herakian, gaztainak kur-kur...

Hik, aztaparrot,

Zartaz arrabot

Gaztaina horik jauzerazten batük,

Gü ederkitto askaltüko gütük!

Gatüak zarta...

Horak ahatar...

Jin ahala jan...

Zoinek bere lan!

Sükaltean nor sartü da emeki,

Eratzareki ohoiner hüilantü?

Maddik zütüan biak jo azkarki,

Gatütto zen kexüenik baratü!

Mendiz haintüan,

Alegia hau

Irakurtean,

Ez egin ñar-ñau!

Alemana beti izan da tzakür...

Hark erazirik har otoi lan apür!!

Haren lagüntzen ari da beste bat...

Ez deio ützioko muhuri bakotx bat!!!

BETZULAKO AIZE EPHAILIA

¹ *Gure Herria* (*Bettan eta Raton*, Août 1939: 130. or.). Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia. Inspirazioa baldin bada, ez da argi La Fontaineren zoin alegiatik heldu den. Testu hori *Gure Herria*-ren bigarren Munduko gerla beno lehenagoko azken zenbakian agertu zen. Hastoyek alemana aipatzen du, txakurrari konparatuz.

4. NARRAZIOAK

4.I. «Ontsa erabilirik badira, eskuaraz oro bardin eder dira»¹

BAA, baa, Lapurtar eta Baxi (sic)... Nabartar Jaunak!

Ez dut gero, gaineko lerro bakar hontan, kobladura bat egin nahi izan... Ahul airea luke, ahaide direlakotz: badira, eta, dira... Maingu ere litake, uztarturik hamar pikoetako, hameka dituenarekin.

«Gure Almanaka» 1935-ekoan ikusi dut *Koblakarien legea*, eta hartan nago (ahalaz eiki) egiten ditudan lan xume guzietan!

Erdaraz ere badakit kobladura egiten, berehala ikusiko duzuen bezala; eta nardaturik gelditzen bazirezte, iduritzen zautzutelakotz direla, neure kobladura hauk, zuenak baino pollitago, edo direla ... arras zoroak..., erranen dautzuet:

«Bisque bisque rage,
Mange du cirage.»

Ez dut uste kobladura hori, neure haukieri (sic) nausi dela:

«Affalés sur un banc, un soir de Thermidor,
Trois collégiens basques, aux vacances proches
Songeaient, en rêvant à leur pays de blés d'or,
De gazons ombragés; à l'antique cloche
Du petit village où ils virent le jour,
A l'accueil familial si exquisement tendre
Dont le souvenir, en leur coeur pour toujours
Gravé, ne pourrait jusqu'à la mort s'éteindre!»

Hé, hé, hé!... Zer diozu, Aletxandrina, «Alexandrins» horietaz???...

Bainan, nihontik ez dezakete eskualdunek erdara gogoan amets honik egin. Beren aitetametak ikasi mintzaje zaharrean, Manex Lapurdi, Eñaut Baxi-Nabarre eta Pette Zibero hasi ziren elestan. Hiruak ziren zinez adixki-

¹ *Gure Herria (Untsa erabilirik badira, eskuaraz oro bardin eder dira, Juillet-Septembre 1937: 220-223. or.)*. Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia. Zubereraz ez diren testuaren zatiak ez dira aldatzen, zuzentzen baizik.

deak... Bai, zinez adixkide! Eta halarik ere, horra non, goriña beroak zainak gillikatürrik, hantik hegaltatzeko egün ederra etsitürrik, hiruaak gaixki jiten diren! «Kolejio»-ko zühainek, beren osto güzietaz iharan, zaudelarik, horra zer entzün züen:

MANEXEK. – Adizak, Pette Xubero, hire eskuara ergel ustelaz nardatua nauk! Zer duk, Xuberotar kasko arin, herrementa xirxila, hire egundainoko ü-ü-ü-ü-horiekin?

EÑAUTEK. – Sar dakiola! Ni ere okastatea niagoxu. Xuberotar ozpina horien eleketa bitxiaz! Hain duxu maskaroa, non ikuzi behar handia bailuke!

PETTEK. – Ha, ha, ha, ha!... Ikus bazinetzatzüe züen ahoak okertürrik, ezpainak oilo moskotürrik, tzüntzürak hersatürrik, tüa ezin irets barnerat, ez urtuk lürrealat, ari zidenean, ustez gure eskuara düzüela ihiskatzen:

«Xinkü-ü-a, lephü-üa, xü-ü-an ü-ündü-ü-an, etc... (sic)» ikhus zinioie zapartagarriak ziradiela! Holako indarka eta «zimino-mastrika»-rik gabe lein-leina erraiten dügü:

«Jinkoua, lepoua, jouan ondouan».

BESTE BIEK BATETAN. – Guk badugu ou, eta atxikiko ere bai!...

PETTEK. – Gük ere badizügü ou, behar denean ezarteko, eta audela ü, beste züek ez dütüzüen hitz-kuntza (sic) zonbaiteki. Hortago (sic) ez dügü züek bezala (haurrean oroek, gehitüz geroz hanitxek) erraiten:

«Onsss, dousss, treisss, disss-ouit, ênn (sic) chouponnn découssou», udüri Aragunes abarkeroak ziradela!

MANEXEK. – Xuberotar sorgin, zarpail higuina! Ongi antolatzen gaituk! Ator gure ur xirripetarat, amarroinketara. Urriki haut, hire eskuara zikinean hitz bat ere ateratzen baduk han gaindik!...

EÑAUTEK. – Bantxut, Manex! Ez dixut uste gure pentzetan ukan lezakeela jite hoberik, mintzaira horren gainetik...

PETTEK. – Amorroin edo marmarroi... Gainetik edo petik... Ez dit ene eskuara ükatüko, bai erranen züenak beno gorago dela, eijertazünez, aberats-tarzünez, xahütarzünez.

MANEXEK. – Garbia duk to! zuen eskuara... Hara zer dugun ikusten zuen agert'karietan (sic): «*Kriminelik jente bunetan...*²»

EÑAUTEK. – «*Krimoaren probatzeko...*»

MANEXEK. – «*Amoros jeloskorra...*»

PETTEK. – Hi, Manex, oski eta zuragoila (sic) berriak erosi ondoan, ikusi hüanean larrü ahülez, oihal txarrez eginik zirela, ez hintzana oihüz hasi:

² Jatorrizko testuaren zati hori hizki etzanetan da.

«Oraiko *zapatain* eta *sastre* horiek, *mundua enganatzen* ditek maizegi?»

Eta Baxi-Nabarreko koblakari batek, ez ote dña erran:

«Atxikazu *fedea*, maita *bertutea*, *libra kontzientzia?*...»

Hain zizüen azkenekotz mintzoa goratü, non Betzüla Mehekala entzün beinütüan!

Nik ordüan, Marseille hirian erosi düdan «orra-hürrüentzün-erazle-adarra» (*néologisme élégant*, sinon *bref*, qui signifie «*porte-voix*») arren, delako tresnattoa hartürrik, ixilerazi nütüan, hiruer erranez:

«Aski, hots!... Bego hortan!... Itsusi da anaien artean aharratzea. Nolaz ahatze zaizüe, (eta ez züer baizik, ene gain!), eskualdunek oroek anaie izan behar güntükeala?»

– Horra zer egin behar düzüen, hüilantzen ari diren dagün egün ederretan:

«Hik, Manex, eramazkik hire bi lagunak, sortu haizen «*etxe ttikitto aintzin xuri*» hartara, hamar bat egun xoragarrien elgarrekin bizitzera.

– Gero, hiruak zoazte Eñauten herri maite-maite hartara. Hamar egunez ez duzue han edanen «Kolejio»-ko arno kaskoinekotik, bainan bai beraren etxean egin «*Irulegikotik*».

– Hantik, Pettek eramanen zütüe bere sor-etxe-etxau (*sic*) goralat. Beste hamar bat egünez ebiliko ziradeie Orhi bizkarraren, Pixtako turrustaren, Holtzartzeko eta Kakuetakoko arroillen ikustera.

Ordükoz Eskualzaleen biltzarreko egüna beitate, «*Portemantoa*» edo beste «*beribil*» handi bat hartürrik Atharratzen basabürües saldo bateki joanen ziradeie Hazparnerat. Han, esküak emanik, algar besarkatürrik, bereziko ziradeie, eta errekititüko³ bakotxak ziren etxetarat.

– Ziburutarraren (*sic*) kexüa, Baxi-Nabartarraren samurra, Lapurtarraren hasarrea, betikoz ahatzerik dirateke.»

Ez da eskuara (*sic*) ergelik ez ddegütik (*sic*). Ditzagün bakotxak gurea ontsa ikas, gure hurreri ontsa erakats. Bata bestearena egoxteko orde, ditzagün ahalak oro ikas, ezi algarren lagüngei hon dirade... Amen!

BETZULAKO AIZE EPHAILIA.

³ *Errekutitu* «revenir à ce qu'on a quitté. Empr. béarn. *Arrecontü, recoutü*: revenir au point de départ» (Larrasquet, *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*: 104. or.).

4.2. «Pierraren pelota»⁴

PIERRA, sei urtetako gizon zanko lodi bat; boztariotan da.

Hona zerentako. Atzo Aitañi Maulen zen eta ekarri deio pelota gorri eijer bat. Ikusi behar züntüküen haren jauziak, Aitañik eman deiolarekin (sic) gaüza biribil lüzaz egürükia! Ah! Bai! Gogo honez besarkatü dü bere Attatto maitea eta hitzeman manüak beti eginen zeitzola. Bena orai, pelota düanaz gainen, zeren ez ari? Plaza hamar ürratsetan da cta JohaÑe eta Extebe, aüzoko bi ihize hon, hor dira norbaiten haidürü. Pierra badoa her bürüz, bere pelota berria erakusten deielarik.

«Aitañik atzo erosi ditadak Maulen, nik uste... hamar liberarentako.

– Kario bezain hon balin bada, partida gozorik orano egin behar diagü, dio Extebek erriñi batekin. Eia! Eia! Ikus dezagün zer glaska düan.»

Hasten dira hogeita hamarri, Pierra beste bien kontre. Trenpü gaitzean dügü Pierra. Urtunstürük arinago izateko, joiten dü pelota tifli-tafla, ala esküinaz ala exkerraz. Badaki ere artetarik aitzine hartan kintzearen egiten. Hamarretara heltürük, pelota nahi dü orano zinezago jo. Bai bena joaiten da pelota hüxtüz, Dameztoiek igorririk baliz bezala, plazaren gainetik, kantüan igaraiten den erre kala. Ebiak erauntsi berri dü eta hura zalhe da.

Pelota joaiten da bazterretik... Üngürükaz... Junpatzez... Erdi-erdiala eta behera abiatzen. Pierra han da lürretik pelota gaixoari soz. Nahi lüke atzaman. Bena erreka barnegi da. Eta ez zaharo bat ere esküan. Badoa gaüza biribil eijerra, batean gorderik, bestean hur gaineala agertzen delarik.

«Adio... ene pelota... sekülakoz ».

Eta nigarrez hasten da Pierra. Hi ! hi ! hi! Exteberi eta JohaÑeri batere kasürük egin gabe, hartzen dü etxeratko bidea, Aitañiri bere penaren erraiteko.

Bere arrasemea plazan egin ahalak egin pelotakan ari den denboran, Aitañi sü ondoan jarririk da, begiak ülün eta bürüa apal. Gogoan arraigaraiten dü bere gaztetarzüna. Ah! Bai! Hogeï urten altean orai ez bezalako herotsik bazi-ren. Azkar zen, lerden eta zalhe.

Hamabi aldiz arrunt-arrunta Ahüz kiko lasterkaka eraman dü. Kantatzen ere sos buxi bat irabazi dü. Ordüan, pelotakan kartielean bürüzagi zen. Haren denboran, Urdiñarbe beti nausi izan da bota lüzean, nahiz eta bazen jokülari eijerrik Ainharben eta Basabürüan. Borrokan ez zen ihorentako lotsa, Pheti Argintsolez kanpo. Horrekilan zer partidak ez zütüen igaraten (sic) Nabolegiko ordokian, aste egiten züalarekin!

Behin, zerbütüan, adjüdan batekin erauntsi züan, harek berak galtatürük

⁴ *Gure Herria (Pierraren pelota, Juillet-Aoüt 1936: 312-314. or.)*.

eta bost minütaren bürüko, plaf! Adjüdanta lürrüan hedatü züan. Ah! Zer eskü zapartak ez zütüan üken ordüan eta adjüdantak berak, kexü izateko partez, aihari bat ederra eginarazi zeion. Hantik bi urteren bürüan, emazte bat ezinago maitagarria bildü züan eta hamar haur zoin azkarrago hartarik üken. Orai non da lagün goxo hura? Hilik. Non dira hamar haur hurak? Batak hilik. Batak hilik, besteak Ameriketan, seme gehiena bera etxen.

Bera zer heinetan da? Ezintürrik, konkortürrik, deüsen ere ez haboro hon. Ah! Zer bizitzea gizonaren bizitzea. Eta Aitañiren begiak bustatzen dira. Leheneko buknas (sic) gorri hetarik bat sakolatik elkitzen dü eta begiak txükatzen, ihork ere ikus ez dezan pürü.

Hainbestenarekin Pierra sartzen da nigarrez, zipak arintzen.

«Ah! Aitañi, Aitañi, hurak zük erosi pelota eraman ditazüt.

– Zer nahi dük, Pierre maitea, hire pelota, lür hontako beste gaüzak bezala, joan dük. Ezi, gük nahi ala ez, oro, gaüzak oro igaraiten dütük. Soik gerezitze hori. Orai lili dük. Egün zombaiten bürüan, lili horik eroriko dütük, gerezier leküaren üzteko. Gerezia ere, gük edo lürrak, janen dütik (sic). Gerezitze hori, ttipiñi ezagütü diat; nihauk lantatü nüan. Handitü dük; zahartüko, idortüko eta hilen dük. Ni ere hi bezala ttipi eta gero gazte izanik, ari nük zahartzen. Laster hilen nük.

– Oh! Aitañi, zü hilen? Ez! Ez! Ez zütüt nik ützi hiltzera.

– Hire aita eta ama ere hilen dütük. Hiaur ere, hebentik lauretan hogeï urteren bürüko lür hontarik joanik hizateke. Bai erran diat eta arraerraiten diat, oro igaraiten dütük, oro hiltzen dütük!

– (Pierra). Zer gaüza izigarria! Zü, aita, ama, Extebe, Johaño eta azkenean ni ere, hilen! Oro hilen! Oro igaranen! Ezin ditezü, Aitañi. Errazüt lotsarazi nahi naüzüla! Oh! Aitañi, Aitañi!»

Eta Pierra sordei nigarrez hasten da, Aitañiren belaünetan bürüa ezarririk.

«Ez haüt nahi ez lotsarazi, haur maitea, dio Aitañik. Oro hilen gütük. Bena egün batez, oro Jinkoarekin izanen gütük eta gozatüko diagü betiereko boztarioa.»

Pierra, pelotakaz eta nigarrez akitürrik, loak hartzen dü Aitañiren belaünetan. Aitañik amodiorekin soegiten deio eta erraiten dü bihotzetik:

«Oh! Jinko Jauna, egizü haur hau egiazko Üxkaldün bat elki dadin eta egün batez enekin izan dadin zelüan, beti iraün behar düan dohatsütarzüanean. Halabiz!!!»

Pierre JAURY,
Eskualzaleek saristatua.

4.3. «Arto xuritzea»⁵

ABENTÜKO gaü hotz bat da. Aize mehe batek artetarik iharrausten dütü zühainen adar pikarraitüak. Karrua hasi da erorten ekia etzan bezain sarri eta gasna zaharra üdüriko argizagi batek erakasten dütü bazterrak ontsatto xürütürük, nahiz ez ziren orano gaüko zazpi orenak. Horregatik badira kanpoan ibiltera lotsa ez direnak. Ikusten ahal dira Urdiñarbe Etxeberrilat бүрүз joaiten jente andana bat, zombait hüxtülotsez, besteak elestaz, besteak karkazaz. Bena oheko bellopea ez lizatekea aize hotz hau beno hobe? Zer debrü ote da gaur Etxeberrin? Zer den? Arto xuritzea. Hortakoz dira kümitatü aüzo eta adixkideak, Phetiri Etxeberriren lagüntzera gogo honez joaiten.

Etxeberrian builta hontan ari dira arto xuritze hortarat adelatzen, ez izanik ere izigarriko kasü bat. Ülüntzean, etxekojaunak, axkora (sic) handia hartürük, sükübel bat ederra egin dü etxe kantüan erorik zen haitx zahar batetarik, eta ahal bezala ekarri düe Johaüe seme gehienarekin, arteka, bede (sic) бүрүетarik. Sarritako etxekandereak erran deie erri legü (sic) batekin:

«Üsüxeago holako sükübelak banütü, süa aisaxeago egin nirozü!»

Ama süaren atitxatzen ari delarik, gizonek ezkaratzealät⁶ eramaiten dütüe kaxeta atzamanak oro eta arto atea amiñi bat barreatzen düe, arto xurizaleek üken ahal dezaen lana aitzinean bat ere kaxetetarik igitü gabe.

Bertan aihariten dira gaur Etxeberrin.

Gero Maddi etxeko alaba zanko lodiak zartana hartzen dü sükaltarte zokoan eta betatzen berak adesa sabaiti ekarri gaztanez. Amak zerrailükinez⁷ sü bat gaitza egiten dü. Behar ere: Maddiak zartana, krin! kran! Aide debrüan üngüratzen dü, bestelan ontsatto gorri leite eta nork daki, heltü bada ere hurt (sic). Arto xurizalerik gabe ezin deüs egin, aitag, süalat so, pipata bat züzülü бүрүан erratzen dü. Johaüe aldiz han da sedeilan jarririk, sütik hürrün hotz izanagatik, iganteko *Eskualdunaren* ezin erakurriz. Amak doi-doi bazterrazten dü mahain pearen xahatzeko:

«Jeiki hadi hortik, motikoa hire *Eskualdun* txarrarekin. Badakik bai ontsa aüzoko begi gorri horrek ikusten düala gaüz ere sükaltea xahü ala zikin den; eta halarik ere ez hiz nahi igitü mahain pe züek lohixtatü hori errazta deza-dan!»

Johaüe badoa aitaren kantüala, bere *Eskualdun*ean begiak beti lantatürük. Maddia (sic) ari da eküratü gabe zartanaren üngüratzen haidürü noiz gaztai-

⁵ *Gure Herria (Arto chouritzia, Juillet-Septembre 1937: 210-219. or.).*

⁶ Jatorrizko testuan «izkatzilatu», gero ere «izkatz».

⁷ Hitz hori ez da hiztegieta agertzen. Jatorrizko testuan «zerrailükinez»; zerrailütik (hesitik) hartu egurra, puskak.

nak üzkerrez hasiko diren. Sükaltea eskü ahürra bezala xahatürrik, ama badoa ogi pean diren gasna (sic) zaharretarik baten eraxtera (sic) eta gero urde ehaiteko nabela handi batez karrakatzen dü eijer izan dadin emanik izateko eta ez dakion axalean bara zakarrik. Azkenekoz gaztainak üzkerrez hasten dira eta hasian has ez dira haboro eküratzen. Maddiak ordüan debrüaren friuntan zartana erabilten dü, bertanago erra ditean.

Kanpoan Xumix txanpaz gaizten da:

«Hor izan behar düe, dio aitak Johañeri, abiloa, xaian diren ardu ontzi hurak zalhe beta itzak.»

Johañek ardua elkitzen dü, amak gasna hiru zerratan ezarten, Maddiak gaztañak gaitzürüala hüsten, eta aitak borta zabaltzen:

«Gaü hon, Phetiri!

– Gaü hon! Gaü hon, adixkideak!»

Haboroxeak hor dirade, hamar bat, gazte eta zahar, sudür beharriak hoztak gorritürrik, esküak sakolan, aüzoko begi gorria prefoستا aitzinean, ikusteko eia sükaltea eta hanko trastüak xahü direnez:

«Gaü hon, Etxek'anderea!» dioie sükaltean sartzearekin.

Jarten dira kasik oro sü bazterreko bi züzülüetan eta azkenak kaidera elibatetan. Etxekojaunak emaiten deie ardu edatera, ogi eta gasna jatera, eta aski handi beitira, berak gaitzürüko gaztainetararat heltzen dira.

Nausiak so bat egin eta, galtatzen deie:

« Ez düzüeia bide hortan ikusi Jan Pierra Biagütt?

– Bai, bai, ikusi dizügü. Erran diküzü ezkaratz bortatik, berehala horra zela, haurrak eta emaztea ohealat igorteko zütüala.

– Harek beti holako bai! Ozke honean balin bada ez diagü ez gaur debetü behar.»

Jan Pierra Biagütt da Urdiñarbeko dritxokarik hoberena; bere begi okerrek, ttipi eta lodi bezain erriegingarri da. Hainbestenarekin sartzen da Biagütt:

«Alo! Alo! Jan Pierra! Emazte eta haur hurak ohealat igorri dütüka?

– Bai, aspaldin, Phetiri. Bena behar üken dit hora eradan peko errekan, haur hek ez beitzüen arauz egün oroetan aizina. Eta gero, bertan horra benintzan, alorreko txakoste gaixto hortan abantxü neskabi (sic) nüzü. Behar ere bürüa lürraren hüilan beitüt. Seküla hortxek den Etxandí hori bezain handi izan banintz, hain goratik erortearrekin hausten nündüzün!

– Hain zalhe jin hizanaz gainen, egarritürrik izan behar dük. To burrat bat.

– Gogo honez Pethiri. Züen osagarriari.

– Hon deiala!»

Baso ardoa bertan hüstürrik da. Egia da Jan Pierra berotürrik dela, zalhe jin beita. Bena arrestanean ere ez dü ardua batere hügü. Zerentako hügü üken Jin-

koak eman gaüza bat? Ardu ñabar argiak tzüntzürra trenpü honean ezarri deio, ezi beha zitie:

«Nahi deizüet ixtoria ttipi bat ezagüterazi. Altzürüküko apez saintü zena horra zen üda betean, izerdi oro hur, basa bazter batetan eri baten ikusten izanik.

Adixkide batek etxen sarrarazten dü eta galtatzen deio:

«Jaun-erretora, izerdi horren iraganarazteko zer behar zünüke?

– Baso bat ardu, Allande maitea.»

Baso ardua üken bezain sarri, klak! Orai nik bezala hüsten dü. Allandek ordüan erraiten deio:

«Eta orai, hebentik eta etxera ez izertzeko, zer behar zünüke?

– Beste baso bat.»

Eta prefosta galtatüa üken züan.

– Nik, dio Phetirik, beste baso bat emaiten deiat Jan Pierra, bena ez etxerat joan hadin, ene artoak xuri artino pürü. Hüilant hadi gaztaina honetarat, bestelan sarrixe gaitzürüa hütsik dükek hi hartarat ordüko.

– Ontsa mintzo zira, Phetiri. Doi-doi elestan ari nintzalarik, ikusi düit (sic) hor aztapar zonbait zalhe sakolen betatzen. Behar ere ixtoria ttipixka hasi beitüt. Bestelan Mendibürüko emazte zaharraren gisa mente denboraz elestan erauntsi ondoan, ikusiko nizün gaitzürü zola hau, sordei edo pürü osoki ageri. Orai badakit zertako adesa zonbait erriz ari ziren, bat ere erririk egin behar ez zelarik. Ari zütützün bai balinba bere gogoarekin:

– Emak, emak hor, Jan Pierra gaizoa hire Altzürüküko apezarekin, gük arte hontan gaztaina hon horik oro irets ditzagün!

– Tziauri ene kantüala, dio aüzoko begi gorriak. Nik ja ahal oroz baratx erauntsi dit, zuri üzteko.

– Eskerrik hanitx, Gexina. Hortan ezagützen dit zure bihotz hon eta eztia!!!»

Gaitzürüa hüts artino, jarririk egoiten dira, gütik mintzo, hanitx jan. Ordüan Jan Pierra jeikitzen da:

«Au! Orai, gaztainak oro janik, ogiaren eta gasnaren erdia klikatürrik eta ardu tzorta bat ederra edanik, behar dizügü joan arto xuritzera. Ingoiti debetürrik izan behar dizüe, beren nausien gisa, gure haidürü.

– Badüzüeia xiririk? Bestelan ez diat hetarik mentsik. Atzaman itzak, JohaÑe, mantetx pe hortan direnak.»

Bat bera da xiririk gabe. Orai badoatza herrokan ezkaratzealat, Jan Pierra aitzinean:

«En aban match! Ageri dük he! Galon beltz batekin nintzala soldadokan!»
JohaÑek herritatzeko erraiten deio:

«Zer düzü jakintsüna egin nahi heben? Segür ezinago gaizki erorik zira. Joka nirozü ez dakizüla zure galuarekin nola deitzen den Finistereko hiri bürüzagia.

– Uste diat hi bezala deitzen den: Kinper dük!

– Ontsa heltü zaik, dio Petirik semeari; aski hiren ixilik egoitea.»

Eta oro karkazaz jarten dira nor bere kaxetetan, Petirik argi bat ezarten düalarik selaura pean. Karraska gaitzean hasten dira arto xuritzen segür ordü beitzüen. Artoak pikarraitzen dütüe, bürü ttipitik behera peokaren xiriarekin ürratzez. Gero, klak! Hausten düe peoka etxekitzen düan⁸ büztana, peoka gibel urtukitzen eta arto bürüa aitzinean dütüen zare beltz elibatetarat. Zare bat bete ondoan, Johañe selaura bi alde gaineala bizkarrean eramaiten dü eta aldi oroz nabelarekin ozke bat egiten, bortütik zenbera ekarteko makila lüzexka batetan, ikusteko oroetan zonbat zaretza datekean. Xurizaleer kantüko artoa bekantüxe denean, Johañe bürdüin arrestelü batekin ateen gaina iragaiten da eta hantik behar dena behera eratxerazten (sic) dü. Hola atea badoa beti ttipitez, gaüaren aitzinatzearekin.

Nahiz lanean kar izigarriarekin ari diren, ez dirade ez horregatik elestatik eküratzen. Mintzo dirade. Oh! Ez Mousde Lebrunez edo Blumez, bena denboraz zoinen hotz den, üztez eta bihiaz, zoinen apür diren iragan urtekoen eretzean, hots Üxkaldünek mintzatzea üsatzen diren gaüzez. Bena gaüza horik berehala egotxirik dira eta arto xuritzea lüze da. Biagütt han da, ari lehen aldikoz bere beitan zer behar düan erran, ihork ere ez beitaki haboro zertaz mintza.

Bat batetan banba! Arto eder batek zinexko bürü gainean joiten dü:

«Ai! ei! ai! ei! Hau zer aide da? Nork harri kaldüstatü naü?»

Prefosta artoa bera erori da Jan Pierraren burüala; ihork ere ez dü erraiten harek ituki (sic) düala.

«Alo! alo! Xaxi Oihanbürü! Ez dizü ez balio sabeleko min bat atzaman dezazün, erriaren ezin begiratüz. Ikusi zütüt bai eta ontsa ikusi. Üdüri dit zonbait aldiz lo nizala. Bena ekian berotzen den gatüa bezala nüzü: idüri lo eta bat ere ez lo. Haboro dena, gatüak ez düan zerbait badit. Harek ez dizü aldean, edo xüxen edo alde batealat edo bestealat baizik so egiten ahal. Bena nik ene begi okerrer (sic) esker (Jinkoa eta ene aita eta ama izan diteala benedikatürrik), batetan, eta xüxen eta esküin eta exker ikusten ahal dit! Hartakoz badakit zük deitadzüla, Xaxi maitea, arto bürü ederñi hau ituki (sic) eta zer aidean! Badizü bai arrestan holako bat ene bürü handiak eraikirik. Segür nüzü (eta hau Xaxi ez zaizü behar gaitzitä) Pierra Elixalt izan banintz, ez nüala holako adar bat zureganik ükenen».

⁸ Jatorrizko testuan «*diem*»; gero ere «*nutiem*», etab. -e- hori ez da pluralarena.

Ha! ha! ha! Oro karkazaz hasten dira, Xaxi Oihanbürü lehen-lehenik.

«Errazü Jan Pierra, parka izadazüt; ez deizüt haboro itukiko. Haurkeria horren ahazteko, ez zünükea ixtoria bat?»

– Bai, bai, eta bat beno haboro ere zuretako. Hona lehena. Badakizüe nik bezain ontsa, ez düala orano aspaldi lamiñak bizi zirela. Behin, Junes Barkoxe Etxebesteko etxejoauna, gizon lerdan eta azkarra, amañik erran deitadanaz, horra zen bortütik, ez balinba lehentze ez eta ere azkentze. Harbe baten kantüan iragaitean, ikusten dü lürrean orraze ttipi ürrezko bat. Sakolan ezarten dü eta etxera ondoan gordatzen. Gaüan berean, sütondoan bera bere gisa egoiten zelarik, kebiden behera eraxten zaio lamiña bat, emazte gazte bat, ttipi bezain eijer.

«Hik düka Nabolegiko harbe aitzinean ene orrazea atzaman?»

– Ez.

– Hobe dük aitortürük. Emadak berahala, hortarat jinik nük.

– Ez deizüt emaiten ahal ez düdanaz geroz.

– Ontsa dük. Bihar arrats artino.

– Bai arren».

Junes, süa hortürük, badoa ohealat bihotza pil! pil! pil!

«Zer debrü eginen deit orai?»

Gaüan ez zen hanitx lotü. Biharamenean goizik iratzarrik, lehoa (sic) zabaltzen dü eta badakizüeia zer ikusten düan? Bere okolü ederra, gizon baten heina gora, harri handixkaz tapatürük. Berehala gogoala horra zaio lamiñen lana dela. Eta egia zen. Egüna beltz iraganik, ülüna jin eta, sütondoan egürükitzen dü. Mezpera gaüko ber lamiña agertzen zaio.

« Orai ene orrazea eman nahi deitadaka?»

– Bai, orizü, hortxet düzü. Bena ene okolüko harri hoik elkiko tützüe.

– Bai elkiko ditiagü.

– Erran ezazüt Jinkoaz zonbat bazinden hainbeste harrien gaü bakotx güne hortara ekarteko?

– To!... Bedera ekarri diagü eta bedera eramanen diagü.»

Eta lamiña kebiden gora joan zen. Biharamen goizean goizik Junes lehoala badoa eta boztarioekin ikusten dü haren soroan ez dela haboro harri bat ere.»

Heben Jan Pierra ixiltzen da eta oroek harek bezala egiten düe. Üdüri lükee, hek ere, Barkoxeko lamiña haren arrahaurren haidürü direla. Xaxi Oihanbürü, adesako arto itukizalea, lehenik mintzatzen da.

«Alo! Jan Pierra! Zer hastiala ziren haatik zure betiko lamiña debrüen ixtoriekin! Ez dakizüa hoietarat gabe besterik deüs ere?»

– Xaxik ez dütüanaz gainen lamiñen ixtoria hain honkigarriak maite, bi hitzez erranen deizüet zer agitü zeitadan azken asteharte hortan. Egia tipil-tipila entzünen düzüe; gero nahi badüzüe sinetsiko düzüe eta bestelan ützi.

Igantean gogoan iragan nüan Maulerat behar nüala joan, ikusteko gaüzak nola saltzen ziren. Xahalxkot bat banüan igorteko eta orai artino beti erostün debrü horiek sakolan sartü naüe, ez nizalako izan aitzinetik Maule gaineko gorabeheren jakitera. Arren nahi nintzan Maulerat. Bena nola joan? Hoinez? Bidea lüzexko da eta ni zahartüxerik. Bohorrez? Bai, doi ernari handi düt. Norbaiti galta eraman nezan? Ah! Ez! Seküla ez da erranik izanen Biagütt bizkarroi bat dela. Zer egin ordüan? Mitilak, Manexkak diona, pirripitan eraman bahentza? Orai düala bizpahiru urte nik ere ikasi nahi üken nüan; bena itxuski (sic) eror eta bi hortz hautse nütüan eta zalhe tresna tzar hori ützi. Geroztik beti zamari hori hügü üken düt. Bena beharra denean beharra beita, banoa mitilari bürüz:

«Errak, soldata aski handi emaiten beiteiat, ez nündükek nahi haatik Maulerat asteartean hire trastü hortan eraman?

– Bai gogo honez. Bena ez ezazüla erran soldata aski handi düdala; dai-gün urtean ez düzu peirik negü⁹ horrekin Biandan egon nadin.

– Ah! Hori düala to!»

Asteharte goizan, erran delako zamaria ontsa urintatürik, bagoatza mitilarekin biak hoinez, bide berriala artino.

Bidean oro erriz ari zeizkün, üdüri bazakeala ordünko, gero zer agitüko zeikün...

«Eta zer agitü zeizüen?

– Zaude amiñi bat, Xaxi; berehala jakinen düzü.»

Oren erdi bat hüilan iragaiten dizügü ezin, gihau gainen, zamariaren joanaraziz. Ni aitzineko burdüina lüze hartan ontsa jarririk izanik ere, zamari hezkaitza (sic) beti okertzen zeikün, mitilak zanko kaldüa emaiterekin. Eta ordüan mitila aho betez gaizkiz ni nintzala ez ontsa egoiten eta nik ezetz! Gaüzzen xüxentzeko, ez zaizküa lau haur txar kantüala jiten, eta haien erriek sordei ertzoarazten gütüe.

Azkenekoz, bat ere uste gabe, kar gaitzean abiatzen gira. Ez pirripitan trebe izanik ere, üdüritzen zeitan ez ginela ontsa joaiten, ezi bide bazter bate-tik besteala ari ginen. Erraiten deiot mitilari:

«Errak, ez ginatetik ahal hola eskatü gabe aitzinatzen? Ala muda berrian hola ibiltzen dira? Seküla otomobil bat jiten bada, «akabo» gütük, «hor dago» erran gabe.

– Ixilt zite hortik, debrüen gorotz barbalota! Hein horrek ere lanak diti-tzü.

⁹ Jatorrizko testuan «*pellik begu*». Hau ote da? Frantseseko *paie* («soldata») hitzetik?

– Alo! alo! motikoa! Ez hadila gaitz, ixiltzen nük. Bardin gero hik, aski ertzotzen bahiz, bat ere dolü gabe, neskabaziko naük.»

Nolapait heltzen gira Telleiapeko patar tiniala eta ikusten düt patar zolan behi beltz bat, bide bazterrean, behera bürüz, alha ari. Ah! Debrü behia! Ontsa eginen zizün seküla sortü ez balitz. Mitilari erraiten deiot:

«Errak, kasü emak. Ez ginikiek behar hantxeko behi beltz hartan sartü. Heben gainti behera beita, eskuin-exkerka horik ützi (sic) itzak, eta xüxen joan, behitik hürrün.»

Gain-beheran prefosta txoriak beno zaleago bagoatzan. Kükürrükü! Nor gira gü!

Lotsatürik holako friuntan motikoak bürüa gal ez lezan, behiala etxit gabe hasten niz nihau gure zamariaren gidatü beharrez; bai eta ez gira behiari bürü abiatzen!!! Mitilak, ahoa ürratüz, oihegiten deit:

«Gizona eskü hori ken itzatzü (sic) gidu hontarik.

– Ah! Alajintsua! Nahi hüke zankaz gora joan nadin? Gezürra erranen dük bai!!!»

Eta hola aharran ari ginelarekin, banba! Behia joiten dügü.

«Ai! ei! Jinko hona zer aide da hau?»

Builta gaitza ükenagatik, behi maradikatüari büztana atzamaiten deiot eta bizkarreala lüze-lüzea erorten nitzaio. Bena ez düta ber denboran, mitil dohakabe behiaren adarrerri (sic) lotürik zena, zankoez gibela aldean joiten eta zerailü artealat bürüz behera igorten!!! Berehala ene behitik eraxten niz eta lagüntzen düt ene lagün maitea kaparretarik elkitzen. Sarritako erraiten deit bizi-bizia, begitarteko odolen xahatzez:

«Harrigarri düzü bai haatik gero zer gizon astoa ziren! Ez zünüana gidu hori ekürü ützen ahal? Zü bezain bürü ments behar dizü izan bai gizonak, behi batetarik hürrün iragan nahi delarik, xüxen hartan gaina joateko!!! Zük naüzü behi debrü hortan sarrerazi ! Zük deitadatzüt nahar tzarrasta horik oro eraikerazi, ezi zük naüzü üztar¹⁰ ostiko batez zerrailüala bürüz behera ituki. Bestelan aisa egonen nündüzün behi adarrer etxekara. Eta haboro dena, zü ororen ogendanta, deüs ere gabe baratzen zira... Zure astotarzünaekin!! Ah! Egürükitzen ahal düzü nik beste behin zü pirripitan erabil artino. Bena nola dügü orai hura ere?»

Ungüratzen gira, mitila beti gaizkiz, ni erauntseari ixil-ixila para, eta atzamaiten dügü gure zamaria bide arroilan, gidua okertürik ene begiak beno hanitzez haboro eta aitzineko errota lükainka üztarri zaharra bezala jarririk.

¹⁰ Hau ote da? Jatorrizko testuan «uztur».

Behia aldiz etxerat бүрүз badoa txainkü-txainküa.

«Ah ! Txainkü hiza, hizan bezalako urdea, diot nik ere ene kexüaren non-bait barreatzeko, seküla ikusi ez bahündüt pürü eta lau zanko besoak hautserik bahütü aments.»

Hainbestenarekin, behiaren бүрүзagia, emazte zahar bat, hasten zaikü, хүррүntik zer hel ere:

«Zideen bezalako mozkor gorri tzarrak! Merexi zünüküe, pakaraztea ene behi gaixoaren txanküaraztea!

– Errazü, deiot ihardesten, orano goiza düzu eta ez gütützü zü bezainbeste mozkor. Nik südürra hoili dit eta mitilak odolstatürrik, eta ez zük bezala pipera bezain gorri. Nahi bazira joan hede xurietarat hanbat sordei zuretako, ezi ez düzu züzenik zure behiaren bide bazterrean alhatzea üzteko eta zü zira gure eroriaren ogendanta, nahiz gük dügүн egari behar.»

Hortan atso sudür gorriari moskoa zerratürrik, erraiten deot (sic) mitilari:

«Ez dezaala odalari eman; hortxe dük esnekaria; horrekin goiti abiloa. Ni aldiz, Etxebarne hantxek horra beita, harekılan joanen nük Maulerat. Hire zamari hezkaitz hori hartzen diat enekin eta gaur berri-berria Maulerik eka-rriko deiat.»

Errana egin düт. Debrü zamaria etxen da üdüri ez dela orano erabilirik izan. Eta mitila ez düт orai erdi mütür baizik, begitarteko tzarrasta haboxeak joantxerik.»

Ixtoria honen үрrentzeala artino, arto xurizaleak oro erriz etenik dirade, begietarik nigarra joaiten, beren sabeler etxekara, üdüri lotsa direla hegalta ditean.

«Debrü Biagütt debrüa, zer elkitzen deikün. Egiaz edo gezürrez ontsa erri eginarazi deiküzü. Hi! hi! hi!

– Alajintsoa ere bai! Hori egia düzü. Sinets ezazüe nahi badüzüe edo bestelan ütз!

– Alo! alo! Jan Pierra, badakizügü bai, ez zirela gezürter bat. Bena orai ixil zite, bestelan orano bihar arratsen heben gütüketzü, arto horien ezin xuritüz.

– Ontsa mintzo zira, Xaxi; ixiltzen nüzü eta ez dit haboro deüs erranen lana үрrent artino.»

Bai eta hitza etxekitzen dü.

Hamekak eta erditako Etxeberriko artoak xuritürrik dira. Nahiz üda eta larrazken hatsarrea gaixto izan diren, Etxeberri boztariotan da badüalakoз iragan urtean bezain beste arto. Hortakoз dü nahi antsia handiarekin berriz ogi eta gasna har dezaen:

«Ah! Ez, Phetiri, dio Biagüttek, honegi zira. Emazüt, Altzürüküko apezak erraiten züana, baso bat ardu, joan nadin Biandalat бүрүз. Ingoiti han debeatürrik izan behar düзüe ni gabe. Emazte hura balinba ari düзү bai arroila zon-

baitetat erorik, sobera edanik, han ezin jeikiz nizala. Bena oraiko hontan, gezürra erraiten dizü. Züen ororen osagarriari! Daigün urtean ere, jin giteala oro bardin alagera Etxeberrila aurten bezainbeste artoren xuritzera!»

Üken ardua klak! Edanik, kanporat elkitzen da eta besteak harri jarraikitzen dira.

«Errak, Batixta Organbide, aigü hona. Ikusiko dük edo pürü entzünen dük Biagütt zaharrak badakinez kantatzen nahi düalarik!»

Jan Pierra zaharra eta Batixta gaztea badoatza, besapez, kanta orroaz, zinka oniaiaz (sic), hotza batere bogatü gabe. Haien herotsak ez dira ttipi, ezi Garraibi zokoala artean txakürrak oro txanpaz hasarazten dütüe eta lozale hanitx ere iratzarrazten. Bena oren erdi baten bürüko, ez da haboro ez kantarik ez zakürrik ezagün. Oro lo dira batak ohean, besteak lasto meta pean. Ixiltarzün handiengan, argizagiak zelütik argitzen dütü eijerki bazterrak, karru ikaragarri batek Etxeberriko artoak beno hobeki xuritürik.

Pierre JAURY OURDIÑABETARRA,
Seminaria bandian ikasle dena.
1^{er} prix de l'Eskualzaleen-Biltzarra en 1937.

4.4. «Pettiriren lehen astea Zuhurteko olan»¹¹

ARGI txirrinta da. Txoriek, papoak ürratüz, arrapikatzen eta txaramelatzen düe, zühain, tarta eta oihan orotarik. Azkorri eder batek Maidalena küküla sütan ezarten dü. Hor nonbait, Atharratze eta Muskuldiren (sic) artean, oihan bazterreko etxe batetan, bi gizon emazte sükaltean presa handitan dirade.

Astelehena da eta bortüalat joan behar gorririk. Anoa plantatüririk, erran nahi beita biesak ogiz, irinez, xinkorrez, arrautzez, lür sagarrez eta holakoz tin-tinka beterik, aitak espartañak jausten dütü. Ama aldiz ari da bideko jakia-
ren errazten.

Bat-batetan, eskeler bürüan agertzen da Phetti (sic), zortzi urtetako potiko zankosagar lodi bat, laur aurrideren gehiena. Eta zer jauntsian den! Behar ere aita eta ama berak beitira sükaltean. Berainez zalhe, atorrareki berarekin orano zalheago, Phettirek (sic) bizpahiru jauziz eskelerak igaranik dütü. Zer ahalke gabe xara, düzüe erranen! Phettiri oro bat zaio! Ez düea aitak eta amak orai beno pikarraigo ere ikusi, mündü hontarat jin zen egünean pürü? Eta gero, zer egin? Bortüalatko soinekoak züzülü hegian dütü. Züek haren kasüan zer ote eginen zünüen? Amaren haidürü ohean egon bazen, aita hura gabe Zuhurtealat joanen zen!

Nonbaitik ere üküztea gure Phetti gaizoak ahazten züan, noiz eta ere aitak doi ohartarazten beiteio!

Haurra begitartatüririk, asto Pollok biesak bizkarrean, aitak asteke gomen-
düak eginik, «hau düzüla» ama maitea, kantoreak dion bezala, «partitzeko tenorea». Bortü-makila bere bürü biribil lodiareki esküan, Phettiri (sic) ez da bat ere gustüan. Halako tzimiko bat egiten deio amaren etxen üzteak eta indar eginik ere, «hasperena bihotzean eta nigarra begian» amari azken pota emaiten dü. Bena zer! Ez dea bortüzale bat, aste egile bat? Eta erakusteko gizon bat dela, borta gaintitü ondoko, hüxtüz hasten da eta eskü zartaz aritzez, Xumix txanparazten dü. Ama lehotik (sic) so beita, makilaz adio egiten deio.

Botztario (sic) bat da goiz hontan ebiltea: txoriak kanta arrapikotsez ari dirade eta seteme izanagatik, aize mehexka batek odola pitzarazten dü. Xumix badoa büztana txüt, heben ürrinta, han ürrinta. Asto Polloek (sic) ere ürratsa zalhe dü. Phettirik, handi beita, ez dü deüs erraiten. Ata beste ordüez badü ele, hanitx aldiz soberaxe. Iduze eta Mendi bertan gaünditzen dütüe eta Al-
tzürüküko eliza kantüala heltzen dirade. Han bürü egiten düe Altzürüküko

¹¹ *Gure Herria* (Phettirien lehen astia Zoubourteko olan, Octobre-Décembre 1938: 296-301. or.).

apezareki. Beraren xakürra elizalat jin nahi zaio, bena ezpeitü haatik holako beretter beharrik, ihontik ere etxerat haren ezin andatean da.

«Egün hon, Jaun erretora¹²!

– Bai züer ere, aita-semeak. Ari zideia bortüalat?

– Bai, Jauna, bai!»

Phettirik ere бүрүтік estalgia elki dü. Bena apezaren xakürriari sogiten dü, apezari beno hobeki. Zer eperkako ihizor eijerra! Zer бүзтан harroa! Zer ile xuri paregabea, bere ttika beltzeki! Zer beharriak, zer mütürri, zer begiak! Ez dü seküla holakorik ikusi! Xumix horren kantüan deüs ez da bere бүзтан erdi moztüareki. Harena balitz xakür hori!!!

Apezak ikusten dü haurra so eta so:

«Errak, pottikoa, ene ihizorra agradatzen zaika?

– Bai, Jauna, bai. Nahi düzüa saldü?»

Apezak eta aitak erria doi-doia begiratzen düe.

«Badüka sosik?

– Bai, badit musa bat beterik... Xilodünez eta holakoz. Zonbat behar düzü egin?

– Ez dük ehün liberaz petiko ükenen.

– A-la-Jin!!!» dio Phettirik.

«Alajin» hori hain da eijerki erranik, non Altzürüküko apezari ezkapatzen beitzaiokarkaza bat harek baizik egiten ez dütüan hetarik bat.

«Ha! ha! ha!» Phettirik hortan ützen du tratüa eta bat ere haboro mintzatu gabe, badoa Polloren otsamaitera (sic). Gaixo astoari behartzen zaio nahar eder elibat ützi eta... Hiru makila kaska eraiki eta zoin gogorrak. Zer nahi düzüe, Phettirik ere behar dü nolapait bere kexüa egorotxi. Aitak, semea gibelitik atzamanik, apezarekilanko ixtorian nahi dü mintzarazi. Bena ez dizü pellik (sic)! Gure haurra arrain bat bezain ixil da eta segur zitee pottikoñiak zerbait nahi düanean, azkarki nahi düala. Behin (Phettirik erran leikegü ez dela gure egitekoa, bena hots!) aitak behar üken züan zeinarazteko eskeler pean sartü eta ontsa zaflatü.

Naba Handian hasirik Üxia tiniala artino elkigia gaitza da, bereziki ekia bero denean. Orai hala da. Behar ere aitak bizkarrean beitü xahakoa. Zer tinka aldiak ükeiten dütüan Ola Berrietako oihanean sartü ez direno.

Lehen aldian, aitak bezala egiteko, Phettiri hasten da turrustatik edaten. Bena hau da ixtoria! Lepoa, bidarra, matelak, begiak ere besteak beste bustirik, eta ahoalat ez nahi jin txorta bat ere! Eta horien orenen gaintetik, aitaren erriak behar egari! Hitz deizüet Phettiren lehen lana izanen dela ikastea xahakoaren turrustatik edaten.

¹² Jatorrizko testuan «Janartora».

Bena arte hontan behartzen zaio xahakoa murtzatü, Gerexinak amaren titia egiten düan bezala. Murtzatze hori, behar ere, ttipi zelarik ikasi beitü! Bestelan orai zer egin liro? Egarrri gorriareki egon? Gogoeta horiek sordei murtzarazten deie eta ez da bat ere harritzeko, gaina ordüko xahakoa arintürrik balin bada eta bera kaitalotürrik.

Zuhurteko gaineko ola beste olak üdürixka da. Lehenik gora da, erran nahi düt zinez itxasoaren (sic) alde gainean dela. Idorroki mendian da eta kantore zahar batek dio: «Idorroki bortüa Xiberoan gora da». Bekan hantik Pettarealat den bixta ederragorik atzamaiten da.

Phettirik begiak ontsa bazkatzen dütü, aitak arrautzea habian üdüri peko herri hurak erakusteariki. Haatik soa belzten zaio, gibel üngüratu ondoan, etxano xar (sic) bat ikustez.

«Aita hori da ola?

– Bai, haurra, bai.

– Ez düzü hu! Gure etxea bezain eder!

– To, ahal bezala dük!»

Astotegi bat beita sahetsean, Pollo han ezarten düe. Gero borta apal bat olan sartzeko! Heben ere behar lüke Pette Xiberok konkortü eta orano ikusi berri beitüt, ari niz aski ahal lizatekeanez.

Ez da halaxek (sic) lodiegi izatea!

Phettiri pürü apaltü gabe igaraiten da. Aitak erakusten deio atzea: mahain bat, hartan gainen belhar, matalaz zonbait eta munjaro edo ile plantxa elibat.

«Hor gütük lotüko.

– Zer? Ez düzü arauz mihiserik ere! Nola behar da hor atorrareki bera-reki egon?

– Ez hadila lotsa, haurra, soinekoak üzten ditiagü eta halerik ere... Kükü-soek soberaxe usukitzen düe. Ez dezaala uste üken ez dela heben lotzen ahal: ihork ere ez dik artzainek beno lo ederragorik egiten.»

Bazkariteko jaten düe arrautze, lürsagar eta gasna (sic); edari bezala badüe xahako zola. Gero etzaten dirade. Haatik ohea gogortto dü eta Phettiri ez da ahal lotzen. Aita kurrunkaz lo delarik, Phettirek entzüten dü ola kantüan hegal handi herots bat eta mosko glaska elibat. Zer deprü ote da hor? Basa ihize ikaragarri zonbait, hori segürra! Behar ere ez beita tximinariak! Ez da pürü hantik sartüko. Bena ke joangiatik igaraiten bada? Ez, hersiegi da. Bena lepoa aski lüze balin badü atzeala heltzeko? Phettiri, karakoila bezala bibilka-türrik aitari kuntre, beti soz da ke joangiari noiz ikusiko düan agertzen mosko lüze beltz bat eta begi handi gorri elibat.

Aita iratzartzen da, hiru orenetan. Phettirik ez do etxiñi erraiten bere lotseria. Badoatza ardi biltzera; Xumixi esker lana aisa düe. Ber denboran kaleta ütürrian betatzen düe, gaüko huraren ükeiteko. Gaüan ontsa lo eginik, biha-

ramenean goizik düe ardien builtatzea. Aitak nahi dü Phettiri olan ützi. Bai zaude amiñi bat, atzoko basa-ihize hura jin dadin, zu Idorroki kükülan ziralarik! Otoitzeak erraiten dütüe ardien builtatzeareki. Phetiri (sic) behartzen zaio bostetan pürü «Gure Aita» arrahasi; ez da ihontik ere bürüala heltzen ahal. Uste badüzüe, salbürik eta arkaraka horietan, aisa dela batetan ardien otsamaitea (sic) eta otoitze egitea! Ardiak prefosta eküratürük, ahartzartzak aharran, tokakan.

Hau izan da hüilantxe goiz hontako Phettiriren otoitzea.

«Gure Aita... Ardia aigü! Zelüetan zirena... Aharia! Erabil bedi sain... Debrüaren urdea! Ago nik ago mütür beltz hortan!!!»

Eta hortik aitzina ber gaüzaxe. Halerik ere Phettiri segür da Jinko honak entzün düala. Ez düa ote eginahala egin? Eta gero haren ogena da arresak hain oker ebiltzen baziren ere? Orano Altzürüküko apezaren ihizor hura üken balin bazüen Xumixen lagün, ahartzartzak xüxen joanen ziren. Bena Jaun erretor horrek ere badaki erri egiten, ez besterik ez arrestan!

Askal eta badoatza ola aüzoala, Etxekorteala, arres arrotzik badüenez jakitera. Han atzamaiten düe Oihanbüri delako bat, ixtoria baizik ez zakien bat. Atzean jarririk, zankoak txilintxau, oren zonbait igaraiten düe, pipa eta elesta. Phettiri ez da hanitx behatzen. Haatik ixtoria bat ohart etxekitzen dü, llabür bezain eijer, beste ordüzko Biañtt (sic) Udiñarbetarraren hetarik bat.

«Arren Jan Pierra etxerat heltzen da, goizanko bi orenetan: Maulerik eta Garraibira zazpi kilometra dira. Bena Jan Pierrak hamalaur pürü egin dütü, bide bazter batetik bateala eskatzez. Behar ere orano bi aldeetarik beitira mürrüak etxekitzeko. Bestela, zelüko Jinko Jauna, zer eginen züan Jan Pierrak? Arren etxera heltzen da eta kanberan sartü ondoko Jesús! Zer gaizkiak! Bilai-zirik, Jan Pierrak parasoil bat zabaltzen dü eta haren pean jarten.

– Gizon ertzoa, dio zinezago etxekandereak, xahü gaintitürük zira bai? Tziauli (sic) hortik ohealat, segürki tenorea düzü!

– Bego, bego, ene maite-maitea, eraunsi hau igaran dadin!

Eta ele horrek emaztearen kexüa ezitzen dü eta Biañtt ahal da bakean ohean sartzen.»

Ez da aski pipatzea eta ixtoria entzütea, Phettirik eta aitak behar düe orano joan arresen biltzera. Ülüntzeko ola aide gaineala dirade. Kantatzen ari delareki ardien otsamaitean, bat-batetan Phettiri jiten zaio gogoala:

«Orai hireki den aita hori egün batez, heltü bada laster, hilen dük. Haren korpitza lür pean ezarriko düe eta errauts bilatüko dük.

Zer gaüza izigarria! Zer eginen dü amak? Ordüan zer eginen dük hik? Zer aita hona den! Haatik bunet kaldü zonbait artetarik emaiten ditik. Bena ez dütüka merexitzen? Eta ez düa bunetareki joaiten, esküareki emaitzez ez min sobera egiteko?»

Eta haur dohakabea nigarrez hasten da. Behar ere üluna beita eta aita hürrün! Ber denboran aitak oihegiten deio:

«Phettiri, zer dük ez kantatzeko?

– Deüs ere, aita!»

Eta bi begietarik nigarra turrustaz joaiten, Phettiri arrahasten da kantatzen zelüaren görenetik eta ez da eküratzen ola bortala artino.

Neskaneguna ez zaio goizegi jiten Phettiri gaixoari: ama, aurrideak eta etxea arraikusi nahi gorrian da. Anoa prefosta oro janik beitüe, ahal da Polloren gainen joaiten Üxian behera etxerat artino. Ez dü astoak murmuzikatzerik; üzten dü Phettirik nahi den ürratsean. Haatik, makila kaldü bat emaiten deio Altzürüküko apezetxe eretzean, han zalhexka igaraiteko; ezi ez dü ahatze bortüalatkoan üken ixtoria. Zer boztaria etxerat heltzean! Hitz deizüet gure potikoa joaiten beno argiago zela amaren eta aurrideen besarkatzean.

Badü hamar urte pürü Phettiriren lehen asteak Zuhurteko olan. Geroztik aita maitea hil zaio; eta bera orai Üxkal Herriko (sic) ikas-etxe handi batetan da apezteko. Xiberotar hanitxek harek bezala egin dezaela, beren eta Üxkal Herriaren honarentako!

Pierre JAURY,
Ourdiñabetarra.

(Eskualzaleen-Biltzarrak 1938an sariztatua).

4.5. «Tzintzarroskak»¹³

BEHAR ERE ez düe herroka horik eroriren «Eskuara» ezagützen ez düan baten aztaparren peala. Bestela aide gaxto ikusi behar dü, ezi haren lehen-lehen elea hau izanen da nitan gainen:

«Oitean arren ertzotü deia mutiko hura holako izen moldegaitzaren bere lanxkotaren bürüan ezarteko?»

Jakin ezazüe hatsarre-hatsarretik «tzintzarroskek» izena moldegaitz badüe ere, ez dela izena beno molde hobeago. Ezagütü behar dü hortako aho-balla azkarki büilürstatürük üken, ihontik ere kordoka edo txurdunpa aiderik gabe. Tzüntzürrak eta mihiak ere behar düe hein bat laster erabili, nahi ez bada galerazi edo arragaititü (sic) hain bortxa jinerazi düen hitz horietarik zonbait.

Orobat, lehen harrieria igaitera üztez, nork nahi edirenen dü izenaren errotik desegitez. Zer mila goihen izaten ahal diren tresna horik¹⁴. Prefosta ageri den bezala, «tzintzarroskak» tzintzarrirekin egiten dira: herotsa itxusia-go (sic) eta tzintzarroskak ederrago. Lan horri lotzaleak haboro-haboroetan mutiko gazteak dira; ez dira bestalde egünaren erditan hasten zer hel ere. Nahiago düe ülün ñabarrean gaübelen gisa beren solazer hasi. Ez dezazüela uste üken ere nontik nahi ari direla herots egiten: etxetarik hürrünago eta nahiago dira. Egüberriz elizako kantore batetan arrapikatürük landa arrunt ikusten dügü artzainen ahoetan galto hau:

«Eta noren dira herots horik oro?»

Gisa berean irakurzaleak galtatüren deit nor diren herots itxusi horien bizkarrean karreazaleak. Ez dira gure mutiko gazteak aski enüxent noiznahi eta nori nahi gaüz arranba helez (sic) hasteko. Egiten dütüe «tzintzarroskak» noiz ere alargün edo alargüntsa bat arra ezkontzera beitoa... Noiz ere beren mutiko gazte lagünetarik bat anartino bizitzea arrunxka eramanik, ezkontzeko hitzetan beita... Edo noiz ere (eta heben dira hamar tzintzarrosketarik bederatzien abioak behar txerkatü) neskatila arrunt bat, ontsa bestetzaz erri eginik, azkenekotz ezkont nahia beita. (Azken horietzaz gira mintzatüko).

Orai ontsa xendan jarri girenaz geroz, goazen tzintzarrosketan gaüen xehetarzün zonbaiten bila.

Diotenez bada Xibero hari behera neskatxa eijer eta miragarririk. Horgatik hanitx ordüz zonbat nahi begitarte arraro eta korpitza llerden ükenagatik, egon litazke arrenkürantik gabe; gosejankin etxe zonbaitetako etxeko alaba handi edo prima badira, hanbat sordeis. Ezi büxtangorriak ez dü ützioko astoa

¹³ *Gure Herria* (*Tzintzarroskak*, Septembre-October 1931: 467-473. or.).

¹⁴ Jatorrizko testuan «boiak».

kabastürrik gabe. Minbizia bezala sarrerazi nahi ükenen deie haien baitan emazte batetan izaten ahal diren hiru bihotzaren etsairik handienak: gaxotar-züna, handditarzüna eta, haien bien hume (sic) gisa, tzarkeria. Mutikot aññ gaxto elibatek laster beren tzarkerier jerraikerazten (sic) dütüe erran den neskatila aipatü horik. Eta hola lagüntüz, hattanen¹⁵ dohainak laster zohiterazten haien berean. Bestalde hein hortan gillikatürrik, etxeko seme edo primo (sic) gisakoek ez düe deüs ere egiten ahal hiru eritarzün horien bihotz haietarik jauzterazteko, eta... haien leküen hartzeko.

Bihoatza mutiko behar bezalakoak, etxearen beharretan, neskatila haien lagünetako galtatzera. Segür dira sanpillus¹⁶ edo killibet bederaren egiteaz... Hots, nahiago badüzüe, goroximako arrautzeak bezain mehe eta merke arragibel igorriarik izateaz.

Bena behinko eskaldün xaharraren errana, egün batez, gisa hortako neskatiler jausten ahal zaikie: argizagi betetik landa horra da hamost irian xüxen argizagi berria... Halatan bizpahiru mutikori südürren erdiala erri egin badeie, nekez laugerrenari eginen deie.

Ontsa ezagütü direnean holako neskatila bat engürüneko (sic) mutikoek bakerik ederrenean üzten düe. Egitate horrek, aldiz, pefosta etxekoer arrenküra ederrik emaiten:

«Zer düte (sic), gogoan erabilten aitetamek, holako primak ez düa otean ihor ere ükenen? Arren gure etxondoak behar dira kaparstoi bilatü edo esküz kanbiatürrik izan? Ez düa arren gure alabak ihor ere edirenen senar hon bat egin liriokenik?»

Gerokoz, horra non, urteen kostez, agertzen den prima hartara gixot Biarno hortarik (Zer ez da handik horra?... Arren üdüri lüke han dela Xiberoko belhar gaxtoen sabaia). Erran gabe doa gixotak, nor nahi izanagatik, galtoa laster hon hartüko düala. Aitañi gureak erranen zeion:

«Besterik ez denean, haxeria errege» edo orano «Nahiz biarnes ere... To... Gabea da beltzena».

Holako berria karrika batetan hedatzen has bezain sarri, gaü ber hartan badoatza hanko mutiko gazte zombait erran den jaunkillotaren aholkatzera: lehen beno lehen südürra xaha dezan, eta bere hobetan ützi neskatila tzar hura denarentako ekürü-ekürüa... Bai, bena oroek dakigüenez biarnesak бүрүа gogor... Eta bereziki ezkont errabiak beren sorgoaz (sic) düen menüx aidea bortiztenago...

Dena den haboro-haboroetan mutiko gazteak arra etxerako bidea hartzeko hon dira ele hoieki:

¹⁵ Satan.

¹⁶ Sanpillus S. «Saut périlleux, cabriole» (*Orotariko Euskal Hiztegia XIV*: 534. or.).

«Züek nahi ala ez neskatila horeki ezkontüren niz.»

Azken ele hoiek ez dütüe inganutzen Xiberoko gazteria; ordüan botz-botza hasten dire (sic) algarren artean:

«Hola nahi badü puttikot horrek, ordüan bakotxa bere egitekoer ariren gütük... Ezkont bedi arren, gük txülatüren dioagü.»

Biharamenean berean hasten dire batak munaka moldatzen, besteak küso beztitzten... Prefosta beren etxekeo gordailüz. Parrasta bat badoatza geroko egünean karrikaz karrika Larraine eta Sant-Azia (sic) artino metale, tzintzarri, txintxa, txintxirxkot eta küsküllot jesaitea, jakinik Basabürü gain hortan direla kabaler ezarten zaitzen kalabarik hoberenak. Ez düe horregatik ahazten berek dütüen herots egiteko tresna oroen üxtiratzea. Etxauetan diren mutiko gazteek ekarten dütüe hazku baratzeko dütüen tütütak oro. Zonbaitek, lotsaz ez dezaen üken aski tresna, behi adar elibaten xilatzez lehen-lehen herots egiteko gaüzak hola ükeiten dütüe.

Ez otoi uste üken ihork ere tipiñüsirik zotikatü gabe üzten dütüela besta hoietako. Hots, hitz batez erraitera, mündüko «müsika» ederrenak bezainbeste tresna biltzen düe. Horregatik ez düe den mendren arrenküratürük eia ber herotsa egiten düenez tresna haiek oroek... Eia ber goratarzünean ari direnez... Eia nola behar züen batetan has eta batetan ürrentü... Ez eta ere zer aide behar düen eman. Hortarik ikusteko da zer herots elkitzen den hainbeste tresnetarik, bakotxa bere gain eginahala hasten delarik. Ezagütü behar dügü ez dütüela mutiko gazte haiek, bereziki oren hartan, gure aipatü «müsika» eder harien gidariaren ber nahiküntek; ezi heben herotsa handiago eta itxusiago, eta tzintzarroskak hobe eta ederrago. «Müsika» eder haien gidari zonbait «tzintzarrotser» beha agit baledi behin zer südür hüstürük, zer üztarrostikoak ez litikiron igor ezin han egonez... Ailezae haietarik zonbaitek pürü holako herots zonbait entzün, zainen eztiarazteko.

Zer jente irusak aüzoak eta ezkontzale gaztearen etxeok! Ezi ihonko erregeak nihoiz ere ez dütüan üken ohoreak haiek badütüe hamabost bat egünez... Eta horik dohainik! Eztei egün hamost bat egün lehen hasirik, gaü güzi oroz mutiko gazteak ari dira ülün nabarretik aitzina goizanko bi orenetara artino tresna tzar tarrapata bati bere eginahalaren emanerazten. Zer txülariak hek Kattalin! Eta orano eztei egünetan pürü ixilxe balite... Azkenean ez lizazte ahalkeak handien handienetarik, neskatilaren etxeok eta aüzoek baizik ez dütüe entzüten (nahiz aüzo gisa karrika edo herria ezarten ahal den), hots senargeiak eta hürrün diren askaziek ez lakikie deüs ere... Bena badakie ontsa neskatilaren etxen, orano ederrena gibelean düela... Ahalkeak tzüntzürraren erditik beharko dütüela gaintitü... Ezi eztei gaüetako gazteriak begiratzen dütü solazik ederrenak.

Lüze bada lüze egürükitzea, gerokoz haatik ter-ter agertzen direla eztei egünak: neskatilaren etxe oro trahola, oro boztario, ezi egündanik segür dirade aitzina ere etxaltea ontsa joanen dela, badükiela etxeko jaun gaztea... Bestalde haien boztarioa beste gaüza bat eta ere axtitzen da (zertako gorda girinio?), hebetik (sic) harat ez zaie beren prima «mutxurdin» baratüko. Egün hartan, gogotik ahalaz hürrün etxekitzen dütüe gaüaz jinen zaitzen ahalkeak... Horrez segür dirade, ezi betiz geroz «tzintzarroska» izan denetan eztei gaüetan ziren herotsik handiena egiten, eta bestalde aüzoetako mutikoeak batek ere ez düe honartü nahi üken «tripeo»¹⁷ jiteko kümitüa. Horrek erran nahi dü xüxen orok batean gei beren lanari ari.

Ülün nabarretik laster «tripeo» gisa agertzen dira hantxek-hortxek ez herriko mutikoak bena bai küso parrasta bat, batak lürrean txüt-txüta ontsa zürkaxtatürük, besteak zühain pünza zonbaitetan gaübeleer eta hüntzer zühain adarren ebaska. Ezteliarrek aiharia ürrentü bezain sarri kanpoala agertzen direlarik, lehen-lehen bixtan (sic) ikusten dütüe küso hurak... Arrunt hobekienak bixtala jiten zirenak elkitzen dütüe... Bena onddoen gisa haiek gorda ahala agertzen zen bat-batetan lürpetik. Gaü güzian noiz ere argizagiak sarjelki bat egiten beitzüan bi odeien artetik, bizpahiru edo lau munaka berri agertzen ziren. Bena orano, beihoatza küso, munaka edo nahi dütüzüen belagile itxürak... Ahalkexkot bat gorabehera ez düe pürü ihor ere arnegaerazten, ihori ere ogenik egiten!

Bat-batetan tipinütsü tzar baten asto orroala ihardetsi düe alde orotarik zer nahi herots itxusiak. Aments erranen züen büxtangorria ezarri zela bere esküpeko beste deprü txar oroeki etxearen engürüan (sic)... hain zen arranba tzar. Mutiko gazteak ahal ziren leküetan kokatürük, batak mendi pünttot batetarik, besteak bestaldeko kükülatik ari dire (sic), ari gibelerraiek eman ahala aideen beren herots egiteko tresnetara igaraiten. Badira ere bakant elibat hantxek hortxek heremendail¹⁸, küso eta piper ezarten... Zer hel ere ez ziren sobera etxearen hüilan egoiten, ezi ez dira mengoa handik traje zonbaiten garkotxetan behera üken. Herotsik handiena eta itxusiena igaran denean, koblak hasten dira batean etxekojaun gazteari bürüz, bestean etxekoer, bena bereziki etxekandere sarzaleari.

Agitü niz horren doia «zintzarroska» zonbaiti beha. Bena begi egizüe ene beharriek egar ahala üken züela lehen-lehen kobletarik... Hain ziren xotilki eta xahüki hontürük!!! Ez ziren gatz beharrünerik kats izateko. Ez dadin otoi ihor ere kexa ez badüt heben ezarten kobla molde hon haietarik zonbait. Prefosta

¹⁷ «(1) ‘Tripeo’: Jeunes gens invités uniquement à s’amuser aux nocés pendant la nuit.»

¹⁸ Hitz hori ez da euskal hiztegiatan agertzen.

ihor ere ez zelakoz nahi izan ezagütürrik, bakotxak egin ahalaz botza kanbiantzen züan ahalaz pardalloterazten¹⁹. Kobla bakotxaren ürrentzean arrunt tzintzarriak eta tütütak arrahasten ziren.

Herots handi haien oroen erditan eztegiarrek ez züen solaz lüzerik... Bere-ziki bi ezkontzale gazteer, (hebetik (sic) aitzina senar-emazte gazteer) esnau-rak, sartü zeitzen... Eta begi egizüe ez zela nahi beno lehen jin Musde Aillan-deren²⁰ jeikitzea eta harekilan, edo hobeki erraitera hura etxit gabe, «tzintzarrosken» ürrentzea.

Ez niz mintzatü neskati-la gazte nolaxka nahi bizi direner egiten düen «tzintzarroskez» baizik... Pentsatzeko da besteer (alargün edo alargüntsa) egiten zaitzenak ere ber gisaxetako direla, ber jenteek, ber tresneki, ber denboretan eta ber molde hontarzünareki eginik.

Horietaz mintzatzea haütatü dü, zeren Xiberoan izaten diren «tzintzarroskik» haboro-haboroak horientako beitera. Mutiko lagün bati zonbat nahi tzar izanagatik, gazteriak ogen hanitx ützi-zen deio igaraitera, «tzintzarroskik» egin gabe... Honen beste bat emaiten badeie; alargün edo alargüntser ber gaüza, lehenik arrenküratüko dira algarren artean zerbaiten igaiteaz, eta halaz dirü buxi bati esker «tzintzarroskak» ke eta errauts bilatüko dira... Bena deüsetan ere ez düe neskati-la arrunt bati bere tzarkeriak ahazteko.

Zer pentsatü behar dügü «tzintzarroskez»? Lehen-lehenik erran behar da badüela beren honkeria. Haien beldürak jente gaztea txütxeago etxekitzen dü, hala-hala ere etxekoer, beren gazteen eretzeko begiak zorrozkixeago eratxekitzen. Arruntener ere ez dütüe etxit ützen egitera, bestela eginen zütüen tzarkeriak oro.

Prefosta bada gaüza gaxki den zerbait ere «tzintzarrosketan». Bestela arrunt elizatik aholkatzen ahal litazke jente güziak «tzintzarroska» egitera. Bena gaüza gaxto haïetarik elkitzen direnak aisa janik dira honkeriez.

Zertako hasi niz herroka horien egiten? Zeren eta libürü baten irakurtzen ari nintzelarik, ikusi beinüan hartan nola «Napoleon-en» armadetako gidari gehien bat mintzo zen «Eskual-Herriko tzintzarroskez». Hona zer erraiten züan, düdarik gabe, fransesez (sic):

«Que c'est beau, que c'est original, mais... Pourquoi tout ce bruit?».

Noiz ere erran beitzeioen Eskualdunek (sic) zertako eta nola egiten züen «tzintzarroskak», hona nola ihardetsi züan:

«Que ne doit pas la jeunesse basque, conservée si pure, à cet amusement d'apparence si malfaisante!».

¹⁹ *Bardaildu* «étonner, surprendre» (Lhande, *Dictionnaire basque-français...*: 860. or.).

²⁰ «(I) Le soleil.».

Eta erantzüteko ele horik ützi zütüan ahotik elkitzera. Behar ere ez zakiala Eskuara (sic), ez eta ere ez zütüala ezagützen «tzintzarrosken» egiteko tresna haien izenak. Bestela merexi lükean bezala, egin liroala bi herroka «tzintzarrosken» oritzapenetan.

Arraseme zonbait balin balü jaun harek, gogo honez erran neikeio egün:

«Jauna, moldegaitzkeria saihetsealat ütüziz, nitarik honart itzazü zure aitañi zenak hain eijer ediren zütüan gaüza elibaten gainen herroka zonbait.»

J.-B. MAZÉRIS.
Barkoxtar aphezgeia.

4.6. «Maskaradak»²¹

«AIUI UHUHU» mendi baten maxelatik igorri zinka beste mendiak aranzten dü basa bazterra gaintik odeiek dünda erabilten düen bezala. Laster aranak nahi züan txoria iratzarrazirik beste zinka mingar batek ihardesten deio lehenari oihan zoko batetarik, haren ondotik beste txotx erdi batek, batak zahü besteak pardailo (asto bakotxak bere marraka).

Üskal Herria ezagützen ez düan arrotz zombait neskanegün gaü hoi ez kanpoan agitzen bada harritürrik dago zer mila sorgin den holako herots itxusien (sic) egile, arrunt gogoalazten zaio eia gerla gorria ote denez herri haietan. Zinkaz algar konprenitürrik laster basa ostatü zombaitetan kausitzen dira hogeita hamar bat edo berrogei bat mutiko gazte. Han ardu ñar bat edan ondoan hasten düe hitzartzen ihautiriko nola xüti ahal litiroen maskaradak. Perduantza parrasta baten bürüan bati oroek emaiten deie haütaxken egiteko züzena, arren hura oroen bürü izanen da: aski ikerkatzez eta ahalaz liñki (sic) galtatzez bakotxari zer üdüri zaion, nor bere kargüan gerokoz kokatzen dütü. Bakotxa bere etxen, lanek den mendren denbora üzten deien bezain sarri, laster barrükiala joanik hasten da frifat doblen ahalaz arinki emaiten edo xerraren ahalaz eijerki erabilten. Ülüntzez bereziki lanak ürrentü ondoan, etxekanderea aihariaren adelatzen ari den denboran, sükalte erditan bizpahiru anaie ari dira piko, antrixat edo frifat zombaiten hontzen. Aita aldiz züzülü hegian jarririk batean bati bestean besteari aholkü emaiten:

«Mutikoa beso horik ekürü etxekitzak. Hik aldiz, Allande, bürü hori altxa, ez beti hire zankoer soz konkortürrik egon.»

Arte hartan maskaraden bürü jarri dena ez da lo: bizpahiru lagün hartürrik, herriz herri doa ihautiriko iganteztako kümitü ala; heben herriko gazteriarri zorretan direla zeren haiek lehen düala urte andana bat kümitatü zütüelakoz; hantxek maskarada abioez eta ekeiez espanta parrasta bat eginez... Hots ihautiriko iganteak oro eskü aitzine hitzemaiten dütü, hanbat hobe ihautiria lüze agitzen balin bada.

Neskanegün gaü güziez, ürrentzealat aldiz bortxa balin bada beste gaü elibatez ere, arrakutitzen dira hitzartü lekü batetara trebaxetako. Ihautiriko lehen igantean jokutzen dira beren herrian: ohorerik handiena beti harentako. Bestalde ez badira ere trebe-trebe oraino han da lehen-lehen ikasgia, ezi herri-taretarik ez düe aholkü eta batzarri hon baizik... Holaz eginahal bat eginik eta

²¹ *Gure Herria (Maskadak, Juillet-Août 1933: 298-310. or.)*. Ondotik *Haborokina Maskadetako-dantzen aidiak* eranskinean zortzi dantza-musika notak ematen dira : I. Arribadak, II. Ekuian emaiten den dantz-aidia III. Gudalet dantza IV. Jaun-andere-laborari-laborarisa-en dantzak V. Chorrotchen aidia VI. Buhame jaunaren dantza VII. Kauteren aidia VIII. Kerestu dantza (311-315 or.).

herriko zaharrez lagüntürik geroko igantean prest dirate aüzo herriala hegaltatzeko aztalak arinik eta gogoa ez errautsetan. Goazen haiekilan harat, jerrai-ki (sic) ditzagün ikusteko :

- I. Zer batzarria ukeiten düen, nola eta zer jokatzen düen.
- II. Zer kanbioa düen leheneko eta oraiko maskaradek.
- III. Nontik eta zer gisaz horra diren maskaradak.

I

Meza nausitik landa, hatsak elkirik zoin lehenteka badoatza haurrak karrikako azken etxearen eretzeala. Herri aüzoko maskaradak han dira beren jaunfutrekeier azken eskükaldüen emaiten. Haurrek badakie arras ontsa ez düela halaxek igaraitea ützi behar kanpotiarrek ikusi gabetarik eia hon direnez herri aipatü batetan agertzeko. Lehen beno lehen zerrailü bat egiten düe algarri esküak emanez, haidürü noiz ondotik ttuku-ttuku jinen diren herriko jente handiak eta bereziki mutiko gazteak. Laster bazter orotarik agertzen dira haurrak ezin heltüan etxekitzen zütüen herritar gehitüak, xaharrak okerturik üdüri aitzin karga, ezin nahi bezan (sic) laster helt, gazteak llerden eta büriak gorarik, beren bi lagün beztiarazirik bata gatü, bestea xerrero, haien ondoan biribilkatürük heltzen dira batzarri honaren egitera kanpotiarrer. Haurrek egin zerrailüen erditan ezarten dira bizpahiru mutiko pitxer bat ardu eta godalet zombait esküan. Maskaradakariak behin edan eta hasten dira, sentotürük zerrailüala hüilantzen ere bai. Xerreroak aitzinean dantza piko eta frisat harrigarrikoeki, xerra lazgarriko aidean erabilten düalarik, üdüri esperez, üiliz edo bühiliz beterik dela, haren saihetsetik buhame jaunak bere lagün xotil eta eijerreki polbora erreaztez eta aizeari edo eltxo zombaiti zurrezko ezpata kaldüz, laster erran den zerrailüen erdian pasü bat egiten düe eta hantik nahi bezala, urdeak alorrealat bezain igaiten karrikalat.

Hona non zerrailüan gainti igan bezan sarri aitzinean ebilek (sic) büri egiten düen bera üdüri tresna elibat: herriko gazteriak igorririk, hor dira gatüa eta xerreroa jauzi harat jauzi honat, üdüri ahari elibat kexü gorrian, artaldean sartü diren arrotzen ohiltzeko abioan.... Bena ez dira üdüri ziren bezain kexü, ezi aski hüilantü direlarik beren xenideer haien herrokan jarten dire (sic), ber püntüen emaitetz; lekü eginerazteko eta behar den leküala kanpotiarren lagüntzeko xedetan jinak dira. Plaza hegiala heltü gabetarik orano bospasei aldiz zerrailükot elibati tümatzen dira, bena ez dira lehena bezan zail, alorreko keheilen gisa berak zabaltzen dira bi xerreroen hüilantzeari, prefosta buhame jaunari eta beltzeriari beharko düe eman drago bat züntzürren bus-tatzeko.

HABOROKINA
Maskadetako-dantzen aidiak
I. - « Arribadak »

Berria : Khambiamentia

Haborokina (J.-B. Mazéris), 1933ko Uztaila-Agorrila: 311-315. or.

I. Arribadak (311. or.)

Karrikan sartzean hasik herriko plazala artino horra dira dantzaz «heldüda» edo «arribada»-en emaiten (aidea n^o I)²².

Lehenik herritar errezebizaleen xerreroa eta gatüa bide bazter bederetarik; haien ondotik kanpotiar ber kargülantak. Xerrero gisa, haboro-haboroenetan ezarten düe mutiko azkar eta gotor bat, dantzari haütarik: ezpartiña arineki gretak²³ oro txintxila ttipiñiz beterik, galtza xuriak jauntzirik, zaragoilak beltz balusez herrokak zilar, gerrikoa txintxaz beterik, kasabeta bizpalau koloretako eta bürüan bunet gorri eta xuri küküla lüze batekin. Harrigarriko aidean horra da bere eratz üdüri tresnari zer nahi keinü moldegaitz eginaraziz... Bahestago eta hobe ondokoen, ezi harek eginerazi leküan behar düe besteek ebili eta dantzatü. Xerrarekin batean dago gatüa beste bide saihetsean, izena düan kabalea bezain arin eta zalhe, zaragoila xuriekin tzintzarrik gabe, esküetan düan zurezko tresna batean lüzatzez, bestean llabürtzez, jenter zer nahi erakusten deie, bereziki bühürri jentto elibati txapelak edo bunetak gatü püntan har eta goiti urtukitzez edo beste zonbaiti biloen iraurtzez eta orrazen jauzeratzez: dantzari arina eta trebea hau ere.

Haien gibeletik horra da zamaltzain gorria, eder beno ederrago, saldoko dantzaritarik haütüa, beno txo gük salatü gabe badaki berak hei! Errege handienarena beno ederrago den koroa²⁴ bat bürüan, hoinetako xuririk beste bi lehenek bezala, zaragoilak xuri, kasabeta gorri, gerrikoan estekirik ekartzen dü zamaria, mihimenez eginik eta oihal gorriz belaünetarano mandolatüririk²⁵. Zamaria mütürretik etxekitzen dü eskü bataz ez dadin sentot eta besteariki azotexkot bateki gibebaldia artetarik gillikatzen; zonbat nahi largo izanagatik ez dü bidea oro sobera bere üzküjauzien hezteko.

Haren kantüan ezti-eztia keinü handirik gabe kantiniersa doi-doia ageri da, saio llabür bat belaünetara eraisten. Txapel saihets xabal bat bürüan, jarrakiarazten dü ontzi txar batetan, bizkarrean trebes, zamaltzainaren zalarea²⁶. Üdüri lüke bere piko xüxeneki eta frifat arineki zamaltzainaren baheskeriak ahatzerazi behar dütüala, gatüak xerreroarenak egiten dütüan bezala. Lau horik «gehienak» deitürik dira, saldoko dantzarik hoberenak direlako aitziñean ebilteko ohorea badüe, eküratzen diren leküan üsüenik agertzekoa ere bai. Hürrüntxeago lauzpabost ürrats arte agertzen da «entseinaria», zaragoila beltz lüzeak bedera aldetan herroka xuriekin. Kasabet beltza aüzapez baten gisa, arribant gorri bat bularren gaintik ezarririk, batean eskü batez bestean besteaz bandera iharrausten dü, egiten dütüan keinüez abantxü erran nahi lüke :

²² «I. - Arribadak»-en musika notak jatorrizko testuko 311. orrialdean emanik dira.

²³ Greta «Botón, polaina» (*Orotariko Euskal Hiztegia VIII*: 843. or.).

²⁴ Edo *koba*. Jatorrizko testuan «*kbogua*».

²⁵ «Envolver, enfajar» (*Orotariko Euskal Hiztegia XII*: 76. or.).

«Sogidazüet eni ez beste salbaje horier, beste jenteen gisa bestitürik izana-gatik ez niza ederki dantzari?... Gibeletik dütüdan ertxo andana hau oro ene esküpeko da, arren büriaren eta banderaren gora etxekitzeko züzena arauz badüt!»

Zer ertzo saldo dü gibeletik? Bixtan den bezala «küküileroak», hamar edo hamabi, biazka dantzaz eta jauziz, oro gorriz satan arropan bezi. Hor dira bereziki besteen lagün bezala, noizpaiko xaharraren erranetik «ezin besterik egin» edo hobeki erraitea «deüsetako ere ez hainti».

Nork ere nahi beiti begiak bazkatü Xiberoko dantza eijerrez, aipatü horier behar dü sogin, ezi egin ahal oroz ontsa dantza düe gogoan, bena hor ase dadin dantzaz ezi gibeletik horra diren hazianda arruntto da. Erdi dantzaz erdi keinü mikaletetz²⁷ jerraikitzen (sic) zaitze hiru «mañitxalak»²⁸ büriüzagia eta bi mitilak, kasabet gorriak, zaragoila xuriak larrüzko dabintiäxkot²⁹ bedera soinean, büritik bunet gorri lüze bat tzilintzau, estrükesa eta marteilüak esküan; nahi ala ez, behar dükie zamaltzainari zanko zolak arraberritü eta ontsa itzatü. Batx-batxa handdizki, büria gora, korpitza txüt, hona «jauna» ezpata saihetsean, makila etxekide ürrezko bateki, gerrikoaz goitiko jaunsdüra arrain büztan bateki, txapela txüt, «andereari» besoa besapetik igaranik. Haien gibelean laboraria bunet xabal, zinta gorri, xamar eta eskalanpu ganzolatüeki, pertika esküan. Solazkan ari da laborarisarekin.

Biarnes nahas-mahas batetan mintzo edo hüxtülutzen ezagün dira laborarien gibeletik bi «kerestuak», balusezko zaragoila eta kasabet llabürñieki bezi, oski tatxetadün animale elibatetan zankosagarrak oro hartürik. Gero zorrotz harri baten pusatzez ter-ter hüilantzen dira «xorrotx» mitil büriüzagiak, koblakaz jente hon oroer galtatzen deie otoi zerbait lan eman dezaen, behar dütüen tresnak oro xorroxtüren deitze, nabela, haixtür, ezpata, txapel, oski, makila... hots zer nahi. Beti miseria kontatzez dabilta, baizik eta ihontik ere egünko egünean jente xehea ezin bizi delakoan. Hona aldi güziez emaiten dütüen kobla miseria kontatzeko:

«Xorrotxak erran dizü egia handia
Nekez bizi dela laboraria
Bai eta nekezago xorrotxeria
Ez düe ez irabazte pintuaren saria».


²⁶ Jatorrizko testuan «zalbaia» = zaldalea.

²⁷ *Mikalet* «garnement» (Lhande, *Dictionnaire basque-français*. . . : 731. or.). Palayek *micalét* ematen du: «Miquelet, sorte de gendarme espagnol. Sobriquet des gens de Baliros. . . désigne aussi un enfant joufflu» (*Dictionnaire du Béarnais* . . . : 672. or.).


²⁸ *Mañitxal* = *marexal* (*Orotariko Euskal Hiztegia XII*: 86. or.).

²⁹ *Dabantia*, *dabentia* «tablier de femme» (Lhande, *Dictionnaire basque-français*. . . : 194. or.).


V. - Chorrotchen aidia



VI. - Buhame jaunaren dantza



VII. - Kauteren aidia



V. Chorrotchen aidia VI. Buhame jaunaren dantza VII. Kauteren aidia (314. or.)

II. - Ekuian emaiten den dantz-aidia

Zaharra

Musical notation for the 'Zaharra' (Old) version of the dance tune. It consists of five staves of music in G major and 2/4 time. The melody is written in a single voice on a treble clef. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests. A repeat sign with first and second endings is present in the third and fifth staves.

Berria

Musical notation for the 'Berria' (New) version of the dance tune. It consists of four staves of music in G major and 2/4 time. The melody is written in a single voice on a treble clef. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests. A repeat sign with first and second endings is present in the third and fourth staves.

III. - Gudalet dantza

Zaharra eta Berria

The musical score for 'Gudalet dantza' (III) is written on six staves in treble clef, with a key signature of one sharp (F#) and a time signature of 2/4. The melody consists of eighth and sixteenth notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line and a fermata over the final note. The word 'bis' is written above the second and third staves, indicating a repeat or a second ending.

IV. - Jaun-andere-laborari-laborarisa-en dantzak

The musical score for 'Jaun-andere-laborari-laborarisa-en dantzak' (IV) is written on five staves in treble clef, with a key signature of one sharp (F#) and a time signature of 2/4. The melody is more rhythmic, featuring many eighth and sixteenth notes. It concludes with a double bar line and a fermata over the final note.

III. Gudalet dantza IV. Jaun-andere-laborari-laborarisa-en dantzak (313. or.)

Jaunari ezpataren zorroztera joaiten direlarik hona zer dioien:

«Orai ene mitila haigü laneala
Zorroztü behar diagü jaunaren ezpata
Zorrozten balin badügü behar den bezala
Harek emanen dikük guri soldata».

Herritarren bihotzaren gillikatzeko, prefosta, herri orotan ber koblak:

«Herriz herri bagoatza aspaldi handian
Ihon ere orano ez gük ez günian
Ediren mündü hontan holako herri bat
Jente xehea ontsa karesatzen züan bat.»

Kantatzen eta dantza jesto batetan ari dira oroek ezagützen dügün aide batetan (aidea n° V)³⁰.

Heben hasten da bigarren kentea, erran nahi düt buhame jaunaren hazian-da: buneta eta arropak zoin zapartagarriago, ohe estalgi, malta, ile dabintia, kotapillot edo arrideü muzinkaz eginik haboro-haboroetan kalamü zaküz betatxatüririk. Egiaz udüri lüke buhame jaunak oihan zoko zerbaitetarik ezkapirik leheneko basajaunen arraseme zonbait dela; süzko xefauta bizkarretik gainti ezarririk, larrüzko biasa bat soinen gainen, oihü arranbaz doa bere zurezko sabre tzarrareki bazterrak oro hautse edo ohiltü beharrez...

Bena gauden bakean, ezta üdüri bezain gaxto, emaitze txar bat gorabehera aisa da haren biltzea. Jaun horren hazianda abantxü bera bezain moldegaitzki bezi da, süzko xefauter txanpa eragiten laket. Bena polbora beltz erreaztez herotsa mina beno handiago iraültzen düe³¹, ezi ihor ere ez da plañi traje³² tzirrista bat bizkarretik gainti ükenik. Ez düe buhameek deskantzatzeko lekü xüxenik; nola behar lizate ekürüan egonerazi aujameot horik? Nahiago dira harat honakan ari dantzarien parean alegia jente bazterrerazten düelakoan. Izena karreatzen düen jente kentea bezain hügügarri dira, ezi gure karriketan gainti dabilzan egiazko buhameak ere mündü oroen bizkar behi leküz kanbio dira. Buhame jaunaren ertzexean dago zamaltzain beltza, kerradez eta inkatzez arropak, zamaria, begitarrea eta beste tresna güziak beltzatüririk; ihontik ere ez da nahi zamaltzain gorria beno gütiago agertü. Bere zazpi eginahalak eginen dütü ahalaz xenide gorriri amor emanarazteko: beltzeria oro buhame jaunaren esküpean izanagatik, mikalet arraio honen edertzeko da.

³⁰ «V. - Chorrotchen aidia»-ren musika notak 314. orrialdean emanik dira.

³¹ Jatorrizko testuan «ialltzen».

³² Traje «perdigón, grenailles» (*Orotariko Euskal Hiztegia XV*: 288. or.).

Azkenekoz orotako arruntenak «kauterak», jauziz, dantzaz, zinkaz eta kantatzez horra dira besteen ondoan. Herriko astorik txarrena jesanik tirerazten deie lehergarriko orga elibat, errotak mihimenez, sabelak aihenez, axa zurez, alde güzietarik tzilintzan ageri düe ontzi zahar tzar parraska (sic) bat, tipina, ferreta, bürdünkasola, zartegina, zartan eta nik dakita zer. Haien oroen betatxazale «Pitxu» kauter mitila, mündü hontako tresnarik zapartagarriena eta prefosta herriko mutikorik itxusiena (sic) eta moldegaitzena.

Haien kantüan ixil eta xüxen «bedezia» mitilarekin, jakitate handiko gizona eritarzün güziak errotik sendoerazten dütüana. Aho gozoaren azken gei ützi düe «bizarregilea», berak alde batetako bizarra leintatürik, bestekoa huntitzeko, ote epaiteko dailü zahar bat bezain handi den bizarnabela bat esküan, goraki aitortzen dü bihotzaren erditik oroen zerbütüko dela.

Kordamüsa hau dantzaz eta keinü gaxtoz heltzen denean aüzapezaren edo herriko gehienen etxe aitzineala, «arribadaka» ützirik, biazka algarri büruz jarririk, emaiten düe halako aide arin eta airus batetan (aidea n° II)³³ dantza berezi bat. Erran gabe doa dantzarien etxe aitzinean eküratürik ükeiteko ohorea hartü düanak edo ardu trükü behar dütüala saristatü. Beti «arribadakaz» azkenekotz heltzen dira herriko plazala, arrunt «bralearen» egiteko, jauna, laboraria eta zamalzaina, kümitüz kümitü doatza etxe handitako neskatila gazteen bila. Ber denboran beste maskaradakariak, beren haütüak eginik, algarri esküak emaiten dütüe eta süge lüze baten arabera harat honat jenteen arte-tik «entseinariaren» ondoan üngürü parrasta bat egiten. Üngürü horiek dantzariet pausatze-ko denbora inkarü bat emaiten deie, jenter jokülariek ezagützeak egineraziz joküetan parte harrerazten eta azkenekoz buhamer oihal zarta bat astokeriaren egiteko abantaila emaiten. Branle haustearrekin xerreroak ezkapatzen dira plazaren erdialat, han beren eratz üdüri tresneki jauzi harat jauzi honat hatüa honterazirik jenteer, egiten düe maskaradek untsa jokatürik izateko behar düen leküa.

Leküa egin bezain sarri xerreroak hatüa hontzen dü üzteko dantza txista baten emaitera jaun, andere, laborari, laborarisak (aidea n° IV)³⁴. Net izertü gabe badoatza lauak jartera itzalpetik dantzariet hobeki sogiteko. Hebetik (sic) aitzina haier büruz emanik izanen dira dantza eta keinü güziak.

Bederazka dantzari hobexenak agertzen dira hatsarrean bezain sento; üzkü jauziak gero eta arin, zamaltzaina horra da lehena (aidea n° III)³⁵. Jaunaren aitzinean bizpahiru üngürü egin ondoko manixalekin bürü egiten dü, zonbat nahi üztarrostiko emanagatik azkenekoz esküalatzten düe eta aztaparrak arra-

³³ «II. – Ekuian emaiten den dantz-aldia»-ren musika notak 312. orrialdean emanik dira.

³⁴ «IV. – Jaun-andere-laborari-laborarisa-ren dantzak»-ren musika notak 313. orrialdean emanik dira.

³⁵ «III. – Gudalet dantza»-ren musika notak 313. orrialdean emanik dira.

gantzari³⁶ lotzen. Ordüan debrüen büztanari estekirik balitz bezain aide gaitzean hüilantzen da godaletari eta han, jenteak oro harriturik, etxekitzen bai godaletaren kantüan bai godaletaren gainen emaiten dütüan püntü atrebitez: hanbat sordeis godaleta irail baleza ezi orozbatkoz zamaltzaingatik jauz leite, ororen errigei izateko! Haren ondotik txerreroa, gatüa, kantiniersa, entsenaria, bizpahiru küküilero eta zamalzain beltza godalet dantzari lotzen dira (beraidea n^o III); gero kerestuak, xorrotxak, kauterak horra dira beren eginahalen erakustera... Prefosta beti buhameen aldi saihetsetik aritzeko.

Ürrentzeko «arribadakaz» arrabiltzen dira algarretarat güziek «mutxikuen» emaiteko. Gero aiharitara joaiten bakotxa kümitüa üken dion leküalat, ezi herriko jente bihotz apalek ihardesten düe gogo honez xorrotxaren azken kobla honi:

«Orai jente maiteak beha zitadie,
aiharitara zihaurek kümit ziradie
gü saristatü nahi bagütützüe
nork züen etxeretat har gitzatzüe.»

II

Üskal Herrian goxo zaikü beti leheneko zaharren gisa egitea, haien ürratser jarraikitzea. Haiek egin edo erran dütüenak Jinkoaren manüak bezain azkarki gure bihotzean barna sartürrik dira, eta hala nola ez beileite tzakür baten larrütik elkearaz ahal ilain bat tzakürraren larrü muxia edo odol kotera zonbait kentü gabe, halaber ez litazke gure burasoek egin edo erran zaharrak gure beitatik elkearaz ahal gure bihotzean barnetik den muxiaren eramaitez baizik. Halere jakintsün handien erranetik mündü hontan gaüzak oro beren izatez kanbiakor dira; den zailenak edo bühürrienak hau edo hura galtzen dü denborareki besterik zerbaiten irabazteko. Egia da hori ezi leheneko txostaketan edo egiteko maneretan beti begiratzen badügü ere gehiena, ekeia, zertzaz ere eginik beita haren pasta, edo bere gisakogoa (jakintsün batek erran liroienaz «süstantia») aisa ezkapatzera eta galtzera üzten dügü, den txostaketan, saihetsetikoak, harrogoak edo betatxüak (ber jakintsunen erranetik «accidens»).

Arralot gitean maskarader bürüz: libürü edo izkiribü apür ützi deiküe leheneko zaharrek horietan gainen. Aski üxtiratzez edireiten dügü Francisque Mixelen «*Pays Basque*» delakoan eta Oihenart mauletarraren «*Notitia Utriusque Vasconiae*» deitü libürüan aipü llabür eta ttipi elibat. Behar ere geroxeago Augustin Xaho atharraztarra eta Sallaberry Mauleko notari ohia ñapürtürikago ziren txostaka horietara.

³⁶ Jatorrizko testuan «arragantzo». *Arragantzetx* «traverse longitudinale d'un char» (Lhande, *Dictionnaire basque-français*. . . : 69. or.).

Badira maskaradetan betiz gerozko kargüak eta haien ontsa joanarazteko manerak, ihork ere ez dü züzenik den mendren gaüzaren kanbiatzeko. Ikusten dügü A. Xahok izkiribatürik «*Voyage en Navarre*» deitü libürüan nola zabiltzan maskaradak düala ehün urte (1836). Eraküsten (sic) deikü lehenik xerreroa galtza bata xuri, bestea gorri, bestainez oraiko maskaradetako ber tresnekin. Gero artzaina txotx erdi bat, ardieki, haien gibeletik hartza dantzan; gibelxeago apezküpüa astoxkot batetan zankargoxka... Bihoa apezküpüa ahal eta nahi den bezain hürrün, ezi ez da heltü bada ontsa maskaradetan haren leküa (nahiz ez lükean behoztopatzeko arrixkü handirik), artzaina, arresak eta hartza dolügarri ziren maskaradetarik itzaltzeko. Haatik aspaldixkan itzaltürik emen (sic) dira, ezi Sallaberryk izkiribatü züan düala berrogei eta hamar bat urte ez zela ihon ere haboro ageri bigarren tanda hori: oraiko maskaradetan kantiniersak leküa hartü deie.

Gatüaz Xahok ez dü deüs ere erraiten... Orobat izkiribü zahar elibatetan ikusi izan dü «Sohütan» gatüaz mintzo ehün bat urte düan maskarada elibatetan (1841). Bestalde Salaberryk goraki eta xüenki erraiten dü «gatüa» aspaldiko arnesa dela maskaradetako jokülarien artean.

Zamaltzaina betiz geroz maskaradetako aharik ederrena. Xahoren bigarren libürü baten irakurtzez («*Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan*») aments erran ginirio ikusi düala egünko egüneko zamaltzain bat. Izigarri eijerki erraiten deikü zamaltzaina zer eta nola ari den eta bereziki zer soineko dütüan. Ber libürüan mintzo da ere küküileroez. Salaberryk dio maskaraden edertzeko eta zamaltzainaren lagüntzeko satan arropan bezti dela.

Kerestuak, kauterak, xorrotxak, manixelak, doi-doia Xahoren gogoan sarjelkia egiten düe... Ez deikü erraiten haietzaz, izentatzen baizik. Bena Salaberryk gozatz bezala, xeheki bildü dütü haien jausdüra, txostaka eta dantza aideak. Badakigu bestalde Salaberry jaunak 1868 eta 1870en artean egin zütüala leherka edo ikerraldi horik, haütatzen zütüalarik hortako Barkoxen, Sohütan, Altzürükün, Altzaien eta Atharratzen etxautes xaharrenak eta gaüza horietan barnenik eta üsüenik saltsatürik izan zirenak.

Axaletik txinkorraren kotaina karrakatzetz teiütarzüna elkitzen den bezala, hala hala ter-ter maskaraden saihetsetiko zikinkeria elibat joan dira. Heben eskerrak bühürtü behar dütügü Üskal Herriko erretor xaharrer, bai eta ere zentzü handiko jakintsün zombaiti, ezi haier esker orai güziek arrastiri goxorik igaraiten ahal dügu maskarader soz, saihetsetiko tzarkeriez giharen bürüez ahalkerazirik izan gabe. Aspaldian ez da agertü buhamesarik, ez haur sorzalerik, ez besterik herrietako plazetala; amuinenak ere lehen oro marraka eta tzinkurta horra beitziren besteen gibeletik, sos ebaska, aspaldixkan galdürik dira (non ere beita ez beitzen ihor ere ofizioa joanerazi nahi züanik).

Egünko egünean kerestuak dantzan eta arraileriakan nahiago dira ariz, eziez beren ofizioak emaiten den (sic) eginbideen egiten.

Hobe segur hola!... Etxek ditzagün gure burasoen txostaka eijerrak oro, bena balin bada xoko moldegaitz edo tzar zonbait ez dirate dolügarri tililikaz (sic) joanik erreka zolan ilortzen edo larrützen badira. Libürü zahar batetan ikusi düt lehenago «arribadetarik» landa «gigantek» eta «basa andereek» dantzaten zütüela «Bolant dantzak». Orai izenak eta oro ahaterik dira Xiberoan, ihork ere ez dakie (sic) zer diren dantza horik, haboroziz ez eta gigant eta basa andere dantzariak.

Leheneko eta oraiko maskaradetako xehetarzün horietan ikusten dügü nola izigarri kanbio güti hartü düen; dantzen eta koblen aide, xehetarzünak edo kanbioak ez beítira ihontik ere izkiribüz ezarten ahal. Ürrantzean «notaz» ezarriren dütüt haier bürtüz bakotxak ikus dezan nolaz aideari ber lastertarzünaren eta ber «mesuraren» üztez nota zonbait leküz kanbiatürik izan diren.

Erran gabe doa, Üskal Herrian girenaz gain, soinüleriak xahü üskaldünak direla, lehen eta orai berak: txüla (sic) eta tabala.

III

Nontik horra dira maskaradak? Den mendren düdarik gabe eta mihian bilorik gabe beti goraki eta azkarki erranen dügü gureak direla, egiazko gure herriko txostakak: hots errotik üskaldünak. Ihork ere ez deikü ez dela hola aitortü ahal izan...

Noiz hasi da Üskal Herriko gazteria maskaradakan?

Batzuek erran deikeie Frantziako nahaskeria lazgarrian, erran nahi düt 1790-93an, lehenka egin zütüela, erakusteko nolaz herriko ofizio güziek behar züela algarreki batitü... Apezküpü, artzain, kaüter, kerestu, buhame edo kagot, jaun handi eta laborari... Hots oro bardin eta algarren artean bata besteari esküak emanik behar züen bizi, alorretako ogi bihiak bezala nahasirik, oro ber heinean. Ordüan hasirik, gure gazteriak lüzaz etxeki nahi üken lüke bere bizimoldea, azkenekoz nahaskeria hori txostaka gisa izan lizake:

«Soegizüe, deiküe erraiten, azken proba gisa, laborariaren eta jaunaren dantzako aidea mila zazpiehün eta lauetan hogeita bederatzüko Frantziako ützüli gaintitik horra da «*Ça ira*» delako kantoretik ...»

Udüripen eijerrak badüzte hola mintzatzeko, orobat izigarri aisa zaikü üdüripen horier bühürtzea, eta behi batek apo bat egiten düan bezain aisa, proba txar horien lehertzea. Erran den Augustin Xaho mila zortziehüneko haurra zen... Galtegin züan (berak dionaz) ordüanko zaharrer maskaradak noitzazdaniko txostakatzen ziren Xiberoan, *oroek*³⁷ erran züen ez zakiela deüs

³⁷ Jatorrizko testuan «*oroek*» hizki etzanetan da.

ere xüxenik hortan gainen, betiz geroz ber gisa ikusi zütüela... Ata zahar haiek gaztetzarzüna igaran üken züen erran den 1789ko nahaskeria beno lehen, ber ütüzüligaintiak jin gabe erauntsi züen maskaradakan... Ordüan ez da egia 1789an hasi zirela Üskal Herrian maskaradak. Bestalde aide batek zombait aldiz zerbaiten ikerkatzen ari girelarik xenda hon batetan ezarten ahal gütü, bena hanitxetan aide bati josi proba ezdeüs da edo okerbide gisa zerbütxa leite. Jaun-andereen dantzako aidea kanbiatü ahal üken düe maskaradakari zombait; ez baziren aide zaharraz kontent, den «*Ça ira*» eijerrago ediren badüe, hala nola xorrotzek «*Au clair de la lune*»-ena hartü beitüe eta kauterek azken urte horietan aide berri bati musurkatzen ari beitira. Hala-hala lehenkoek ere aide zaharrari herexak eta oro galtzera ützirik, ihoni ere baimenik galtatü gabe «*Ça ira*»-ren aidea hartü üken behar düe.

Francisque Mixel izkiribanoak maskaraden erroak nahi dütü ezarri hamaseigerren mentean edo behar bada lehentxe. Haren ustez jaun-andereak lehenagoko gaztelü edo jauregi handitako bürüzagiak lirate, herriko besta edo beren gisako besta handi batez, herria oro kümitatürük beren egongiala, parte har liroie herritaren artean txostaka batetan. Holaz lan bakotxari emanik den jente künteak bere solaza egin liro jauregiko jaun-andereen aitzinean. Baitezpada Francisque Mixelen ustekeria ez da gaxki moldatürük. Hau baka-rrik ihardesiren deiot: Üskal Herria eta bereziki Xiberoa beti izan dira libro; jauregi edo gaztelü güti zen eta denetako bürüzagiek ez den mendren züzenik jente xehearen eretzean: «*Per la costume de toute ancienetat observade et goardade, tous los natus et habitans en la terre son francs et de franque condition, sens tache de servitut*» deikü erraiten «*Les coutumes générales du Pays et Vicomé de Solé*» (1592an eginik).

Xahok uste üken dü «zamaltzainak» leheneko Nabarrako «chevaleria» oriteraz liroala, «jaunak» armadetako bürüzagi osa eta herriko jüje gehiena, laborariak aldiz jauregixkotetako nausia edo herriko aitun ttipi zombaiten semea. Dena den aitortzen dügü Sallaberry mauletar zenareki eta haren ondotik ez dakigüla deüs ere xüxenik. Üskaldünek sortzaroz eta mintzajez xahü galerazten dütügünaz geroz jakintsün handienak, ez da harritzeko gure txostakez eta bürasoen (sic) bizi moldeaz ere zentzorditürük ützen badütügü. Segür dena hau da: pastoralak eta maskaradak kasik bat eginenez beti dabiltzala Xiberoan, eta ontsa gora igaran behar lükeala haien hatsarrien edo zainaren edireitera doanak.

Egün batez Montmorency aitonen seme aipatü batek üskaldün bati gainetik behera so gaxto bat egiten zeiolarik erran izan zeion:

«Badakika hei, puttikota, mila urte badüala Montmorencyeriak odol gorri eder hau zainetan karreatzen düala?

VIII. - Kerestu dantza

Berria

Allegro

bis 3f

VIII. Kerestu dantza (315. or.)

Aiei gazte zirade oraino... zeion ihardetsi üskaldünak, gük üskaldünek urteak milaka algarretan gainen biribilkatürük ere, ihontik ez dügü adinaren bazterra hatzemaiten (sic) ahal.»

Bendüraz (sic) müga haren hatzemaileak zerbait sala leikegü maskaraden hatsarrearen gainen... Gauden haidürü.

J.-Bte MAZÉRIS

Lan eder hunek « Eskualtzaleen Biltzarreko » leben saria irabazi du.

4.7. «Ziberuan Dantza»³⁸

JINKOAK daki zer lanak dütügün ihauteari bürüz!

Zonbait gizon gaztek lo güti egiten düe, eta amets hanitx kaskoan erabilten...

Ata laborarientzat negüa bezalakorik ez da gozoki lo egiteko: üdan pausüa doi balin bada ere negüan bada ausarki, ülünetik bertan ohealat joanik bihamenean argia agert artino ...

Eta ontsa egiten düe besterik ezin eginez. Gure etxen sü ondoan libürü zonbaiteki egon nahi denak bertan entzünen dü psalmüa: eia hortik ohealat kandra erratzen egon partez!...

Egia da Jinkoak egin kandra argian ontsa lanean ari denak aski egiten düala.

Gazteak beti lehenak ohealat, eta azkenak lanealat! Gaixo ama zaharra aldiz ontzi xahatzen eta josten, eta bihameneko jateko prestatzen; besteak ohealat igorri ondoan bera beilatzen! Ez dakit nik Ziberoko emazte zaharrak (eta agin (sic) gisa horrez gazteak ere zahartüko dira) zer kentez eginak diren! Haien osagarriak aztalpetako larrüak bezain gogor izan behar ahal dü...

Gaur aldiz zer berri ote dügü? Etxeko jaun gaztea kaseta irakurri ondoan ohealat joan partez sü ondoan dago zerbaiten behara (sic), eta marka ez düala hortik zotikatzeko (sic) abiorik hasten da pipatzen. Badügü zerbait berri... .

Eta doi-doia hau pentsatü ondoko hüxtü mehe bat entzüten dügü kanpotik, eta sartzen da borta alde barneala aüzoko motiko bat, eta eskalanpuak borta kantüan ütsirik (sic) jiten zankoen sü ondoan berotzera.

Hartarik landa beste biga jiten dira, eta gero berriz beste biga: lau satanak eta gatüzaina; ez dügü falta kantiniersa eta txarrerazaina³⁹ eta zamalzaina baik. Non ote dütügü? Egia bada ere arsaldoa handixko düe eta ardi hanitx jeixteko badüe... Bena, txu (sic), heben dira.

Etxekoandere zaharrak so beltzik egiten deie. Zer ote dü gogoan? Gaur kandra hanitx erreko dela? Ala uste dü semearen dantzako bildü nahiz jin zaitzola lagün gazte horik?

Kandra ez düt erranen ez dela erreko, bena zonbat nahi dantzari hon izanik ere gizon bat haurrak ondolik bateanean ez da plazalat agertzen.

Bena gazteek behar düe ikasi. Parabalaut⁴⁰ zonbaitek erran direlako Ziberoko gizon gazteak sortü ondokoz dantzari zirela, badira uste direnak maskarader bürüz hola-hola abiatzen dela txürüla baten ondolik...

³⁸ Gure Herria (*Ziberuan Dantza*, Janvier-Février 1930: 7-10. or.).

³⁹ Txarrera hitza ez dago hiztegiatan; txarrerazaina txerreroa da.

⁴⁰ Itxuraz bearnesa, hitz hori hiztegiatan ez da agertzen.

Eta plazan ikusi ondoan gizon gazteak goma bezala jauzten txingiliz eta hatsik galdü gabe zombait jentek pentzatzen (sic) düe gizon gazte hurak gomaz direla!

Bena ez dakie zer kostatzen den hola zalhetzea, eta dantzan ikastea! Ene partetik denbora hanitx eman düt frisat dobleen ezin bildüz! Bena seküla bildü düta ere?...

Hamar urtetan hasirik gizon gaztea hasten da ikasten: igantean plazan ikusi dütüan püntüen bildü beharrez igaraiten dütü asteak. Eskolalat joaitetz, kabalen hotsamaitez (sic) ari da maskaradakan; pertika txarrera bezala edo zamari bezala joanen da behien ondotik arribadakaz.

Igantez han heben lagün zombaiten etxen biribilka eta bata besteari erakasten düe, eta Jinkoak daki zombait barrikada hautseko den egün hartan.

Ülün ondoan beha zite: txürüla bat ezagün balin bada dantza ahaide zombaiten emaiten ari dükezü...

Eta hamazortzi hogeï urteak hüilantü ondoan, besteak soldado edo eskontürrik (sic) direlakotz, jin beitzaië aldia, gure gizon gazteak sartzen dira maskaraden büri.

Zer bihotz tximikoa! Herriaren aitzinean plazan agertzea, herriko dantzari zaharren aitzinean satan dantzaren emaita, besteak izan diren bezain beste izatea, hau gazteen ooren ametsa Ziberoan!

Ez dakit nork erraiten zeitadan ziberotarrak sosaren ondotik zabiltzala dantzan. Sosaren ondotik! Zer gezürra! Eta hala balitz ere nontik lukee sos esperantxa?

Harat honat doatza herri aüzo eta erresuma aüzoetan gainti, eta soegileek espantua franko badüe, bena dirua güti largatzen! Eta heltü bada hola hobe da ere!

Ttipitik eta gero handitü ondoan badakizüa gure gizon gazteak zer ambitione düan? Badakizüa zer düan pakürrik hoberena, egün orotan bere arropa pezüeki ari izan denean dantzan, izerdi orotarik eta zombait aldiz ebien pean?

Badakizüa zerk ahatzeraziko deion bere leherraldia, bere lan eta penak? Plazan ari delarik godalet dantzaren emaiten bere lagüneki, edo arribadaren dantzatez düelarik bideen gainti lerden eta zanpil, entzün dezala so egileetarik batek erranik: «Hau zer dantzaria!» Egün orotako badü aski, bihotzaren argitzeko.

Biharamenean etxen etxekoek erranen deitze plazan entzünak, partikularzki hon badira. Aski da! Gure gizon gaztea dantzari honetan sartzen da, eta jin dadila Pettarretik galto bat dantzari igorteko, joanen da hor behera.

Bena egia entzün nahi badüzü Pariseko edo Londreseko teatretan axola ttipi dü soegilez; bere kartielean lotsago da holako eta halako leküko etxekojauneri, lehenagoko dantzari famatüak, hitz batez beretarik ondoko dantzariak betikotz jüjatzen dütüenak.

Gero Atharratzeko edo Mauleko karrketan bi maskarada aldia partzen badira ber egüean, zer nahi igaranen düe batak besteak beno haboro izan nahiz, frisatak zoinek gorago egin eta püntüak zoinek hobe.

Eta arratsen ostatüetarat leher eginik sartü ondoan, kunbata⁴¹ aitzina ari da, bena orai kantatzez, zoinek gorago, eta zoinek azkarrago, bakotxak nahi düalarik erakatsi ez düala sendi egünaz eman düan indarra.

Ikusi düt haatik osagarria sekülakoz galtzen holako egünaldi elibatetan! Bena zer nahi den, geroko urtean berriz izanen da ber anbizioneak pusatürik beste hainbeste gizon gazte.

Eta eman dezala hola-hola!

Hasteko ez ditake haurren kaskotik amets hori elki. Ikas bezae handier so püntüen zorrozten, frisataren doblatzen, eta bil bezae aski hats eta aski indar orenak ondoz ondo igaraiteko dantzan, soegileer ikustera ützi gabe den mendren akidüra.

Gäüz dantzari zahar baten etxen, edo borda zonbaitetan kandera txar baten argian ikas bezae zaharrek eman düen dantza, ez dadin gal.

Gatü, txarrera, satan eta zamariak ari bite batarzünean; zoin anpleago. Bena haien ondotik beltzeria egon bedi onestateak galtatzen düan xedeetan, eta buhami-buhamesak (sic) etxen egon bite: hitz batez lehenagoko dantza zaharra begira bedi, eta okerkeria güziak saihetserat ützi, eta gure gazteriak ez dü ukenen laudorio baizik.

P. PICOCHET

⁴¹ Borroka; biarnesez eta frantsesez *combat*.

5. BESTE

5.I. «Betzülako aize epailea»¹

BANAKIAN artzainak bazirela Betzulan²; badira holatan aize epaileak ere, bat bederen. Ez düe eneganik mesperetxü handirik ükenen, aize epaileek. Hain nahi düt ikusi aize epaiten jentea ezi ez üilü gaznakan. Zerbait honik badü aize epaiteak, ez düalakotz izerdi handirik jauzarazten eta ote epaiteak bezala ezürra einatzen.

Nor den Betzülako aize epailea? Ez deizüet nik salatüko! Azkenaren azkenekoak entzün nitiro biarnesez eta espainolez. Gaüza bat bera jakin ezazüe: hogeita hamabost urtez bere zaragoila gibela hingatü düala, haurrer zerbaiten erakutsi nahiz. Eta ikusiko düzü ez düala, frantses erakustez, sobera ahatze bere eüskara.

Hona zer berriki igorri deikün.

J. J.³

¹ *Gure Herria* (*Betzuleko aize epailea*, Juillet-Août 1935: 321. or.). Testu labur hau Fabien Hastoyen «*Urriago da*» testuaren aitzinsolasa da; hori ondoko orrialdeetan argitaratu da (322.-324. or.)

² Jatorrizko testuan «*Betzulen*». *Betzüla* Larraineko eta Otsagabiaren arteko mendia da.

³ J.J. Juanes Basaburu litzateke, 1936ko *Gure Herria* Janvier-Février zenbakian erraten duen bezala (16. or.). Baina Juanes Basaburu izengoitia baita, ez dakigu Fabien Hastoy aurkezten duen hori nor den.

5.2. «Urriago da...»⁴

GURE HERRIAN, *Mai-Juin 1935*, p. 212, *norbaitek, eijerki biribilkatürrik agerrarazi düütü herroka parrasta bat, zoin deitzen beitiütü: «Imitation de rythmes modernes».*

Nik igorten deitzat auher arte batez irakur detzaian, txainkü-mainküxago elibat, bena abal oroz xiberotar tiran eta üxkara (sic) xabüan, zoin deitiiko beitiüt: «Rythmes ultra-modernes, non encore imités.»

Urriago da Frantses tiranaren ikastea
Eziez bi txingilli eta jauzi egitea.

Bost büilürri mehe eta argiz bürü-estalgia üngüratürrik,
Aitzindari haundia (sic) zen jinik,
«Ofronian» gaixki erabilirik izan ginenean ikustera,
Eta gure berrien jakitera.
Urtsuiako itzalean sortüak, Arradoi püntan artzain egonak,
Basabürü alteko gizonak,
Han ginen ahal bezain xüxen eta lerden herrakatürrik (sic),
Haidürü, debeatürrik.

Urriago da Frantses tiranaren ikastea
Eziez bi txingilli eta jauzi egitea.

«Bulletin d'évacuation» osto txipia, gogoz günüan ikasia,
Ihardesteko okertü gabe,
Guri ez zirener herabe,
Galtatzea zertako gozaten günüan «Dépôt»-eko paradüsüa.
Bai, gogoz ikasi gure ustez,
Eta askitto nekez,
Han ziren hitz gotor eta belagile solazak,
Bürüa ontsa einerik eta bustirik izerdi latzak.

Urriago da Frantses tiranaren ikastea
Eziez bi txingilli eta jauzi egitea.

Urtsuiatarra herroka bürü, hari dio lehenik «Bost-Büilürrik» galtatzen:
«Dis-moi pourquoi tu as été évacué, mon garçon;
Sans massacrer des termes savants, parle sans façon.»
Mihia pastextürrik, hitzak dütüalarik arta arrabaskatzen,
Eta bürüa hazkatzen :

⁴ *Gure Herria (Urriago da...)*, Juillet-Août 1935: 322-324. or.). Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia (F. H.).

«Ma coronel, ch'en ai lé arromalizt grrronolochik'!»
Hola züan gizagaixoak gogoz ikasi «rhumatisme chronique.»
Xahü kexatürrik, «Bost-Büilürrik» oro igaraiten gütü,
Hain beitzen tütülütü,
Azken azkeneala artino:
Gük, gibeletik, so tximino.
Arradoitarra agitü zen herroka büztana,
Ber galtoari zer ihardets, ontsa bürüan emana;
Den mendren lotsarik gabe; (ikusi beitzütüan oldartzen «lé Boch'»):
Ahoa zabal-zabala dio:
«Ma coronel, Machor il m'a dit: «Ti en as lé zilotik' n' gouianar gôôch!»
Harek ere hola gogoz ikasia «sciatique inguinale gauche.»
Bai eta koronelak, orozbatkoz, guri adio!

Urriago da Frantses tiranaren ikastea
Eziez bi txingilli eta jauzi egitea.

F. H., 31-VII-35.

Betzulako aize ephailia.

GURE HERRIA



AURKIBIDEA

I. ETCHEPARE. — <i>Buruchkak</i>	193	P. ARANART et P. LAFITTE. — <i>Vocabulaire</i>	253
Mlle HILLAU. — <i>Egiazko eskualdunak</i> ..	202	ADICHKIDEA. — <i>Concours de Bertolaris</i> . .	258
Mayi ARIZTIA. — <i>Amattoren uzta</i>	208	P. LAFITTE. — <i>Le suffixe « -ekin »</i>	261
IKHERTZALEA. — <i>Jean d'Olee</i>	216	F. H. — <i>Réflexions sur l'alphabet basque</i>	265
J. ELISSALDE. — <i>Aitsolitz, zuhur-hitz eta eran zahar</i>	220	V. MAIDER. — <i>Poésies basques</i>	269
BETZULAKO AIZE EPHALIA. — <i>Hama-sei pikoatiko pertsuac</i>	230	G. GUILLAUME-REICHER. — <i>La pierre d'Ametzollia</i>	272
Ph. VEYRIK. — <i>Observations sur les aperçus de M. de La Chabeaussières</i> . .	233	J.-B. Daranatz. — <i>Nominations ecclésiastiques</i>	278
L. JAUREGUBERRY. — <i>Le baston</i>	236	<i>Bibliographie</i>	285
C. GUILLAUME-REICHER. — <i>Le voyage d'Otchoa</i>	238	SUPPLÉMENT MUSICAL	
R. CUZACQ. — <i>Le général Moncey et le recrutement au pays basque</i>	244	« <i>Biyotz Erituba</i> » — <i>Pour amuser les enfants</i> P. Donostia.	

5.3. «Hamasei pikoeratako pertsuak»⁵

1935eko «Gure Almanak»ean, P. L. delakoak eman deizkü pertsularien legeak. Üxkara (sic) ahaideetan ediren dütü pertsu, piko hoietakoak:

$$7 + 6 = 13 \quad 8 + 7 = 15 \quad 5 + 5 + 8 = 18$$

Ahaide bat bada, ziberukoa (sic), zoinek beitätü hamasei piko: $9 + 7 = 16$. Hura da:

Basoilarrak kantatzen dizü, Iratiko soroan.

I 2 3 4 5 6 7 8 9 I 2 3 4 5 6 7

Ihork ere ez liro pentsa, nik zer düdan gogoan

I 2 3 4 5 6 7 8 9 I 2 3 4 5 6 7

etc...

Ber ahaidean iseatü niz üxkaralat ützültzea
«Le fromage à la crème», chanson populaire comique.
Horra hontü dütüdan bresetxkoak (sic):

OSTATÜ TXARREKO BORTÜ GAZNA

DOMINIXEK

Deitzen nizüe Dominixe, Jauregiko semea,
Saltzez oihal eta mihise, hartarik düt bizia
Herriz herri beniz ebilten, non nahi aterbea.

ALLANDETTOK

Allandetto zaizüe mintzo, hona hürrüntik jinik;
Irabazbide eijerra dit, Dominixez besterik,
Tximinia karrakatzea, beitätü nik haütatüririk.

DOMINIXEK

Mendiek ez ümen dizüe, algar бүрү egiten:
Allandetto honeki haatik, ez düt ez nik ahazten,
Ostatü batetan ginela, biak behin kausitzen.

⁵ *Gure Herria (Hama-sei pikoeratako pertsuak, Mai-Juin 1936: 230-232. or.).* Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia.

ALLANDETTOK

Orit nük ni bai Dominixe: hura ostatü txarra!
Aiharia mehetik beitzen, ez zikintü litxerra;
Arrain edariz busti güntüan, aho eta tzüntzürra.

DOMINIXEK

Bortü gazna buxinkañi (sic) bat, aihari ürrentgarri,
Neskatoak zeikün eskentü; so ginen, so, algarri;
Bientakorik ez beitzatean, zale gü akort jarri.

ALLANDETTOK

Hireki hitzartu ginean (sic), janen züala gazna,
Gaü hartan eginen züanak, ametsik ederrena,
Berehala oherat joan, erranez: gaü hon jauna!

DOMINIXEK

Amets egiteko behar dik, lehenik pürü loak hartü;
Bena debaldetan nündüan, ohe belloan sartü,
Amets eijerrak eta loa, ziztadaian hürüntü.

ORANO DOMINIXEK

Gaznari ütsütürük beniz, hortü nüan ametsa,
Goiz-goizik jin hire bortala, kurrunkaz hintzan ontsa;
Iratzar hadi, bena bertan, galdü beitük, nik lotsa.

ORANO DOMINIXEK

Ametsetarik izan nük gaur, paradüsü erdiala,
Odei batetan junpatürük, aingürüen arteala;
Amets ederragorik ote, izan deia seküla?

ALLANDETTOK

Gezürra zela ikusirik, enea ez axolik,
Aitortürük ere eijerki, zer egin nüan ixilik:
Ametsik, haboro eziz hik, ez nüan ez eginik.

ORANO ALLANDETTOK

Hihauk eni pasta emanik; ihardetsi nüan deblau
Izan dük hanitx mirakülü, gaintitzen ez düe hau
Ametsetarik ikusi haüt, hegaltatzen, flau, flau, flau!

ORANO ALLANDETTOK

Izarrez haintüalat gorderik, ez hintzan ez agertzen:
Paradüsüan hintzateala, zitada üdüritzen:
Hantik honat nihor ez diat ikusi arra ützültzen.

ORANO ALLANDETTOK

Goiti so debeatü beniz, iratzarri nük ordüan,
Atorrasik eraitsi eta, txerkatü sukaltean;
Gazna nihaurentako zela, hartü diat eta jan!!!

BIAK ALGARREKI

Geroztik ostaatüz girade, berez beti egoiten
Bata ordariaren lotsaz, bestea ez fidatzen.
Ixtoria eijerrak dira, noizpait beti ürrentzen!!!

Bizpahirur aldiz frantsesealat lerratü behar izan dit, ontsa nahigabez.

BETZULAKO AIZE EPHAILIA.

5.4. «Pariseko modak eta probintzietako moda zaharrak»^{6,7}

« *La Commère* » *habillée en Begirale (jupe rouge à bande verte, corselet de velours noir sur chemisier blanc, sandales et bas blancs)* récite le prologue:⁸

Frantziako Probintzietan,
Jei eta igante egünetan,
Agertzen dira karriketetan,
Xahar eta gazteen soinetan,
Ezinagoko egindüraz,
Bai eta apaindüraz,
Eder diren soinetakoak,
Moda zahar aspaldikoak.
Ez ditzagüla, ez, ütztz galtzera,
Ustetz Pariseko manera,
Hanko atrika txar okerra,
Heltüko den kanpainetara.
Berehala, zihaturen begiz,
Ontsas aserik erriz.
Ikusiko düttüzüe
Nahi badüzüe,
Zer deizküen Paristarrek,
Lüma eta perrek,
Igorri: pertika molde,
Kürkürü, zetabe,
Gibelalde harrigarri.
Beläünak ageri,
Bürü mehe ezpatadün,
Zaia estekadün,
Paristarrer jarraiki nahi girenean,
Üxkaldüntsak gitean egon heinean.

⁶ *Gure Herria* (*Pariseko mudak eta provintzietako muda zaharrak*, Octobre-Décembre 1938: 308-312. or.). Betzulako aize ephailia da Fabien Hastoyen izengoitia. Hura da bertsuen idazlea. Aldiz, (I) oinoharra egiten duen eta testuaren ondoan Betzulako aize ephailia aurkezten duen «Begirale bat» hori Madeleine de Jaureguiberry izan daiteke.

⁷ «(I) Je recommande cette revue à toutes mes soeurs Begirale qui ont tant de mal, chaque année, à composer le programme d'une fête basque. Elle a été donnée à Alos, à Tardets et à Chéaute par le petit groupement « Senda Zaharrak » d'Alos.»

⁸ Frantsesez ziren zatiak ez ditugu itzuli eta hizki etzanetan zirenak etzanak utzi.

*Le chœur chante le refrain, puis le défilé commence.
La commère se tient sur le devant de la scène.
Les personnages entrent les uns après les autres; tandis qu'ils avancent jusqu'au bord de la rampe, la commère chante le couplet, tour à tour admiratif ou légèrement ironique.*

I°) LA CRINOLINE

Hauxe dizügü anderea, ikusgarri ederra;
Pariseko zeinü handia, jauntsirik gain behera,
Sargiaz hersitto dükezü, zure gaurko kanbera.

REFRAIN

Le chœur chante le refrain, tandis que les personnages vont se ranger de chaque côté de la scène; les modes de Paris d'un côté, les modes de province de l'autre côté.

2°) LA BRETONNE

Bretaniako lür zaharrak, hazten dü gazte ederrik,
Zü zirade düdarik gabe, hetan bat berezirik,
Gure begien bazkatzera, Üxkal Herriala jinik!

REFRAIN

3°) LA TOURNURE (*üzkü faltsüa*)

Zer düüt orai heben ikusten, jargia bizkar zolan,
Gibela edertü beharrez, gorderik kotapean,
üztüpa kotxi ttipitto bat, haur bat jar beleite han!

CHANTS DES COUPLETS⁹ (Airea : *Bas'ollarrac Khantatzen dizu*)

REFRAIN

Allegro - bien scander les notes accentuées.
Üxaldüntsak beti jakin dü Moda orori jarraikitzen,

⁹ 310. orrialdean, kupleen («couplets») airea («Basoilarrak kantatzen dizü» kantua) eta errapikaren («refrain») musika notak emanak dira, hitzekin. Errapikaren adibide gisa I°) La Crinoline-ren hitzak emanak dira. Ez ditugu hemen errepikatzen. 310. orrialde hori eskanerizatua ematen da, testuaren ondotik.

CHANT DES COUPLETS

(Airea : *Bas' ollarrac Khantatzen dizu*)

Hau - xe di - zü - gü an - de - ri - a I -
 Khus'ga.rrri e - der - ra ; Pa - ri - se - ko ze -
 ñu haundi - a jaun-tsi - nie gaiñ be - he - ra
 sar - gi - az her - si - tto dü - ke - zü , zu - re gaur - ko kham -
 ba - ra

REFRAIN

Allegro - bien scander les notes accentuées.

Ux. kal - dun - tsac be - thi ja - kin dü Mu. da o - ro -
 Be - na e - re ja - kin be - har dü ha - ien ei - jer.
 ri - jar - rai - ki - tzen Tra, la, la, la, la, la
 ki - tto xo - thii - tzen
 la la Tra, la, la la la, la, la, la la

Ziberuko epixtolac se chantaient sur cet air.

Pariseko mudak eta provintzietako muda zabarrak (F. Hastoy), 1938ko Urria-Abendu: 310. or. Chant des couplets - Refrain

Bena ere jakin behar dü haien eijerkitto xotiltzen
 Tra la la la la la la la Tra la la la la la la la la

Ziberuko epixtolac se chantaient sur cet air.

REFRAIN

4°) L'ALSACIENNE

Alzazian ümen ditade, neskatil' ederrenak;
 Bürü ganean bi hegal zabal, arauz haidürü direnak,
 Hegaltotsez noiz zü eraman, paradüsü goralat!

REFRAIN

5°) LE FOURREAU

Ürrüttx xaharrak¹⁰ axala dü, mehe, txar eta tiran,
 Holako bat üdüri düzü, zure pilda hersian,
 Hagatto baten pare zira, beste horien artean!

REFRAIN

6°) LA PROVENÇALE

Lür lilitzea Provenzako (sic), zü hanko hüme zira;
 Zure бүrüari so nago, ezin asez begia,
 Hanko eki bero argiak, zohitzen dü gaztea!

REFRAIN

7°) L'ENTRAVÉ

Abelbürü ohil zirenez, niagozü orai heben,
 Adarretik aztaparreal, beitütüe sokatzen,
 Kotak deitzü zuri bi pernak hala-hala estekatzen!

¹⁰ Hau ote da? Jatorrizko testuan «Urrutx, xahana».

REFRAIN

8°) L'OSSALOISE

«Hur Hon» izeneko herrian, zü sortü izan zira:
Lehenekoen mod' ederra, dezazüla begira,
Pariseko atrika¹¹ txarrez, erriz heben beikira!

REFRAIN

9°) SOURCILS À LA DIABLE, CHEVEUX À L'ANGE

«Muntteot»¹²-en alabak dizü, zük bezala bepürüa,
Ifernüko süak errerik, tipiltürük leküa,
Belloz aldiz nahi zünüke, ihakint' aingürüa.

REFRAIN

10°) L'ÉPINGLE AU CHAPEAU

Otoi egon zite hürrüntto, zure ezpatareki,
Besoz-beso ez nintzateke, jarri nahi zureki,
Begiak nori nahi tützü, jelki gerren horreki.

REFRAIN

11°) LA BEGIRALE (*le même costume que la Commère*)

Xuri-berde-gorri arropa, düzü begiralena,
Nasai, goxo eta xotila, eijerrez eijerrena:
Üxkaldün guziek beitügü, holako ikuriña (sic)!

¹¹ Hitz hori ez da euskal hiztegieta agertzen. Gaskoia da: *atric* «ajustement, équipage, arrangement (sens péjor.)», *atricädje* «les choses constituant les vêtements, les effets» (Palay, *Dictionnaire du Béarnais* ...: 82. or).

¹² Munterot debrua da.

REFRAIN

Cette petite revue a été composée par Betzulako Aize ephailia.

Les lecteurs de « Gure Herria » auront reconnu dans ces couplets le style piquant et original du poète souletin ainsi que la richesse de son vocabulaire et la perfection de sa syntaxe.

BEGIRALE BAT.

LEXIKO LABURRA ZUBERERA-BATUA

A

abantxiü: kasik
aibari: afari
aizina: asti
aitzin: aurre
alegera: alai
amiñi bat: pixka bat
anddeijer: erbinude
anoa: badaia jatekoa
aranatü: durundatu
argizagi: ilargi
arnes: tresna
arraileria: irri-barre, txantxa
arres: ardi
arsaldo: artalde
askari: gosari
askazi: ahaide
aujami: txorimalo
azkorri: oskorri

B

bakotx: bat, bakar
baiko: bezain laster, orduko
baratü: gelditu
barbalot: intsektu
barrüiki: ukuilu
batzarri: harrera on
bedatse: udaberri
begitarte: aurpegi
belagile: sorgin
bizizale: biztanle

bogatü: nabaritu, entzun
bo/uhame: ijito
borta: ate
builta: oldar, umore
b/mukanas: musuzapi

D

da(i)gün: datorren
dailü: sega
debe(i)atü: aspertu
den mendren: ttikien
destorbü: istripu, hondamendi
doi-doia: osta-osta
dritxo: ateraldi
dünda: trumoi

E

ediren: aurkitu
egürüki: igurikatu, itxaron
ebo: hil, garbitu
eijer: polit
eine: nekatu, unatu
eki: eguzki
eküratü: gelditu, eten
elge: alor, lautada
elki: kendu
emazte: emakume
ene: nire
errejent: erakasle
ertxo, ertzo: ero
etxau: herrixka

etxautes: herrixkako biztanle
ebi: euri

F

feida: azoka
frisat: dantza-jauzi mota

G

gaitzürü: hamar litroko ontzi
galtatü: eskatu, galdegin
gaiüainera: saguzar
gibel: atze
giltz: gako
godalet: edalontzi
goroxima: garizuma

H

haboro: gehiago
baidürü izan: itxaron, zain egon
berexa: aztarna
berots: zarata, harrabots
büilantü: hurbildu
bürrüntü: urrundu
büxtülatü: txistu egin

I

igaran: igaro, pasatu
ihize: ehiza (animalia)
ihizlari: ehiztari
ihizor: ehiza txakur
ibon: nehon
ibor: nehor
inkarü: pixka
iñazi: tximista
irus: zoriontsu, dohatsu

K

kabale: abere
kantore: abesti, kantu

kantüko: gertu
karrika: kale
karru: izotz, horma
kartiel: auzogune
kasabet: jaka
kebeila: langa, barrera
kente: espezie
kinper: azpialde
kobla: bertso
koki: kiskil, pikaro
korpitz: gorputz
kosi: lehengusu
koxelü: sekretu
kümitü: gonbita
kürütxe: gurutze
küso: txorimalo

L

larrazken: udazken
lotsa: beldur

M

mitil: morroi
musa: diru-zorro

N

naba: ibar
neskanegün, neskenegün: larunbat

O

okolü: etxeko aurrean den pentze
ola: artzain-etxola

P

pakatü: pagatu, ordaindu
pastetx: talo
pikarrai: biluzirik
pürü: bederen

S

sakola: sakela, poltsiko
sordei(s): okerrago, kaskarrago
solaz: solas

T

tarta: sasi, sastraka
teii: zikin
tini: goiko alde
txainkü: maingu
txanpatii: zaunkatu
txilintxau: zintzilik
tximaltii: zimurto
txingilli: lehen jauzi
txorta: tanta
txostakatii: jolastu
txükatii: igurtzi, torratu
tzintzarroska: xaribari
tzüsto: ustel

Ü

ühaitz: ibai
übülgi: ostots, trumoi
üilii: euli
üinürri: inurri
üküratii: gelditu, geratu
ürrentii: bukatu, amaitu
ürrin: usain
üzkü: ipurdi

X

xahatii: xahutu, garbitu
(t)xinkor: urdai

Z

zamari: zaldi
zaragoilak: parkak, galtzak
zeinü: ezkil, kanpai
zerrailü: hesi
zotükatii: higitu, mugitu
zühain: zuhaitz

BIBLIOGRAFIA LABURRA

ARCHU Jean-Baptiste, 1848 (1990), *La Fontainaren alegia berbeziak neurbitzez franzesetik uskarara*, Ricardo Gómezek prestatua, Oiartzun, Euskal editoreen elkar-tea.

CASENAVE-HARIGILE Junes, 1989, *Hiztegia Français-Euskara* Zuberotar euskalkitik abiatzez, Ozaze (Zuberoa), Hitzak.

—, 1993, *Hiztegia II Euskara-Français*, Xiberotar euskalkitik abiatzez, Ozaze (Xiberoa), Hitzak.

CHARRITTON Piarres, 1984, *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak : I Euskal gaiak*, Baiona, Elkar.

—, 2007, *Eskualtzaleen Biltzarra elkartearen historia laburra (1901-2003)*, Baiona, Eskualtzaleen Biltzarra.

CONSTANTIN Jean-Baptiste, 1926-1910 (1996), *Haritchabaletaren bizia - Don Juan eta bere adixkidiak*, Patri Urkizuk prestatua, Oiartzun, Euskal editoreen elkar-tea.

DAVANT Jean-Louis, 2001, *Zuberoako idazle zenduak*, Donostia - Baiona, Elkar-lanean.

—, 2008, *Zuberoako literaturaz Antologia laburra*, Bilbo, Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, 16 liburuki, Bilbo, Euskaltzaindia.

—, 2012, *Euskaltzaindiaren Hiztegia Adierak eta adibideak*, Bilbo, Euskaltzaindia.

GURE HERRIA aldizkaria, 1921eko urtarrila-1939ko agorrila, Baiona.

LARRASQUET Jean, 1939, *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*, Paris, Klincksieck.

LARRE Emile, 1992, Iparraldeko herri-ipuak idatziak, *Euskera*, XXXVII-I, Bilbo, Euskaltzaindia: 463-475.

LHANDE Pierre, 1926, *Dictionnaire basque-français et français-basque (dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin)*, tome I, Dictionnaire basque-français, Paris, Gabriel Beauchesne.

PALAY Simin, 1974 (1980), *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, Paris, Éditions du CNRS.

ILUSTRAZIOEN ZERRENDA

Gure Herria, 1927ko Iraila-Urriaren azala

Pello Española (D. Béhéty), 1927ko Iraila-Urria: 432. or.

Jean-Baptiste Mazéris (argazkia familiak emana)

Gure Herria, 1930eko Azaroa-Abenduaren azala

Gai-aiñbera eta bi andere ejerrak (P. Chibero), 1930eko Azaroa-Abendua: 509-510. or.

Bi ubuñac eta astoa (F. Hastoy), 1938ko Apirila-Ekaina: 114. or.

Haborokina (J.-B. Mazéris), 1933ko Uztaila-Agorrila: 311-315. or.

I. *Arribadak* (311. or.)

II. *Ekuian emaiten den dantz-aidia* (312. or.)

III. *Gudalet dantza* IV. *Jaun-andere-laborari-laborarisa-en dantzak* (313. or.)

V. *Chorrotchen aidia* VI. *Bubame jaunaren dantza* VII. *Kauteren aidia* (314. or.)

VIII. *Kerestu dantza* (315. or.)

Gure Herria, 1936ko Maiatza-Ekainaren azala

Pariseko mudak eta provintzietako muda zabarrak (F. Hastoy), 1938ko Urria-Abendua: 310. or.: Chant des couplets - Refrain

